Zu hemen zaude.
goiena
2018-09-21 EGUBAKOITZA / 785. ZENBAKIA / 18. URTEA
**DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA** GOIENA.EUS TOKIKOM



**IÑAKI BENGOA**
SHOT! ESTUDIOKO ARDURADUNA

# "ESTUDIO BERDINA IZANGO DA, EZ NUEN ALDATZEKO BEHARRIK IKUSTEN"

Shot!-en aldeko kontzertua egingo dute domekan Arrasaten hainbat musika taldek / 40

Iñaki Bengoa, oraingo astean, maiatzean kiskali zen Shot! estudioan.. XABIER URZELAI

# Euskaraldian izena emateko deia

Atzo ezkero, izena eman daiteke Euskaraldian, 'ahobizi' edo 'belarriprest' izateko; herri guztietan deitu dute parte hartzera / 3

+ 

Andoni Gorosabel eta Oihana Aldai jokalariei elkarrizketa

Jorge Oteitzaren apostoluek eta Pietateak, 50 urte

**SINADURAK**

RAFA MUNGIA / **8**
MAIALEN MADARIAGA / **27**
OSCAR GARCIA / **10**
XABIER IGARTUA / **33**
IKER ELEXPURU / **17**
AGURNE BARRUSO / **48**






# Eusko Ikaskuntzaren ospakizunak, hastear

Eusko Ikaskuntzak ehun urteko ibilbidea bete du, eta, hori ospatzeko, XVIII. kongresua egingo du. Horren ondorioak Oñatin aztertuko dituzte azaroaren 23an; hain zuzen ere, Eusko Ikaskuntzak lehenengo kongresua egin zuen leku berean

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARRASATE

Eusko Ikaskuntzak 100 urte bete ditu aurten, eta, hori ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Nabarmentzekoa da izaera estrategikoa izango duen XVIII. kongresua egingo dutela, *Geroa Elkar-Ekin* izenarekin.

Baionan hasiko dute kongresua, urriaren 5ean, eta Gasteizen, Iruñean, Bilbon eta Donostian saioak egin ostean, Oñatin amaituko dute kongresua azaroaren 23an. Bost saioen batuketa eta kongresuaren ondorio nagusiak azalduko dituzte, San Migel elizan, 09:30etik 19:15era bitartean. Eta, mendeurrena borobiltzeko, azaroaren 24an, Eusko Ikaskuntzaren 100 urteak gogora ekarriko dira euskal lurraldeetako ordezkari instituzional, Eusko Ikaskuntzako bazkide, kongresuko partaide eta herritarren parte hartzearekin. Interesa izan dezaketen herritar guztiak gonbidatuta daude azaroaren 24ko Oñatiko saiora.


Eusko ikaskuntzak Oñatiko Udala ohorezko bazkide izendatu zuenekoa. GOIENA

### Izena emateko modua

XVIII. kongresuan edonork izena eman dezake, osotasunean edo saioka, Eusko Ikaskuntzaren *Eusko-ikaskuntza.eus* atariaren bitartez. Era berean, Eusko Ikaskuntzaren orrialdean kontsultatu daiteke mendeurreneko ospakizunetarako antolatu duten programa ofiziala.

### Ehun urteko ibilbidea

Eusko Ikaskuntzak 1918ko irailean egin zuen lehenengo kongresua, Oñatin. Oinarri zabaleko elkartea osatu zuten orduan: ikertzaileak eta euskalariak ziren, baita ikasleak, pentsalari nekaezinak eta herrizaleak ere. Guztiek bat egin zuten Euskal Herriaren aurrerabidearekiko konpromisoan. Emakumeak euskal kulturaren eta zientziaren eremuetara ekartzeagatik nabarmendu zen Eusko Ikaskuntza garai hartan.

Lehenengo urteetan hiru kongresu handi egin zituzten; ondoren, Primo de Riveraren diktadura garaian, zailtasunak izan zituzten, baina 30eko hamarkadan gogoz ekin zioten lanari. 1930ean, V. kongresua egin zuten, Bergaran, hain zuzen: euskal arte herrikoiari eskainitako kongresua izan zen hura.

Gerra zibilaren ondoren, Eusko Ikaskuntzaren jarduna etenda geratu zen hego Euskal Herrian. 1978ko irailean, Oñatin elkartu ziren bazkideek erabaki zuten berriro ere abiaraztea Eusko Ikaskuntzaren jarduna eta Jose Migel Barandiaran izendatu zuten lehendakari.

### Debagoiendarren presentzia

Jose Migel Barandiaranen ondoren, Gregorio Monreal, Juan Jose Goiriena de Gandarias, Javier Retegi bergararra, Jose Maria Muñoa Ganuza eta Iñaki Dorronsoro izan dira erakundeko buruak. "Bi agintaldiz egon nintzen lehendakari karguan (2002-2008). Jende jatorra ezagutu nuen eta lan handia egin genuen", dio Retegik. Eusko Ikaskuntzaren barruan lantaldeak daudela dio Retegik; euren lana talde horiek indartzea izan zen, batetik, eta, bestetik, ekintza estrategikoak gauzatzea. "Ekonomikoki urte onak izan ziren, Eusko Ikaskuntzaren aurrekontua hirukoiztu egin genuen", gogora ekarri du bergararrak.

"Kanpotik ez da Eusko Ikaskuntzaren lana ikusten, baina nik diot etxe bat egitean zementua sartu behar den moduan, erakundeak egiten duen lana ere horrelakoa dela", azaldu du Retegik. Alderdikerien gainetik dagoen erakundea dela gaineratu du, "herritik sortua eta herriarendako" lan egiten duena. "Orain dela ehun urte euskal estatutuaren beharra zegoen eta horretan lan egin zuten; euskal unibertsitate publiko baten beharra ere aldarrikatu zuten", dio Retegik. Gaineratu du egungo beharrak beste batzuk direla, eta erronka berriak dituztela.

Jose Mari Velez de Mendizabal aramaioarrak zuzendari kudeatzaile kargua izan zuen erakundean 1994-2010 bitartean.

### Jakiunde sortu zuten

Eusko Ikaskuntzak sortu zuen Bergaran egoitza duen Jakiunde akademia: "Hasiera batean erakunde barruan sartzea pentsatu arren, kanpoko jendearekin egitea erabaki zen gero. Euren bidea egin dute, baina oinarri bera dute", dio Retegik.

**ERAKUNDEAK BERGARAN EGIN ZUEN V. KONGRESUA, EUSKAL ARTEARI ESKAINITAKOA**

## Euskaltzaindia ere, ospakizunetan

Euskaltzaindiak 100 urte beteko ditu datorren urtean eta dagoeneko hasi dira hori ospatzen. Bederatzi jardunaldi antolatu dituzte; horietako bat Arantzazun egingo dute; hain zuzen, euskara batuaren oinarriak finkatu zituzten lekuan.

Arantzazun egingo dutena bigarren jardunaldia izango da: urriaren 4an, 5ean eta 6an Gandiaga Topagunean. *Arantzazutik mundu zabalera (1968-2018)* lelopean egingo dute Euskaltzaindiaren XVII. biltzarra. Urriaren 1era bitartean eman daiteke izena *info@euskaltzaindia.eus* atarian edo +34 943 42 80 50 / +34 944 158 155 / +33 (0) 559 25 64 26/ +34 948 22 34 71 telefono zenbakietara deituta. Jardunaldi guztiak streaming bidez ikusteko aukera egongo da, *https://youtu.be/wDxVYs1utv8* atarian.

UDAZKENEKO PROGRAMAZIO BERRIA
HARIRA
GOIENA TELEBISTAN, ARAMAIOKO ALKATEAREKIN
IRAILAREN 25EAN, MARTITZENA,
21:30EAN ETA 23:30EAN
GONBIDATUA: LIERNI ALTUNA, ARAMAIOKO ALKATEA
ENEKO AZKARATEK AURKEZTUA

goiena
ZU HEMEN ZAUDE



Eskoriatzako hamaikakoaren aurkezpena, eguaztenean. IMANOL BELOKI

# Euskaraldirako izen ematea zabaldu dute

Atzo egin zuten, Iruñean, izen ematearen irekitze ekitaldia. Hamaikako guztiak aurkeztu ondoren, Debagoienean ere eman daiteke izena 'Euskaraldia, 11 egun euskaraz' ariketa sozialean parte hartzeko eta 'belarriprest' edo 'ahobizi' izateko

**Josu Bilbao** DEBAGOIENA

Euskaraldia ariketa sozialean izena emateko epea ireki dute dagoeneko – *Izenematea.euskaraldia.eus* helbidean egin daiteke–. Atzo egin zuten, Iruñeko Zentral aretoan, irekiera ekitaldia, musika eta umore emankizunekin jantzi zuten ekitaldian.

Debagoienean aurkeztu dituzte dagoeneko ekimenaren bultzatzaile eta pizgarri izango diren hamaikakoak. Modu pertsonalean eta borondatez Euskaraldian, *11 egun euskaraz* ekimenean, parte hartzea erabaki duten hamaika lagunek osatzen dituzte hamaikakoak. Kideek, ekimenaren enbaxadore izateaz gain, herritarren parte hartzea aktibatzeko lehen deia egin dute. Gainera, ekimenaren berri emango diete euren ingurukoei. Debagoienean, herriz herri, uztail aurretik aurkeztu zituzten gehienak, eta aurkeztu duten azkena Eskoriatzakoa izan da, eguaztenean eman zuten-eta ezagutzera, Zaldibarren.

Iruñean egin zuten izen emateari hasierako bultzada emateko ekitaldia, baina bailaran ere ekintza ezberdinak egin dituzte Iruñeko hitzorduarekin bat egiteko. Arrasaten, esaterako, Portaloi aurrean batu zen bertako hamaikakoa eta irekiera argazkia atera zuten hamaika kideek Geike osatzen duten beste eragileekin batera. Bergaran, bestalde, atzo ireki zuten Euskaraldiak herrian izango duen lokala, Barrenkalea kalean.

### Hamaika egun euskaraz

Euskaraldiak ariketa sozial bat planteatuko du azaroaren 23tik abenduaren 3ra, euskaraz hitz egiten edo ulertzen duten guztien artean euskaraz berba egin dezaten: "Euskal Herri osoan eta elkarrekin arituta, egunerokoan eragitea da helburu nagusia, eta, horretarako, Euskaraldiak planteatzen dituen bi roletako bat hartu beharko dute parte hartu nahi dutenek".

### 'Belarriprest'-ak eta 'ahobizi'-ak

Euskaraldiaren muina izango dira *belarriprest* eta *ahobizi* figurak, azarotik abendura. 16 urtetik gorako herritarrek eman dezakete izena. *Ahobizi* izateko, euskaraz hitz egiten jakin behar da eta *belarriprest* izateko euskara ulertu behar da. Horiek dira baldintza nagusiak. Horrela, ariketa soziala gauzatuko den egunetan, bakoitzak identifikazio moduan txapa bat eramango du soinean.

*Belarriprest* izango direnek euskaraz dakiten guztiei euskaraz egiteko gonbita egingo diete. Euskara ulertzen dutela adieraziko dute, eta eurekin euskaraz hitz egin dezatela eskatu. *Belarriprest* txapa aldean eramango duten pertsonek euskaraz edo erdaraz erantzungo dute, baina euskaraz egiteko eskatuko dute. Horrela, orain arte euskaraz izan dituzten elkarrizketek euskarazkoak izaten jarraituko dute, baina orain arte erdaraz izandako elkarrizketa batzuk euskaraz edo elebidunak izatea ere lortuko dute. Jarrera aktiboa izango dute; beraz, gonbita egingo diete euskal hiztunek eurekin euskaraz hitz egin dezaten. Oso garrantzitsua da *belarriprest*-en funtzioa, euskarazko elkarrizketak sortzen lagundu eta euskara erabiltzeko giro babestua sortuko dutelako.

*Ahobizi* direnek, berriz, euskaraz egingo diete ulertzen duten guztiei. Edonon, edonoiz eta ulertzen duen edonorekin arituko dira euskaraz. Ezagutzen ez dituztenekin lehen hitza euskaraz egingo dute, eta ulertzen baldin badute, hortik aurrerakoak ere. Horrela, orain arte euskaraz izan dituzten elkarrizketek euskarazkoak izaten jarraituko dute, baina orain arte erdaraz izandako elkarrizketa batzuk euskaraz edo elebidunak izatea ere lortuko dute.

Gainera, *ahobizi* izango direnek jarrera aktiboa izango dute. Euren harreman sarean dituzten hizkuntza praktikak aztertu eta euskarara aldatzeko aukera duten horietan eragingo dute. Hamaika egunetan, hizkuntza aldaketarako aukeratu dituzten harreman horietan ez ezik, euren bizitzako esparru guztietan euskaraz arituko dira, ahal den guztietan, ahal duten guztiekin. Bi aldeek euskaraz ulertzen badute, ez dago euskaraz ez egiteko arrazoirik.

**'BELARRIPREST' ETA 'AHOBIZI' MODUAN PARTE HARTZEKO IZENA EMAN DAITEKE DAGOENEKO**



# Etxez etxeko zerbitzuko langileei elkartasuna

Zenbait elkarte feministak adierazpen bat kaleratu dute Arrasateko etxez etxeko zerbitzua eskaintzen duten langileei elkartasuna adierazteko; langileek, bestalde, hiru hilabete daramatzate greban, eta orain, sinadurak batzen ere hasi dira

**Eneko Azurmendi** OÑATI

Uztailaren 31 ezkero, Arrasateko Udalak etxez etxeko zerbitzua eskaintzeko indarrean zuen kontratua agortuta dago, eta momentu honetan kontraturik gabe ari da zerbitzua eskaintzen. Langileek hiru hilabete daramatzate greban, eta Debagoieneko eta Debabarreneko zenbait talde feministak elkartasuna adierazi nahi izan diete, adierazpen bat kaleratuz: Arrasateko EMMko plataformak, Pottogorriak, NALUA Eibarko talde feministak, Soraluzeko Korner Morea, Oñatiko Andraitz talde feministak, Deba Eskualdeko Koordinadora Feministak, Oñatiko Pototak, Antzuolako Andramanuelak, Oñatiko Sare feminista, Aretxabaletako talde feminista eta Bergarako Martxanterak dira adierazpenarekin bat egin duten taldeak.

Adierazpenean diote herriko hainbat eta hainbat gunetan ikusi dituztela "eztarriak hausten, beraien lana balioan jartzeko aldarriaz, berezko dituzten eskumenak ozen oihukatuz".

Era berean, azaldu dute Martxoaren 8ko testuinguruan Arrasateko Udaleko arduradunek "bere" egiten zituzten aldarrikapenak ez dituztela, egun, etxean, gertu, kasu praktikoetan dituzten adibideetan beraien kargu hartu nahi. "2018ko Martxoaren 8a ez zen beste egun soil bat izan, errotiko eraldaketaren hasiera baizik, jendarte eraldaketa behar-beharrezkoaren erakusleihoa, alegia. Eta eremuz eremu gauzatu dadin borrokan jarraituko dugu, baita borrokan daudenak babestuz ere. Beraz, memoria egin dezagun eta babes ditzagun, geure presentziaz, egungo sistema patriarkalak ikusezinak bihurtu dituen baina guztion ongizaterako behar-beharrezkoak diren zaintza lanak eta horietara dedikatzen diren profesionalak. Horien egungo egoeraren eta eskubidezko eskaeren hobekuntzak geure biharko zaintza beharren onura baitakar inplizituki".


Langileek sinadura bilketa abiatu dute. TXOMIN MADINA.

### Sinadura bilketa; manifestazioa

Langileek, berriz, sinadura bilketa abiatu dute, Udalari exijitzeko euren aldarrikapenak jasoko dituen hitzarmen bat lortzeko urratsak egin ditzala. Urriaren 3an manifestazio bat ere egingo dute, 19:30ean, udaletxetik abiatuta.

# Ulma Packaging-ek 100 langile kontratatuko ditu hamar hiletan

Profil askotariko langileak izango dira, beharra ere arlo ezberdinetan dagoelako, Ulma taldearen esanetan

**E.A.** ARRASATE

Hamar hilabete inguruko epean 100 langile inguru kontratatzea aurreikusten du Ulma Packaging-ek, enpresaren etengabeko hazkundea dela eta.

Kontratazioak "aurreikusitako beharren arabera" egingo dituztela azaldu du Ulmak. "Hazkundea arlo guztietan gertatzen ari da; beraz, behar ditugun eta behar izango ditugun langileen profila askotarikoa izango da".

Hala, ingeniariak, proiektu gestoreak, Lanbide Heziketako langileak, teknikariak, muntatzaileak, produktu industrialen salerosketan adituak, galdaragileak, eta abar izango dira kontratatuko dituztenak.

Kontratazio berrien zati garrantzitsu bat ikasleei eta titulazioa eskuratu berri dutenei zuzenduta egongo da. "Izan ere, guztientzako tokia dago hemen. Esperientzia handiko jendea daukagu, baina talentu gazteen beharra ere badugu".

### Planta berria handitzen

Ulma Packaging-ek Oñatiko Goribar auzoan duen planta handitu egingo dute. Egun, eraikinak 5.000 metro karratu ditu; alboan 4.000 metro karratuko eraikin bat gehituko zaio. Beraz, "ia bikoiztu" egingo dute Goribarko planta. "Packaging izaten ari den hazkundearen erakusle da planta berria ere txiki geratu izana".

Dagoeneko hasi dituzte planta handitzeko lanak. Aste honetan hasi dira alboan zegoen eraikina botatzen, eta ondoren ekingo diete eraikina handitzeko lanei. Alberdik adierazi duenez, 2019ko uda aurretik amaitu gura dituzte plantaren handitze lanak, "ekain alderako edo".

## Berdintasunarekin eta kontziliazioarekin konprometituta

Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta, Berdintasuna eta Kontziliazioa topaketak egin dituzte asteon Tabakaleran; 150 enpresa eta erakunde baino gehiagotako 250 ordezkari inguru batu dira. Enpresa horien artean daude Ikerlan, Matz-Erreka, Lazpiur, Emun eta Laboral Kutxa, besteak beste. Legealdi hasieratik, kontziliazioaren esparruan lurraldeko enpresekin mantendu den lankidetza estua balioan jarri du Miren Elgarrestak, Berdintasunerako Organoaren zuzendariak. Hala, Etorkizuna Eraikiz ekimenaren "aterkipean" hainbat esperientzia abiarazi dituzten hogei bat enpresari eskerrak eman dizkie, izan duten "anbizioarengatik", eta euren enpresetan berdintasunaren eta kontziliazioaren alde eginiko apustuarengatik. Bide horretan aurrera jarraitzeko dei egin die.

UDAZKENEKO PROGRAMAZIO BERRIA
EUSKARALDIA
GOIENA TELEBISTA, OÑATIN ETA URRETXUN
IRAILAREN 26AN, EGUAZTENA,
21:00ETAN ETA 23:00ETAN
JULEN IRIONDOK ETA IZARO INSAUSTI KAZETARIEK AURKEZTUTA


goiena
ZU HEMEN ZAUDE

# Nikaraguara elkartasuna, baita Debagoienetik ere

Debagoiena Nikaraguarekin plataforma sortu berri dute bailaran, herrialdeak bizi duen "krisi soziopolitiko sakona" dela eta; giza eskubideak defendatzea eta bakea berrezartzen laguntzea da plataformaren helburua; 40 bat lagun daude taldean

**Eneko Azurmendi** DEBAGOIENA

Aste honetan eman dute sortu berri duten plataformaren berri, Arrasateko Kulturaten egindako prentsaurrekoan.

40 bat lagunek osatzen dute taldea; sortzez nikaraguarrak dira batzuk, eta Nikaraguan boluntario lanetan ibili direnak beste batzuk. "Debagoienetik, Nikaraguan presentzia dugun eta hango herritarrekin harreman historikoa izan dugun hainbat erakunde, pertsona eta kolektibo solidariok bat egiten dugu konpromiso horrekin", azaldu dute.

Apirila ezkero, "krisi soziopolitiko sakona" bizi izaten ari da Nikaragua, Daniel Ortega presidentearen eta haren aurkako manifestarien arteko liskarrak direla eta. "Herritarren gehiengoak krisi horretatik modu baketsuan irten nahi du eta demokrazia, askatasuna eta justizia eskatzen du", adierazi du plataformako kide Veronica Riosek.




**Plataformaren aurkezpen ekitaldian parte hartu zutenak.** ARANTZAZU EZKIBEL GALDOS

Nazio Batuen Giza Eskubideen Bulegoaren txostenaren arabera, dokumentatutako abusuen artean daude: poliziak indarra neurriz kanpo erabiltzea, behartutako desagerpenak, atxiloketa arbitrario eta orokortuak, torturak eta tratu txarrak, eta iritzia askatasunez emateko eta adierazteko eta modu baketsuan biltzeko eskubideen urraketak.

Era berean, txostenean jaso dute "funtzionario asko" euren kargutik kendu dituztela eta Ortegaren Gobernuarekiko kritiko direnek jazarpena, larderia eta erasoak jasaten dituztela. "Goi autoritateek estigmatizatu egiten dituzte manifestariak eta giza eskubideen defentsan ari direnak, eta terroristatzat edo kolpistatzat dituzte", dio Jose Manuel Corquerak, taldeko beste kideetako batek.

Egoera hori ikusita, Debagoieneko plataformak bat egin du Elkartasunezko Nazioarteko Informazio Karabanarekin eta Nikaraguako etorkinek sortutako mugimenduarekin.

**Debagoienean eragitea helburu**

Plataformak eskatu die Debagoieneko herritarrei, gizarte-erakundeei, sindikatuei, erakunde politikoei, ikastetxeei, ikasleei, unibertsitateei, eliza guztiei, hedabideei eta gizakiaren duintasunarekin konpromezitutako pertsona guztiei, "irmo" babes dezatela "herrialde hori bizi izaten ari den egoera tragikotik bakez eta negoziazioaren bidez ateratzearen aldeko jarrera", eta exijitu dezatela "nikaraguar guztien osotasun fisikoarekiko errespetua".

Jakinarazi dute Nikaraguako egoeraren berri emateko hainbat ekintza egingo dituztela datozen hilabeteetan. Horietako bat atzo Arrasaten egin zuten elkarretaratzea izan zen, *Giza eskubideen alde, elkartasuna Nikaraguarekin* lelopean.

Facebook orria ere sortu dute, taldearen izen berarekin.

Debagoieneko
GREMIOAK

AROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA
BERGARA
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
• K-21
Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL
ARRASATE
Meatzerreka 30
Tel.: 943 77 12 26/ 646 29 59 87
e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA
ARRASATE
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA
ESKORIATZA
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL
ARETXABALETA
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK
ARRASATE
Zigarrola kalea 1, 8 pab
Tel.: 943 77 11 30

LOREZAINTZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA
ARETXABALETA
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.



Patricia Barcena, batzarra amaitutakoan, Oñatiko udaletxean. XABIER URZELAI

# "Istorio gogorrak bizi izan dituzten pertsonak etorriko dira"

**PATRICIA BARCENA** CEAR EUSKADIKO ZUZENDARIA

Errefuxiatuei laguntzea helburu duen erakundeko ordezkariak izango dira Oñatiko aterpetxea kudeatuko dutenak; Udalaren eta Jaurlaritzaren babesa izango dute

**Xabier Urzelai** OÑATI

Pertsona migratzaileendako lehen harrera-aterpetxea zabalduko dute Oñatin, eta CEAR erakundeak kudeatuko du zentroa (Errefuxiatuei Laguntzeko Euskadiko Batzordea).

**Errefuxiatuentzako zentroan zein profiletako jendea egongo da? Zein egoeratatik datoz?**

Nazionalitate askotako pertsonak etorriko dira Oñatira, istorio eta bizipen gogorrak bizi izan dituztenak. Euren jaioterrian jazarpena pairatu dutenak, eta ihes egitea lortu dutenak. Eta, gurera iritsitakoan babesa eskatu dute, laguntza. Hasiera batean, zain dauden pertsonak dira, Estatuak errefuxiatuen harrera sisteman onar ditzan zain.

**Hain zuzen, horregatik izango dira egonaldi mugatuak?**

Hori da, bai. Egun, administrazioak 2-3 hilabete behar izaten ditu pertsona horiek errefuxiatuen harrera,sisteman barneratzeko, eta, behin hori lortuta, pertsona horiek beste leku batzuetara bideratzen dituzte, epe ertaineko edo luzeko egonaldiak egin ditzaten.

**Oñatiko aterpetxean zein zerbitzu eskaini ahal izango duzue?**

Oinarrizko behar guztiak aseta izango dituzte hemen, eta, gainera, aterpetxea oso txukun geratu da, oso pozik gaude. Hala, errefuxiatuek Oñatin egingo duten egonaldian erraztasunak emateko gizarte-langileak izango ditugu. Atezaina egongo da, gizarte-integratzaileak, administrariak... Eta, behar izanez gero, laguntza berezia ere eskura izango dute pertsona horiek: psikologoak, juristak...

**Zein izango da pertsona hauen egunerokotasuna?**

Denetik egongo da. Duelu egoeran egoten dira asko; izan ere, asko sufritu dute eta lasai egon gura izaten dute, atsedena behar dute; baliteke batzuek zentrotik irteteko gogorik ere ez izatea. Eta beste batzuek gurago izango dute kalean ibili, paseatu, herritarrekin hartu-emana izan, herriko ekimenetan parte hartu...

**Errefuxiatuei eskaintzen diezuen babes hau beharrezkoa da?**

Bai, beharrezkoa da. Nahiz eta Espainiak hitzarmen asko sinatu dituen giza eskubideen alde, errealitateak erakusten digu azken urteotan, eta, batez ere, krisiaren eraginez, murrizketa handiak egin dituztela.

**Jende asko izan da herritarrekin batera egin duzuen batzarrean.**

**"ESPERIENTZIAK DIOSKU ERREFUXIATUEKIN EZ DUGULA BIZIKIDETZA ARAZORIK IZATEN"**

Harrituta gaude, eta oso eskertuta jendea erakusten dabilen interesagatik. Lehen, atez ate ibili behar izaten genuen babes bila, gure lana zein zen azaltzen, eta orain, ikustekoa da jendea zelan mobilizatu den errefuxiatuen alde, zenbat ongietorri plataforma dauden... Oso pozik gaude.

**Segurtasunaren gainean kezkati daude herritar batzuk.**

Nik herritarrei lasai egoteko esango nieke. Orain arte egoera honetan zeuden pertsonak etxebizitzetan izan ditugu, eta esperientziak diosku eurekin ez dela gatazkarik egoten, lasaitasuna da behar dutena. Aterpetxean, gainera, langile asko izango ditugu eta pertsona bakoitzari behar duen laguntza eskainiko diogu.

**Beste batzuek, berriz, pertsona hauei zelan lagun diezaioketen jakin gura dute.**

Oñatik beti jakin izan du jendea ondo hartzen, duzuen unibertsitateagatik, turismoagatik... Bada, errefuxiatuekin berdin: aukera suertatzen bada, eta bien partetik gogoa badago, elkarrekin berba eginez, hartu-eman normala izanda.



CEAR-eko, Jaurlaritzako eta Udaleko ordezkariak, martitzenean. X.U.

## Herritarrek, jarrera positiboa

Pertsona migratzaileendako Oñatin egongo den lehen harrera-aterpetxearen gaineko batzarrak ikusmina piztu zuen. Osoko bilkuren aretoan 80 lagun inguru batu ziren azalpenak entzuteko, eta saioaren amaieran herritarrek hartu zuten hitza. Hitza hartu zuten lagunek –orokorrean– eta GOIENAk amaieran batu zituen inkestek erakutsi zuten jendea jarrera positiboarekin zegoela. Egon zen kritikarik, informazio gabeziaren gainean edo halako aterpetxe bat Oñatin egotearen egokitasunaren gainean, baina batzarrean batutako herritarrek "poztasuna" eta "harrotasuna" berbak erabili zituzten halako proiektu bat herrian egongo dela jakinda: "Herri moduan elkartasun ariketa bat egiteko aukera ezin hobea da hau"; hori esanez eman zion Mikel Biain alkateak amaiera batzarrari.

## GUTUNAK

### Lan-istripuak gutxitzeko neurri gutxiegi hartzen dira

**JOSU GARITAONANDIA**
'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN ARDURADUNA

Udako oporrak pasata eta eguneroko egินkizunetan murgilduta, hurrengo oporrak noiz etorriko diren grina pizten zaigu. Zuen kontzientzia piztu nahi dut, gogoraraziz lan-istripuetan langile larregi hiltzen direla; tamalez, batzuek ez dute gozatuko beste oporrik.

Adibide bezala, Bilboko Ingeniaritza Unibertsitatean maiatzean gertatu zen istripua komentatuko dizuet. Pertsona bat eskaileretatik erori eta koman egon zen uztailera arte, zendu zen arte. Kontua da orain dela urte batzuk antzerako istripua gertatu zela eskailera berean, eta neurri batzuk hartzekotan gelditu ziren; legea betetzeko egin beharreko hobekuntzak eskaileran. Saiatu naiz unibertsitatearen iritzia jakiten, baina nire galderak departamentu batetik bestera darabiltzate, erantzunik gabe. Badakizue, burokraziaren gauzak.

Hau unibertsitate batean gertatzen bada, gizartearentzako etsenplu eman behar duen erakunde publiko batean, pentsa zer ez den gertatuko lantegi pribatuetan. Hori bai, Osalan-eko arduradunak hau esan du: "Euskal gizarte modernoan ezin da langile bat bera ere hil". Lasai asko geldituko zen, baina estatistikek diote kontrako bidean goazela, iaz baino okerrago. Lehen zazpi hilabeteetan, Gipuzkoan, 8.633 lan-istripu erregistratu dira; hau da, 1.000 lan-istripu baino gehiago hilabetero, eta, zehazki, Debagoienean, hildako batekin.

### Atxorrotxetik, bihotzez, mila esker egun handia egiteagatik!

**JUAN LUIS ZUBIZARRETA ALEGRIA**
ATXORROTX KULTUR ELKARTEAREN IZENEAN
ESKORIATZA

III. Gazteluko Festa gure herrian auzolanak duen indarraren erakustaldia izan da, hainbat belaunalditako herritarrak batuz, laguntzen eta disfrutatzen. Jendetza, errespetua, grina, algara, festa, lana, irribarreak, boluntarioak, pazientzia … hamaika bat ekintza/sentipen/gauza baikor egitasmo bati zentzua ematen: auzolanari. Beste behin, Atxorrotx leku magiko bihurtu genuen eta horrela jakinarazi ziguten festan parte hartzera etorri ziren artista guztiek.

Beraz, gure partetik, gure eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu guzti-guztiei: Iñaki Sagredori eta bere taldeari, parte hartzeagatik; Ibon Aranburuzabalari, bere prestutasun eta trebezia indartsuagatik; Oihanari eta Haizeari, gure zeruko zazpi izarrei distira emateagatik; Joseba Zubiari eta herriko komertzioei, euren eskuzabaltasunagatik eta baita egunero herria egiteagatik; Arkulari *erromatarrei;* Gatzagako lagunei; Aretxabaletako eta Urbaltzeko lagunei, beraien partaidetzagatik; artistei eta teknikariei ere gure eskerrik beroenak... Eta, noski, Eskoriatzatik esku hartu duen norbanako bakoitzari: txoferrei, gora eta behera joateko beti prest egoteagatik; txosnakoei, euren lan eta pazientziagatik; sukaldariei, euren jakintasunagatik; elkarteko bazkide guztiei; udaleko langileei; nola ez, festan lagundu duzuen denei.

Lan handia izan da, nork bere harribitxia ekarri du, denen artean altxorra osatuz; altxorraren parte izaten.

Herriko talde desberdinek ekimenari eskaini diozuen adeitasuna eta laguntza, guretzat, indar berria da elkarrekin herria egiten jarraitzeko: Eskozap, benetan beste mundu bat posible izango delako; Eingeinkeren gaztetasuna; Ixoturen freskotasuna; dantzari beterano sasoitsu eta alaitsuak; gure txistularien jakintza eta dotorezia...

Ezin ahaztu egindako akatsak, horietaz baliatuko baikara ikasten jarraitzeko eta gauzak hobeto egiteko; eskerrik asko zuen ulermen eta pazientziagatik.

*Sortuz 'ta sortuz gure aukera, lana eginaz goaz aurrera.*

### Autobusen ordutegia

**JESUS MARKAIDE**
ARRASATE

Irailaren 17a, astelehena. Gasteizen 17:30erako egoteko asmoarekin jo dut Garibai geltokian dagoen iragarkira. Hona hemen jartzen dituen orduak: 15:50, 16:25 eta 16:50.

Konfirmatzeko, Interneten *Autobusak Arrasatetik Gasteizera* orrian sartu naiz eta han: 15:05, 16:05 eta 17:05.

Denbora daukadanez, 15:20rako geltokian nago. Han, bidaiari batekin komentatu dut nire harridura. Hura, bere mugikorrarekin, PESAko orrian sartu da. Ordu hauek jartzen ditu han: 15:15, 16:00, 16:15 eta 17:15. Gainera, dio 15:15eko autobusik oraindik ez dela pasatu.

16:07 aldera agertu da autobusa. Txoferrak dio 16:05ekoa dela. Geltokian agertzen den informazioari buruz dio hori Udalak jartzen duela, ez diola axola. PESAko kontua arraroa iruditu zaio. Arduradunen batek lan ederra dauka kristo hau konpontzen.

**GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

## HANDIK ETA HEMENDIK

### Jazarpena

**ONINTZA ENBEITA**
HTTPS://LABUR.EUS/8QYUO
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Meza Nagusia Hondarribiko elizan. Apaizak hitza hartu du, halakoetan ohi duenez. Izan ere, katolikoen bilkuretan apaiza da hitz egiten duena. Alardeaz mintzatu da: gatazka konpontzeko deia egin du. Pentsatzekoa da alarde baztertzailearen aldeko jende asko egongo zela mezetan: tradizioak esaten du igande eta jai egunetan joan egin behar dela elizara. Ez zaie gustatu abadeak esan duena. Haserretu egin dira. Sare sozialetan egurra eman diote Jainkoaren artzainari, telefono bidezko mezuetan edozer esan dute hari buruz. Meza Nagusia ez omen da horretaz hitz egiteko lekua. Hauek ez daukate nahikoa herriko jaietan nork desfila dezakeen eta nork ez erabakitzearekin: elizan zer esan daitekeen ere, eurek erabaki nahi dute. [...] Meza Nagusi horretatik astebetera, apaizak herriz alda dezatela eskatu du: batzuek sinetsarazi nahi digutenez, kasualitatez, presiorik gabe.

Eta zenbaitek oraindik ere ez dute sinistu nahi tradizioaren izenean autoko gurpilak zulatu izan direnik. Sare sozialen eta zuzeneko emankizunen garaietan argi ikusten da erasoak nondik nora doazen, eta, hala ere, erasotzaileek biktimatzat erakutsi nahi dute haien burua. Eta instituzioek isilik jarraitzen dute jazarpenaren aurrean.

Post gehiago 8. orrialdean.

## HAUXE BAI JENEROA!

**GARBINE UBEDA**





ZABALIK

**RAFA MUNGIA**

# Zenbat(ean) ordaintzen da etorkizuna?

Aitarentzat tabako bila bidaltzen zuten horietako naiz, eskupeko baten truke eta galderak egiteko ausardiarik gabe. Eskerrak *beltza* eskatzea egokitzen zitzaidala; beste askok, gainera, ahoa zabaldu eta *Winston amerikarra* erosteko enkargua zeukaten; lan bikoitza.

Umetako pasarte asko ekarri dizkit gogora *Fariña* telesailak; gehienetan, liburua irakurriz osatu ohi ditut filmak, baina, kasu honetan, irudiak gailendu zaizkie liburu elektronikoko hizki hotzei.

Kontu bitxia da unean uneko gizartearen bilakaera nola aztertzen dugun urteen poderioz, eskuan ditugun erreminta berriekin eta ekarri dituen ondorioak aztertuz. Orduan normala iruditzen zitzaiguna sekulako astakeriatzat hartuko genuke orain; tabernetan kontrabandoko tabakoa saltzea, adin txikikoak erabiltzea zamaketari lanetarako, osasunerako kaltegarria den produktu baten publizitatea nonahi zabaltzea… eta beste hainbat adibide.

**SUSMOA DAUKAT APUSTU ETXEEKIN GERTA DAITEKEELA TABAKOAREKIN GERTATZEN ZENA**

Susmoa daukat, eta aitortuko dut txarra dela, egungo apustu etxeekin gerta daitekeela orduan tabakoarekin gertatu zena. Ez naiz trebeena, ezta zaleena ere, Internet bidezko apustuetan, baina nekez ezabatu dezaket hitz hori nire egunerokotik; etxe azpian, beti hutsik eta pantailak dantzan dituen lokala zabaldu berri dute. Ordenagailua piztu eta lanak ditut nahi dudan webgunera iristeko Toronto Raptors-en alde 10 euro jokatu gabe, egunkariak irakurri eta maite ditudan kirol talde askoren betiko izenak desagertzear daudela konturatu naiz eta okerrena da hasi besterik ez dela egin herrialde askotan ezbaian jartzen hasi diren eredua.

Italian, esaterako, lehen mailako futbol taldeek ezin izango dute kamisetetan apustu etxeen publizitatea erakutsi 2019tik aurrera eta, aldiz, Espainiako Ligan Reala da, ikusteko dago noiz arte, elastikoa garbi mantentzen duen talde bakarra.

Gu, bien bitartean, beste alde batera begira.

MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE**




HANDIK ETA HEMENDIK

## Ipuruako ahalak

**LUIS ARANBERRI MENDIZABAL**
HTTPS://LABUR.EUS/8OSBU
'EIBAR.ORG-N ARGITARATUA

443 jokalarik –200 eskola-umez gainera– eta 80 teknikarik osatzen dute Eibar futbol elkartearen aurtengo harrobia. Klubak bere programa aurkeztu nahi izan du eta, bide batez, bere ahalak hauspotu, harrotu eta hanpatu.

Indar-astintze hau gertatu da, hain zuzen, Eibarrek muzin egin ostean Gipuzkoako oinarrizko futbolaren garapena arautzen duen hitzarmenari.

Lau denboraldi daramatza honezkero Eibar futbol taldeak lehen mailan, eta Gipuzkoako futbol-egitura ofiziala ez da, horratik, izpirik aldatu, nahiz Eibarrek Gipuzkoako Aldundiari zein Real Sociedad-i egoera aztertu dezaten hitzez eta idatziz eskatu.

Ez dirudi, inondik ere, Eibarrek Realarekin parekatzerik eskatzen duenik, egoera berriak aldaketarik erakarri ote dezakeen elkarrekin hausnartzea baizik.

Alegia, Eibarrek ez du, ez, Realak duen historiarik, baina Realaren magalpean otsein samar ari diren futbol-taldeen artean zenbat dira lehen mailako, 45 milioi euroren aurrekontuaz eta 600 neska-mutikoren harrobiaz?

Eibarrek hiru aukera zeuzkan: makurtu eta isilik jarraitu; haserretu eta kristorenak azaldu; edo, zuhur asko, salatu, Gipuzkoako Diputazioak eta Realak hiru urte daramatzatela batere jaramonik egin gabe. Jaramonik egin nahi izan gabe.

Bistan da hirugarren aukera hau dela hautatu duena.

Ez gehiago eta ez gutxiago.

Post gehiago 7. orrialdean.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA
www.goiena.eus

**Argitaratzailea**
Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Aitor Izagirre.
**Zuzendari nagusia**
Iban Arantzabal.

**Eduki zuzendaria**
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**
Eneko Azkarate, Goiatz Arana, Monika Belastegi, Mirari Altube.
**Zuzendari komertziala**
Mireia Larrañaga.
**Administrazio zuzendaria**
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**
Iñaki Iturbe.
**Hizkuntza arduraduna**
Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa arduraduna** Igone Osinaga.

**Sailetako arduradunak**
Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

**Maketazioa**
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.
**Publizitatea**
Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza.
**Administrazioa**
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*harpidetza@goiena.eus*

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
*publi@goiena.eus*

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
*berriak@goiena.eus*

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 19.000 ale
**Difusioa:** 18.723 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia

Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

# "Debarroko erlezainak batu eta eztiola sortu nahi dugu"

## ASIER MARTIN ERLEZAINA

**Eneko Azkarate** ARRASATE
Duela bost urte hasi zen Asier Martin bergararra erleekin, emazteak zuen baratzea zela-eta erleen garrantziaz jabetuta. Fraisoro eskolan erleen eta eztiaren gaineko ikastaroan izena eman, eta gaur arte. Debarroko erlezainen elkarte sortu berrian buru-belarri ari da.

**Eskualdean erlezainen elkartea sortu berri duzue. Badu izenik?**
Ofizialki, uztailean sortu genuen: Erleen Adiskideak, Erleen Hedapenaren Aldeko Elkartea. Inguruko erlezainak gugana gerturatu eta, aldi berean, gure zaletasuna herriari erakusten saiatuko gara.

**Zergatik elkartea?**
Dauzkagun datuen arabera, 70 erlezain inguru daude Deba ibar osoan. Bi, lau, hamar edo 100 erlauntzarekin. Berdin da, guztiak erlezainak. Helburua da inguruko erlezainendako eztiola bat sortzea, irabazi asmorik gabekoa. Hori lortzeko bidean, hainbat jarduera egingo ditugu: azoka, ikastaro, hitzaldi... Denok harreman zuzenagoa edukitzea nahiko genuke.


Asier Martin oraingo asteko irudi batean. GOIENA

**Sorrera batzarrerako dei egin duzue urriaren 27rako. Non izango da?**
Elgetan. Landa Garapen Agentziak eta Debagoieneko Turismo Sailak urtean zehar bertako produktuak ezagutzera ematen dituzte azoka eta ekintza ezberdinen bitartez. Testuinguru horren barruan, urriaren 27an, Elgetan, Erle Eguna ospatuko dugu. Goizez azoka egingo da. Bertako ekoizleen eztiak dastatzeko aukera egongo da... Arratsalderako, esperientzia duen erlezain bat ekartzeko asmoa daukagu erle produktuei buruz jarduteko. Egun aproposa da elkartera gerturatu nahi duen jende orok Elgetako azokara bisita eginez informazioa eskatzeko.

**Zer behar da erla onak edukitzeko?**
Ez da erraza horri erantzutea. Faktore ugari daude erleak ondo egoteko, baina garrantzitsuena eguraldia da. Sasoian sasoiko eguraldia egiten badu, horrekin konformatzen gara. Hortik aurrera, badaude erleak gaizki egoteko edo erleak hiltzeko beste arrazoi batzuk ere: bere akaro barroa, pestizidak, liztor asiarra...

**Eta ezti ona egiteko?**
Erleak egin duen lana ahalik eta gutxien ukitzea da onena. Eztia behar den momentuan atera behar da, produktuaren hezetasuna ahalik eta urriena izan dadin. Era berean, eztia atera behar dugunean, ke hauspoa ahalik eta gutxien erabiltzea garrantzitsua da, eztiak ke usainik ez dezan hartu.

ITURRI ONETIK

### Nafarroako edizioa izango du 'Ttap' aldizkariak

Abian da *Ttap* aldizkari digital multimedia. Eskuko telefonoetan eta tabletetan irakurri, entzun eta ikus daiteke dagoeneko –*app*-a deskargatuta Google Play-n zein Appel Store-n–. Oraingoz, edizio bi ditu, biak ere ostiralero argitaratuko direnak: Gipuzkoakoa eta Bizkaikoa. Nafarroakoa izango da hurrengoa. Eta, arrakasta handiz izan bada ere, abiatzea besterik egin ez duen proiektua sendotzen badoa, beste lurralde batzuetan abiatzea izango litzateke asmoa.

ALBISTE IZAN ZEN

2009-09-23

### 50 urte Oñatiko Artzain Txakur Txapelketak

Oñatiko Nazioarteko Artzain Txakur Txapelketak 50 urte bete zituen 2009an, eta, besteak beste, txapelketako irabazleak eta urteetan parte hartu zuten debagoiendarrak omendu zituzten irailaren 27an. Goienak egun batzuk lehenago batu zituen eskualdeko artzainak, Artzainaren Omenezko Monumentuan: Urtzelai, Arregi, Bengoa, Iturbe eta Plazaola. 50 edizioetako kartelekin erakusketa antolatu zuten Oñatin.


GOIENA

HAU BE BADOGU!

### '#Feministonherria' traola, erabilienetakoa



Urriaren 22tik 28ra Bilbon egingo diren Emakumeen Mundu Martxaren XI. Nazioarteko Topaketak aurkeztu dituzte asteon:

*@Plazafeminista*: "Alternatiba feministak *#Feministonherria* eraikitzeko. Alternatiba feministen azoka, mahaingurua, kontzertuak, herri bazkaria...".

*@garazialdama*: "Urriaren 27an neska gazteok Bilbon izango gara! Baditugulako alternatibak! Badator *#FeministonHerria*!".

### 'Ttap' aldizkari digitala Bilbon aurkeztu dute

Eguaztenean aurkeztu zituzten *Ttap* aldizkari digitaleko lehen zenbakiak. Uztailean 0 zenbakia Donostian aurkeztu ostean, Bizkaian egin dute ekitaldia:

*@ttapaldizkaria*: "Poz-pozik bukatu dugu gaur lehen zenbakiaren aurkezpena. Zailena orain dator: astero-astero mailari eutsi eta zuen intereseko gai eta protagonistak poltsikoratzea. Mila esker gaurko ekitaldia posible egin duzuen guztioi. Jarraitu #*ttap* egiten!".

### Aznarrek hankaz gora jarri ditu sare sozialak

Espainiako presidente ohiak PP alderdiaren *B* kutxaren gaineko galderei erantzun behar izan zien Diputatuen Kongresuko komisio baten aurrean, eta #*Aznar* traola *trending topic* izan zen mundu mailan. EH Bilduko Oskar Matuterekin, Unidos Podemos-eko Pablo Iglesiasekin eta, batez ere, ERC alderdiko Gabriel Rufianekin izan zituen tira-birek zeresana eman dute, eta erabiltzaile askok euren haserrea azaldu dute.

# Udal zergak eta tasak, inongo igoerarik gabe

Hori proposatuko du Udal Gobernuak 2019ko ordenantza fiskalei begira. Udalak bizi duen finantza egoera "aproposak" fiskalitatea mantentzea ahalbidetzen diela azaldu dute, eta, horrez gain, hobari batzuk handitzea proposatuko dute

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Arrasateko Udal Gobernuak zergak eta tasak bere horretan mantentzea proposatuko du. Udal tasetan eta zergetan ez dute igoerarik aplikatuko, eta, horrez gain, hobari batzuk igotzea jasotzen dute ordenantza fiskaletarako egin duten proposamenean.

Udalaren finantza egoera aproposa dela nabarmendu dute. Aurtengo aurrekontuetan Udalak zeukan azken mailegua guztiz ordainduta geldituko da, *zero zor* egoera lortuz, eta Udal Gobernuko ordezkariek azaldu dute horren eraginez posible izan dela zergak eta tasak ez igotzea. "Udal zorra zeroan geratuko da, aurten ordainduko dugulako Udalak duen mailegu bakarraren azken kuota. Historikoki izan duen egoera ekonomiko hoberenean uzten dugu Udala, ez baita inoiz *zero zor* egoeran egon. Egoera ekonomiko on horren ondorioz, erabaki dugu ez dela beharrezkoa herritarrei zergak eta tasak igotzea" azaldu du Maria Ubarretxena alkateak.



Garay, Ubarretxena eta Garcia, astelehenko prentsa agerraldian. XABI GOROSTIDI

Ordenantza berria 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatzeko, urriko osoko bilkuran botatuko dute ordenantza berriaren onarpena. Oposizioko alderdiek joan den asteko asteazkena ezkero dute mahai gainean Udal Gobernuaren ordenantza proposamena eta, urriaren 2ra arte, aukera izango dute euren ekarpenak egiteko.

## Hobari proposamenak

2019ko ekitaldi fiskalerako hauek dira Arrasateko Udal Gobernuak proposatzen dituen hobari berriak.

**Komertzioentzako eta negozioentzako neurriak**

- Alde zaharreko komertzioek eraikuntza obren eta instalazioen gaineko zerga ordaindu behar dute birgaitze lanak hasteko. Gaur egun, %50eko hobaria dute, eta %75ekoa proposatzen dute.
- Zabor tasarekin lotuta, herrian dauden aseguru etxeek gutxiago ordaintzea nahi dute, aholkularitza enpresen pare.
- Ohiko etxebizitzan negozio bat jarri nahi dutenek jarduera hasteko lizentzia ordaindu behar dute. Iaz, bi hobari jarri zituzten lizentzia horientzako –%30ekoa eta %95ekoa–, eta biak %95eko bihurtzea proposatzen dute.

**Kiroldegirako neurria**

- Erabiltzaileek hala eskatuta, familia abonua 18 urtetik 22 urtera handitzea proposatzen dute.

**Baserrientzako neurriak**

- Udal baserrien katalogoan dauden baserrietan –lurzoru ez urbanizatuan daudenetan–, adibidez, konponketa lanak egiteko %50eko hobaria jarri nahi dute obra hasteko zergan, eta, teilatua berriztuz gero, hobaria %95ekoa izango litzateke.

**Hiri barruko eraikinentzako neurriak**

- Eraikinen eraginkortasun energetikoa, irisgarritasuna eta bizigarritasun baldintzak hobetzeko, %95eko hobaria planteatzen dute obra hasteko zergan, betiere, eraikinaren alde guztiak berrituz gero –irisgarritasuna hobetzen ez bada, %75ekoa–.
- Alde guztiak berritzen ez diren kasuetan –fatxada bakarrik berriztuz gero, adibidez–, hobaria %50ekoa izango litzateke.
- Eraikinaren eraginkortasun energetikoa hobetzen ez duten lanek –fatxada margotzea, adibidez– %25eko hobaria izango dute.

Oharra: hauek Udal Gobernuaren proposamenak dira, oraindik onartu gabe daude. Urriaren 2ko osoko bilkuran botatuko dituzte eta ordura arte oposizioko alderdiek aukera izango dute euren ekarpenak egiteko.

## Alde zaharreko PER plan berezia aldatu nahi du Udal Gobernuak

2019an diru partida bat jarriko dute horretarako, eta prozesu parte hartzailea egingo dute herritarrekin

**X.G.** ARRASATE

Herritarren eta merkatarien eskariak aintzat hartuta, Arrasateko herrigune historikoa eta errebalak erabat birgaitzeko Plan Berezia –PER izenez ezagunagoa dena– aldatzen hasiko dira datorren urtean.

Bi urte iraungo du prozesuak, eta herritarrekin osatutako aholku-kontseilua eta parte hartze prozesua izango ditu, Mugikortasun Planak bezala.

"Urteetan entzun dugun zerbait bat da alde zaharreko plan berezi hori oso murriztailea dela. Batez ere, kontuan izanda Arrasateko alde zaharra monumentu historiko bezala kontsideratuta dagoela. Hori ikusita, datorren urteko aurrekontuetan diru partida bat sartuko dugu, plan berezi horretan berrikuskatze edo aldaketa bat egiteko", azaldu du Maria Ubarretxenak.

Ez da plan berri bat izango, aurrekoari egingo zaion berrikuskatze edo aldaketa bat baizik. Herritarrengan, ostalaritzan eta merkataritzan eragin nabaria du plan honek, eta euren iritzia kontuan izateko aholku-kontseilu bat osatuko dute, mugikortasun plana definitzeko jarraitutako prozesuan bezala. "Prozesu parte hartzaile baten alde egin dugu, jakin badakigulako gai honetan jende askok daukala zerbait esateko".

Herritarren galbahea pasa ondoren, plana ezin izango da bere horretan onartu. Behinbehineko izaerako proposamen bat izango da; izan ere, alde zaharra momentu historikoa denez, plana ontzat emateko azken hitza Eusko Jaurlaritzak du. "Indarrean dagoen planak hogei urte daramatza aldatu gabe. Baina ikusten dugu ezin dezakegula horrela jarraitu. Benetan nahi badugu herriko merkataritza biziberritzea, eta plan hau horretarako traba bat bada, ezin dezakegu gehiago itxaron".



NIRE USTEZ

**OSCAR GARCIA**

## Denak ez du balio

Politikan, gudan eta amodioan bezala, denak balio duen aitzakia dago, baina ez da horrela.

Gezurra, pozoia eta maltzurkeria ez lirateke existitu behar; ez politikan, ezta bizitza arruntean ere. Baina maltzurkeriak eta gezurrak eguneroko ogia dira, tamalez, nire ogibidean. Horren adibide argi bat izan zen azken osoko bilkuran gertatutakoa, fibrozementuarekin lotutako mozio bat medio.

Hala ere, herritarrak lasai egon daitezke, Arrasaten ez baitago inolako arriskurik bertako urarekin; bai, ordea, alderdi batzuek erabiltzen dituzten estrategiekin, eta hauek isurtzen duten pozoiarekin.

Esaera zahar batek honela dio: *Bota ezazu zaborra, nahiz eta gezurra izan, eta zerbait zikina geldituko da, nahiz eta garbitu...*

Ba, hori ez da leiala, ez da egokia, ez da bidezkoa. Orain eta hemen, paktu bat egiten dut irakurle guztiekin: zin egiten dut pozoia, gezurra eta maltzurkeria ez ditudala inoiz erabiliko, beste batzuek ez bezala. Azken finean, denak ez duelako balio...

# Zortzi diseinu Kurtzetxiki jolas parkea berritzeko

Bedoñabe ikastetxe alboan dagoen parkea eraberritzeko zortzi enpresaren proposamenak jaso ditu Udalak. Baina horien aukeraketa herritarren esku uztea erabaki dute, eta irailaren 30era arte egongo da botoa emateko epea zabalik



Aukera dagoen diseinuetako bat, *Dragoiaren harriak* izenekoa. ARRASATEKO UDALA

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Herriko jolas parkeak badabiltza itxura berritua hartzen. Horietan azkena Nao Santiago kalekoa izan zen, eta, gutxi barru, San Andres auzoko bat berrituko dute: Bedoñabe ikastetxearen alboan dagoen Kurtzetxiki parkea, hain zuzen.

**Ideia lehiaketa**

Zeregin horretarako, aurrez, enpresa adituei zuzenduriko ideia lehiaketa antolatu du Udal Gobernuak. Bi izan dira Udalak azpimarratu dituen irizpideak: dibertsitate funtzionala duten haurrentzat jolas egokituak izatea eta, Kurtzetxiki azpian dauden aparkaleku pribatuen egitura ez kaltetzeko, lurrean zulorik ez egitea.

Erabiltzaileek parke estalia izateko eskaerak egin dituzte, baina lurrean zulorik egiteko muga teknikoak hura estaltzea galarazi du. Aipatutako baldintzak beteaz zortzi enpresak aurkeztu dituzte parkea berritzeko diseinuak.

**Prozesu parte hartzailea**

Parkearen diseinuaren aukeraketa herritarren esku uztearen alde egin du Udal Gobernuak. Aukeraketa egiteko bi bide daude: lehena, Bedoñabe Eskolara joatea, eta bertan diseinuak ikustea eta botatzea. Bigarrena, udal webgunean diseinuak ikustea eta online botatzea. Astelehen honetan abiarazi dute prozesua, eta martxan egongo da hilaren 30era arte.

Askotariko diseinuak daude aukeran: barku formako ziburuak dituena, dragoi tankera oinarrian duena... Urriko lehen astean jakinaraziko dute irabazlea, eta enpresa horri 500 euroko diru saria emango dio Udalak. Obren kontratazioa urria amaitu baino lehen egitea aurreikusten dute, eta, guztira, 68.000 euro bideratuko ditu parkearen eraberritze lanetara.



EREINDAJAN

## Ereindajan-en egoitza berria

Euskararen plazako egoitza zaharra itxi, gauza guztiak batu eta Araba etorbideko hirugarren atarira lekualdatu dira Arrasateko Ereindajan-eko lagunak. Astelehenean egin zuten lokal berriaren inaugurazio ekitaldia, eta bertan izan ziren Txorbela Otxoteko kideak eta herriko txistulariak, besteak beste.






Itxaro Artola, *Piter* Encinas eta Maialen Zabaleta, aurrean herritarren sinadurak dituztela. XABI GOROSTIDI

# EH Bildu, jasotako 1.769 firmentzat erantzun eske

Hileta zibilak egiteko leku estali bat bilatzeko gaiarekin lotuta "ezer ez egitea" leporatzen dio Udal Gobernuari. Gai horri buruz hamar herritan darabilten araudia eta lau kokaleku posible eraman ditu OZMA batzordera, baina ekimenak blokeatuta jarraitzen duela dio

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

2017ko urrian, hileta zibilak egiteko leku estali baten beharra kuantifikatzeko ekimena jarri zuen martxan EH Bilduk. Euren ustez, gero eta herritar gehiagok egiten dute era horretako agurren alde, eta leku estali baten beharra sumatzen zuten, bereziki, bi kasu hauetan: eguraldi txarra egiten duenerako eta intimitatean jende gutxirekin egin nahi dutenendako. Aurrez, aurrekontuetako emendakin bidez proposatu zuten gaia, baina ezezko erantzuna jaso zuten.

Sinadura bilketa hilabetez egon zen martxan, eta, amaitzerakoan, 1.769 firma zituzten. Horiek BAZen aurkeztu ostean, Udal Gobernuak adierazi zuen gaia dagokion batzordean landuko zutela –OZMA–.

### Martitzenean, prentsaurrekoa

EH Bilduko ordezkariek prentsa agerraldia egin zuten atzo; gaiak "blokeatuta" jarraitzen duela esan zuten. "Apirila izan zen gaia batzordean jorratu genuen azken aldia. Urtebete honetan tiraka aritu gara Udal Gobernuak gaia bere egin dezan. Oscar Garciak, OZMAko batzordeburuak, hainbat aldiz esan digu gaia landuko zuela, baina, zoritxarrez, baiezta dezakegu helburu bakarra zuela: denbora irabaztea. Ez da ezer zehatza eztabaidatu ahal izan EH Bilduk behin eta berriz eskatu artean".

Gaiarekin jarrera "irekia" izan dutela esan zuten. "Hasieratik esan genuen ez genuela eztabaida kokaleku jakin batean zentratu nahi. Gure aldetik, hamar herritako araudiak eraman ditugu batzordera. Baita lau kokaleku posible ere: San Frantzisko eliza, Santa Teresa eliza, Ereindajanen lokal ohia –Euskararen plazakoa– eta Gelmako eraikina. Batzuei dagokienez ez dugu erantzunik jaso eta beste batzuei dagokienez, ezezko borobilak".

**"HERRITARREK BORONDATEA ADIERAZI ZUTEN, ETA ERANTZUN BAT BEHAR DUTE"**

"Egia da Aldaiko agertokiaren porlanezko eserlekuaren gainean egurrezko oholak jarri dituztena, baina, gure iritziz, hori ez da nahikoa. Leku duin bat aldarrikatzen dugu, eta 1.769 sinadurek ere bai. Herritarrek borondatea adierazi zuten euren izen-abizenekin, eta erantzun bat behar dute; Gobernuari gustatu edo ez. Zoritxarrez, negu berri bat dugu hor bueltan. Soluzioak behar ditugu, ez denbora irabazteko trikimailuak".

### Herriko apaiza, alde

Sinadura bilketaren berri eman eta gutxira, Horazio Argaratek oniritzia eman zion publikoki agurrak egiteko leku estali bat bilatzeari. Baina San Frantzisko eta Santa Teresa elizen erabilera baimentzeko azken hitza Donostiako gotzainarena da.

## GORA ETA BEHERA



GOIENA

### Erabiltzen ez diren edukiontziak, traban

Herritar baten iritziz, Garibai kaleko bi edukiontzi horiek –horia eta urdina– ez dira "aspaldi" erabiltzen, eta horien ordezkoak motorren aparkalekuan daude, "traba" egiten. "Noiz arte?".

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?** *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

EUSKARALDIA

### Euskaraldian parte hartzeko izen ematea, atzo ezkero zabalik

Jada zabalik dago azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean euskara lau haizetara zabalduko duen ekimenerako izen ematea. Arrasatearrek AEDn, BAZen, kaleko postuetan eta *www.euskaraldia.eus* webgunean egin ahalko dute izen ematea.

Atzo, irekiera hori irudikatzeko, talde argazkia atera zuten, atzo, *belarriprest* eta *ahobizi* izango direnek, Portaloian.

Gaurko, aldiz, afari merienda antolatu dute. Kondekuako belardian izango da, 19:30ean. "Ariketa sozial bat izango da, eta herritarrak euren aletxoa jartzera animatu nahi ditugu".

### Animatu eta parte hartu bigarren auto klasikoen topaketan

**Goiena komunitatea**

Red Dragons / ARRASATE

Jada ez da ezer geratzen 25 urte baino gehiagoko "bitxi" txikiak biltzera bueltatzeko. Ilusioz gonbidatzen zaituztegu Laubide plazan antolatu dugun II. Auto Klasikoen Topaketa Solidarioan parte hartzera, bihar, zapatua.

09:00etan izen emateak hasiko ditugu eta 11:00etan, aldiz, hasiera emango diogu ibilbideari. 11:30ean, Arrateko UCAS taldearen erakustaldiaren ordez, RCP teknika tailerraren erakusketa egingo dute DYAko lagunek. Gero, bazkaria eta istripu simulazioa egin eta opariak banatuko ditugu. Gogoratu: ez ahaztu janari ez iraunkorrak ekartzeaz.

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
Saioa Belategi - Psikologoa, Hezkuntza Bereziko masterra
Kontxi Lazkano - Pedagogoa
Ion Astigarraga - Psikologoa

Diagnostikoa - Orientazioa
Psikoterapia: umeak, gazteak eta helduak
Arreta psikologikoa genero indarkerian

Laguntza eskolarrak
Estimulazio goiztiarra
Logopedia
Ikasketa teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13

# Autodefentsan trebatzen jarraitzeko gogoarekin

Ikasturte berrian ere autodefentsa tailerrekin jarraituko dute Arrasate Borroka Arte Eskolako kideek. Ikastaro hauek nahi dituzten emakumeen eskaria "gorantz doa etengabe", eta hilean behin doako saioak antolatuko dituzte. Lehena, hilaren 29an

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Emakumeen aurkako erasoak gorantz egiten ari zirela ikusita, arte martzialetan adituak diren arrasatear talde batek zerbait egiteko garaia zela erabaki zuen. "2017 bukaeran hasi genuen gaiari buruzko hausnarketa. Estatuko Aldizkari Ofizialeko datuetan, argi ikusi genuen emakumeen aurkako biolentzia kasuak gorantz zihoazela. Baina, datu orokorrez gain, Arrasateko eta Eskoriatzako emakumeek jasandako kasu batzuen berri ere izan genuen. Beraz, gure buruari esan genion: 'Eraso horiei aurre egiteko teknikak ditugu esku artean, goazen hauek emakumeei erakustera", azaldu du Arrasate Borroka Arte Eskolako kide Jose Matasek.

"Gure asmoa zerbitzu hau doan ematea zen, eta Udalarekin harremanetan jarri ginen horretarako. Baina hauen erantzunaren zain geundela, jendea deika eta deika ari zen, eta, eurei itxaron gabe, lehen saio bat antolatu genuen Saioa gimnasioan. Horren ondoren, Arrasateko Udalaren babes osoa jaso genuen, eta hurrengo bi saioak Musakolako kiroldegian egin genituen, adibidez".


**Bi lagun martxoan egindako saio batean.** IMANOL SORIANO

**Hurrengoa, hilaren 29an**

Saioa gimnasioan izango da, 11:00etan. 14 urtetik gorako emakumeei zuzenduta egongo da, eta bertan parte hartzeko 616 03 80 42 edo 600 37 18 96 telefonoetara deitu beharko da.



## Arrasate Borroka Arte Eskola

Aikido Arrasate, Judo Arrasate eta Kenpo Arrasate taldeak batu egin ziren 2018ko otsailean. "Herrian borroka arteak indartzea da helburu nagusia, eta oihartzun handiagoa izatea", azaldu zuen Juan Matasek bateratzearen berri emateko prentsa agerraldian.

Hiru hamarkada baino gehiago zeramatzaten judoa, aikidoa eta kenpoa, besteak beste, herritarrei gerturatzen, eta horretan jarraitu gura zuten, baina indar handiagoz.

Arte martzialak erakusteaz gain, beste zerbitzu hauek ere eskaintzen dituzte: gaztetxoekin terapia naturalak egitea, haur psikologia, psikomotrizitatea eta hiperaktibitatea lantzea, zailtasun fisikoak dituzten herritarrekin dinamikak, droga arazoak dituztenekin, gaixotasun arraroak dituztenekin, eta baita autodefentsa pertsonala ere.

## OHARRAK

### 51koen kintada

Urriaren 20an Lekeitiora joango dira. Horretarako, urriaren 15a baino lehen, 70 euroko diru-sarrera egin beharko da ES32 3035 0001 5600 1116 7763 kontuan.

### 53koen kintada

Irailaren 29an Leintz Gatzagara joango dira. 55 euroko diru sarrerak 3035 0202 74 2021044186 kontuan egin beharko dira.

### 58koen kintada

Azaroaren 10ean Arrasaten elkartuko dira bazkaltzeko. 65 euroko diru sarrerak ES91 3035 0001550011167235 kontuan egin beharko dira, urriaren 15a baino lehen.

## OHARRAK

### Pentsiodunen elkarretaratzea

Astelehenean Herriko Plazan batuko dira berriz, 12:00etan.

### 'Bakean dagoena bakean utzi'

Emakume Txokoaren eskutik, Mirari Martiarenak eta Idoia Torrealdaik binakako monologoa eskainiko dute hilaren 28an, 19:00etan, Kulturateko areto nagusian.

### MGEP, Siemens-en lehiaketan laugarren

Siemensek urtero egiten duen prototipo automatizatuen lehiaketan laugarren postua eskuratu dute MGEP Automatizazio eta Robotika Industrialeko ikasle hauek: Endika Marquesek eta Iban Villarrek.

### 'Debagoiena Nikaraguarekin' plataforma

Nikaraguak bizi duen "krisi soziopolitiko sakona" dela-eta *Debagoiena Nikaraguarekin* plataforma sortu berri dute bailaran; Giza eskubideak defendatzeko, eta bakea berrezartzeko. Atzo, elkarretaratzea egin zuten Seber Altuben.

### Maritxutan, Abaroako bazkideentzat luntxa

18:30ean egingo dute, eta aurrez gonbidapena jaso beharko da.



# "Ispilutik ikusi gura ditugu atzetik datozenak"

**JORGE DAVILA** MONDRAKO ENTRENATZAILEA

**FUTBOLA** Aurrealdekoen borrokan ibili zen Mondra iaz, "baina gantxoarekin eraman gintuzten"; aurten, zuri-moreek koska bat gorago egon gura dute sailkapenean

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Entrenatzaile arrasatearrak bigarren urteari ekin dio Mojategiko aulkian, iazko *azterketa* nota txukunarekin gainditu eta gero. Baina aurrerapausoa egin gura du, eta Arrasate Irratian egindako elkarrizketan nabarmendu du Mondrak garaipenak eskuratzeko duen portzentajea iazkoa baino handiagoa izan behar dela. Hirugarren Mailara igotzeko borrokan egon gura dute.

**Mojategin batzen diren zaleek, iaztik hona, ezberdintasunik sumatuko dute jokoan?**

Hasiera batean, ez da iraultzarik egongo. Berdegunean sendotasuna erakutsi gura dugu, talde serioa izanda; egia da baloiaren jabetzan aurrerapauso bat eman gura dugula. Izan ere, lan hori egiteko jende aproposa etorri da taldera, eta horretan ari gara lanean, gainera. Baina ez da iazkotik askorik aldatuko: baloia ez daukagunean intentsitatez presionatu, serio jardun, halakoei eutsi egin behar diegu. Izan ere, badakigu zorroztasun maila apur bat jaisten dugun momentuan arazoak izango ditugula.

**Liga honetan aspaldiko ezagunak zarete gehienak, ezusterako tarte txikia egoten da.**

Hori ari gara orain ikusten, horrenbeste ezagutzen ez ditugun taldeek zer proposatzen duten. Mailaz igo diren taldeak zer moduzkoak diren, mailaz jaitsi den Anaitasunak zein maila duen... Edonork eman dezake ezuste bat, edozein partidutan. Hori bai, partidu bat irabazteko dugun portzentajea iazkoa baino handiagoa izan behar da.

**Talde moduan haztea, alegia.**

Hori da. Garaipenen portzentajea handitzeko lana egon behar da atzean, ezarri ditugun helburuak lortzeko taldeak progresio bat erakutsi beharko du urtean zehar; horrela lortuko dugu talde moduan haztea.



Jorge Davila, Arrasate Irratiko estudioan. MIREIA BIKUÑA

**Eta, zein da aurtengo denboraldirako ezarri duzuen helburua?**

Bada, iazko lana hobetzea. Hobeto esanda, iazko emaitzak hobetzea [Mondra zazpigarrena izan zen iaz, 59 puntu batuta. Lehenengo postuan geratu zen Pasaiak 72 punturekin irabazi zuen liga] . Kontuak oso sinpleak dira, iaz lortutakoak baino 10-12 puntu gehiago behar ditugu. Azken hamar urteetan mailaz igotzeko borrokan ibili direnak, hau da, azken bizpahiru jardunaldietara bizirik iritsi direnak puntu jakin batzuen bueltan ibili dira. Eta gu borroka horretatik 12-13 puntura geratu gara. Hau da, lau garaipen gehiago behar ditugu. Eta hor ere datuak sinpleak dira, 34 partidutatik, borroka horretan ibiltzeko, 23-24 garaipen behar dira. Horrek derrigortzen zaitu partidu guztietara topera joatera, garaipen bila joatera, ezin gara exijentzia maila horretatik jaitsi. Eta hor dago zailtasuna, urte osoan zehar zorroztasun maila horri eustea.

**"PARTIDU GUZTIETAN, LEHENENGO MINUTUTIK, TALDEA IRABAZTERA ZELAIRATU BEHAR DA"**

**Horrenbestez, bistan dago Mondrakook liga amaieran borroka horretan egon gura duzuela, mailaz igotzeko borrokan.**

Bai, eta hori da iaz falta izan zitzaiguna. Aurrealdekoen borroka horretan sartu ginen, baina atzealdetik begira egon ginen beti. Aurten, ispilutik ikusi gura ditugu atzetik datozenak.

**Zenbateko horietara iristeko, Mojategik gotorlekua izan behar du.**

Bai, zalantza barik, etxetik oso puntu gutxik egin behar dute ihes. Baina ez dugu ahaztu behar etxean lortzen ez duguna kanpoan lor dezakegula, puntuek berdin balio dutela. Horregatik, etxeko lana bai, baina kanpokoa ere oso garrantzitsua da, nahiz eta kanpoan zailtasun handiagoak egoten diren. Alde horretatik, gure lanak izan behar du jokalariei sinetsaraztea partidu guztietara irabazteko asmoz goazela, guztietara, eta lehenengo minututik. Goian egon gura badugu, ez dago beste biderik.



Helmuga, Oñatin beharrean, Arrasaten egongo da. GOIENA

## Oñati-Arrasate lasterketaren antolaketa lana, bide onetik

**ATLETISMOA** Urriaren 27an egingo du lasterketa AEDk; dagoeneko zabalik dago izen-emate epea

**X.U** ARRASATE

Ekainean aurreratu zuen GOIENAk desagertzeko puntuan zegoen Arrasate-Oñati lasterketa antolatzearen ardura Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) elkarteak hartuko zuela. Eta, ordutik hona, antolatzaileak lanean ibili dira, zarata handirik atera barik, baina martxa onean. Jardun horretan berriak badira ere, Antxintxiketan talde oñatiarraren eta Arrasate Atletiko taldekoen laguntza izango dute.

Hala, lasterketa egunerako hilabete pasatxo geratzen da eta dagoeneko zabaldu dute izen-emate epea: "Orain arte moduan, *www.herrikrossa.eus* atarian eman ahal izango da izena, eta baita Arrasateko Istersport Loramendi dendan ere. Gogoratu, gainera, egunean bertan ezingo dela izenik eman, baina Internetez egiteko lasterketaren bezperara arte egongo da aukera".

Ekainean aurreratu moduan, berrikuntza handiena izango da proba norabidez aldatuko dutela; alegia, Oñatiko plazan hasiko dutela lasterketa eta Arrasateko plazan egongo dela helmuga –distantzia ez da aldatzen, 11,7 kilometro izango ditu probak–. Hala, lasterketa hasi aurretik parte hartzaileak Arrasatetik Oñatira joateko, antolatzaileek autobusa jarriko dute.

**Emakumezkoen parte-hartzea**

Hori da AEDko lagunek aurtengo edizioan sustatu gura duten gaietako bat, emakumezkoen parte-hartzea: "Horretarako, lasterketan taldeka ere parte hartu ahal izango da, baina saria irabazi gura duenak emakumezkoak izan beharko ditu bere taldean; hain zuzen, taldearen erdia emakumezkoz osatuta egon beharko da". Izena emateko, 12 euro ordaindu behar dira.

### ERRUGBIA Hilaren 30ean ekingo dio ARTk ligari

Arrasate Errugbi Taldeko seniorrek Atletico San Sebastian/ Hernani taldearen kontra hasiko dute liga, datorren astean. Iaz bezala, aurten ere liga txapelketa joan-etorrikoa izango da, eta, hain zuzen, mailari eustea izango da Kanpanzar Arrasateren helburu nagusia; horretarako, baina, azken postua saihestu beharko dute.

### ESKUBALOIA Ford Mugarrik azken astea du liga prestatzeko

Euskadiko Txapelketan jardungo du aurten ere Ford Mugarri Arrasatek, ekainean igoera fasea Iturripen jokatuta denboraldia borobildu eta gero. Datorren astean hasiko dute liga, etxetik kanpora, Urdulizen kontra. Iazko denboraldi historikoaren ondoren, kategorian lehiakor izateko helburuarekin hasiko dute denboraldia arrasatearrek.




Goikobaluko jaia antolatu duten eragileetako ordezkariak. ZUZTARRAK ERROTUZ

# Goikobaluko gazteluaren jaia ospatuko dute bihar

Herriko hamabi eragilek bat egin dute bihar, zapatua, Goikobaluren balio historikoa, botanikoa eta ludikoa berreskuratzeko; aurtengoa seigarren aldia izango da jai hau ospatuko dutena, eta egun osoko egitaraua prestatu dute antolatzaileek

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

Hauek dira seigarren edizioan parte hartuko duten herriko eragileak: Zuztarrak errotuz, AED, Ekin, Txatxilipurdi, Trikitixa eskola, Udalaxpe , Portaloi elkartea, Arrasateko Bertso Eskola, Albokalariak, Lore Gazteak, Arrostaitz eta SUDC.

Goikobaluko balio historikoa, ludikoa eta botanikoa berreskuratzeko asmoarekin hasi ziren jai hau antolatzen. "Antzina egiten zen erromeria bat berreskuratu genuen, eta hasi ginen herriko hainbat talderekin elkarlanean", azaldu du Juanito Barberanek, Zuztarrak Errotuz taldeko kideak. Dioenez, "nahiko utzita" zegoen gune hori, eta horri buelta emateko sortu zen Goikobaluko jai hau.

Aurreko edizioetan bezala, aurten ere festa giroan ospatuko dute eguna. "Lekua oso aproposa da erromeriarako, eta umeek jolasteko ere toki zoragarria da. Beraz, aitzakia ezin hobea da bihar egun ederra pasatzeko. Gainera, badirudi, eguraldiak ere lagunduko digula.

## Eguneko egitaraua

**Irailak 22, zapatua**

- **11:30** Goikobalura ibilbide gidatua.
- **12:00** Plazan hitzordua, Goikobalura igotzeko.
- **12:30** Kalejiran Goikobalurantz.
- **13:00** Umeentzako jolasak.
- **13:00** Dantzaldia.
- **13:45** Sokatira txapelketa.
- **15:00** Bazkaria.
- **15:45** Kanta herrikoiak.
- **16:00** Patxi Montero, *Herrixa dantzan*.
- **17:15** Dantzaldia.
- **18:45** Jaitsiera herrira.

Egitaraua zabala da, adin guztietako herritarrei zuzendutakoa. Hala ere, ekintza bat nabarmendu gura izan du Barberanek: ibilbide gidatua. "Azkeneko hiru urtetan ibilbide gidatu bat ere sartu dugu. Ferrerias kaleko Arotz plazatik abiatuta, ordubete inguruko ibilbide gidatua egiten dugu Goikobalura, Artazubiaga, Gaztelupe eta Gazteluondotik pasa, eta goraino. Ibilbide historiko bat da, herritarrei Goikobaluren historia azaltzeko balio duena. Oso interesgarria da", adierazi du.

Beraz, herritar guztiei jaian parte hartzeko dei egin die.

**Irajleko laugarren zapatuan**

Aurrerantzean, iraileko laugarren asteburuan finkatu nahi dute jaieguna, herrian egiten diren beste ekintza batzuekin bat ez egiteko. "Elkartasun Egunarekin bat egin izan dugu, adibidez, eta nahiago izan dugu eguna aldatu, herritarrak ekitaldi guztietara joan ahal izan daitezen".

# Broken Brothers Band taldea, Kooltur Ostegunetako lehena

Bederatzigarren denboraldia izango da aurtengoa eta logo berria izango dute, Jone Martinezek egindakoa

**E.A.** ARRASATE

Kooltur Ostegunak ekimenaren bederatzigarren denboraldia izango da aurtengoa, eta Kooltur Ekintzaren irudia eta kartelak berritu egin dituzte edizio honetarako, Jone Martinez diseinatzaile arrasatearrarekin elkarlanean.

Broken Brothers Band talde iruindarrak emango dio hasiera bederatzigarren edizio honi, urriaren 4an. Funka, gospela eta jazz modernoa lantzen dute, eta inprobisazioak ere zati garrantzitsu bat hartzen du euren kontzertuetan. Donostiako, Getxoko eta Iruñeko jazzaldietan kontzertuak eskainitakoak dira, besteak beste.

Urriaren 11n, Cigüeña taldea izango da gaztetxean, indie eta hardcore-punk melodikoaren korronteetan igeri egiten duen bikote zuzena.

Urriaren 18an, Belako taldeko Josu Ximunen proiektu grungea egongo da ikusgai: Lukiek.

Urriaren 25ean, azkenik, La Inquisicion taldearen emanaldia izango da, Bartzelonatik datorren punk-oi! indartsua.

# Goikobalu Abesbatzak webgune berriarekin hasi du ikasturtea

Entseguak hastearekin batera, abesbatzak webgune berria aurkeztu du: 'www.goikobalu.com'

**E.A.** ARRASATE

2018-2019 ikasturterako eskaintza zabala du Goikobalu Abesbatzak, adin askotariko herritarrei zuzendutakoa:

Goikobalu Txiki eta Goikobalu Izartxoak dira haurrei zuzendutako taldeak. Goikobalu Abesbatzan harrobia lantzen jarraitu nahi dute, eta gonbita egin nahi diete 4 urtetik gorako herriko abeslari guztiei. *Abesbatza, musika eta laguntxoekin jolas egitea gustuko baduzu, zain gaituzu!* leloarekin. Entseguak martitzenetan eta eguenetan izango dira: lehenik, txikienek –18:00-18:45–, eta, ondoren, nagusiagoek –18:45-19:30–.

Bestalde, Goikobalu Abesbatzako helduen taldea ere ikasturte berrian murgilduta dago dagoeneko eta ateak zabalik ditu herriko abeslari guztientzat. Nagusiak ere martitzenetan –20:30-22:30– eta eguenetan –20:00-22:00– elkartzen dira. Entseguak Goikobaluk Saiolan eraikinean daukan lokalean izango dira –Nafarroa etorbidea 2–.

Webgune berrian dago informazio zabalagoa.

# Caritas-ek erakusketa zabaldu du Biteri plazako aparkalekuan

*Aparkatu zure axolagabetasuna: begirada bat gizarte bazterkeriari* izeneko erakusketa zabaldu zuen atzo, eguena, Caritas Gipuzkoak Biteri plazako aparkalekuan, eta urriaren 4ra arte egongo da ikusgai.

Orain arte hainbat lekutan egon da: Donostian, Bergaran, Irunen, Azpeitian eta Arantzazuko santutegian.

Caritasen arabera, gizarte modernoa "gaixotasun zaharrak pairatzen ari da. Frustrazioa, zaurgarritasuna, bakardadea eta pareko gaitzak erruz agertzen dira gure eguneroko bizitzan. Pobreziak aurpegi ugari ditu, eta pertsona asko ari da gizartebazterkeria sufritzen".

Hori dela eta, herritarrei dei egin diete ez daitezen "geldi geratu", eta "egin dezatela zerbait. Landu zure giza garapena: egin harrera, enpatia izan… Erakutsi hor zaudela".



Juanito Saizar auzo alkatea, errautsentzako hobiak erakusten. J.I.

# Errautsentzako hobiak Azkoagako hilerrian

Ohiko hilobi bat egokitu eta errautsak gordetzeko hamabi txoko atondu dituzte kanposantuan. Gorpuak erretzeko joera zabaldu ahala, behar berriari erantzuteko egin dute moldaketa. Beste auzoetan ere egingo du Udalak, auzotarrekin adostuta

**Julen Iriondo** ARAMAIO

Auzoaren beraren eta gizarte joeren bilakaeraren ondorio dira Azkoagako hilerrian azken urteetan izandako aldaketak. 2002. urtera arte, auzoko etxe bakoitzak zuen bere eremua hilerrian –28 zatitan banatuta zegoen kanposantua–. Etxeak ugaritu ahala, ordea, sistema hori aldatu egin behar izan zuten: "Bi aukera zeuden, hilerria handitu edo errotazio sistema batekin hasi, eta bigarrenaren alde egin zen", dio gaur egungo auzo alkate Juanito Saizarrek.

Horrela, 2002a ezkero hala funtzionatu dute: auzoan norbait hiltzen den bakoitzean, hustu egiten dute antzinatasun handiena duen hilobia –azken lurperatzea kontuan hartuta–, eta han lurperatzen dute berria.

Aspalditxoan, baina, gorpuak lurperatzeaz gain, erre ere egiten dira. Oraintxe ere baziren hiru pertsonaren errautsak hilerrian lurperatuta, euren senideren bat –ez hil zaharrak haiek ere– hilobiratutako eremua aprobetxatuta.

Errautsendako leku propioa behar zen, ordea; zer egin, bestela, adibidez, errotazioagatik laster hustu beharreko hilobi baten –senidetasunagatik– sartu behar izanez gero hil berri baten errautsak? Edo hilerriko eremua norekin konpartitu eduki ezean? Errotazio sistema horretan, eremu osoa errauts kutxa bakarrarentzat erabiltzea ere ez zen bideragarri jotzen, eta egin dutena izan da hurrengo hustu behar zen eremuan hamabi hobi egin, errautsentzako; uztailean sortu zitzaien beharra, bi pertsona hil eta erraustean. Udalak aginduta, irail hasieran egin zituzten moldaketak, eta egunotan dira senideak errautsak hobiratzekoak.

**EGUNOTAN DIRA BI FAMILIA ERRAUTSAK ERAMATEKOAK; HOBIAK ERABILTZEN LEHENAK IZANGO DIRA**

### Kudeaketa, Udalaren esku

Martin Arriolabengoa zinegotziaren arabera, Azkoagan egin dutena beste auzoetara ere eramango dute etorkizunean –beste banakaren batek ere badu errautsentzako lekua–: "Azkoagan eskaera zegoen eta horregatik egin dugu; baina asmoa da auzo guztietarako joatea planifikatzen, auzo alkateekin adostasunez".

Izan ere, gaur egun Udala arduratzen da auzoetako hilerrien kudeaketaz; aurtengo urtera arte –duela hiru urte auzo alkate izendatu zutenetik– Juanito Saizarri egokitu zaio Azkoagakoarena: errotazio sistemaren arabera zein eremu hustu behar zen ebatzi, eta abar; zerrenda eguneratzea ere tokatu zitzaion, aurreko urteetan behar zen bezala egin ez zelako. Orain, ordea, esan bezala, Udalaren ardurapekoak dira halako eginbeharrak.

## Urkiolako araudi berriari alegazioak egin dizkio Udalak

Parke Naturaleko udalerrien garapen sozioekonomikoari buruzkoak eta ehizari dagozkionak dira, esate baterako

**J.I.** ARAMAIO

Irailaren 10ean amaitu zen alegazioak jartzeko epea, eta Aramaioko Udalak egin ditu bereak. Batetik, proposatu du parkean dauden udalerrien garapen sozioekonomikorako plana egitea, eta egitea inguruko eragile sozial, ekonomiko eta instituzionalek parte hartuko duten prozesu baten bitartez: "Honela, parkeko baliabideen aprobetxamendu jasangarria bermatzeaz gain, inguruko jarduera ekonomiko, ekoizpen eta aprobetxamenduen hobekuntzak ekarriko dituzten aktuazio konkretuak jasoko dira".

Bestetik, Udalak dio "parkearen mugetatik kanpo baina inguruan dauden programek, planek zein proiektuek parkean izan dezaketen eragina edo inpaktua neurtzeko azterketak" egin behar direla, "parkearen kontserbazioa bermatzeko".



Urkiolako Parke Naturala. GOIENA

Hirugarrenik, araudi berriak parkean ehiza barrutirik ez dagoela dioela-eta, zuzentzeko eskatzen du Aramaioko Udalak –badagoelako–, eta Kondebaso-Albinagoia inguruari ehiza babesleku izaera kentzea ere bai.

### Bastidako Marrate musika banda, gaur, kultura etxean

Sastiñako Musika Festibalaren barruan –nahiz eta oraingo kontzertua ez den han izango–, 20:30ean hasiko da saioa, kultura etxean. 30 lagun inguru dira, ohiko musika banda, baina doinu "modernoagoak" egiten dituena, Juanma Saez zuzendariaren arabera. Tradizio handiko banda da, gainera, XIX. mende amaieran sortu baitzen.

### Sagardo Eguna domeka honetan izango da

12:30ean hasiko da herriko trikitilariekin egingo duten kalejira. 13:00etan izango da, berriz, txotx irekiera, Azpiko Racing elkartekoen eskutik. Herriko sagardogileek ekoiztutakoa dastatzeko aukera izango da, beraz –baita zukua ere–, eta jatekorik ere ez da faltako. Pintxoak izango dira, eta taloak Lagun Artean dantza taldekoen eskutik.

### Eguneratuta kobratu dituzte ura, zaborra eta saneamendua

Aurten sartu dira indarrean ura, saneamendua eta zaborra arautzen dituzten ordenantza berriak. Horiek kontuan hartuta, irailaren 10ean kobratu zuten lehen hiruhilekoa –atzerapenarekin egin da, tarifa berriaren ezarpenak banan-banan sartu behar izan direlako–. Bigarren hiruhilekoa urriaren 15ean kobratuko dute.

### Irasuegi abizena duten 150 lagun elkartuko dira bihar

XX. mende hasieran Filipinetara joandako Gregorio Irasuegi arragatarraren –Arragainekoa baserrikoa– oinordekoena izan da ekimena. Senidearen jatorrizko ingurua ezagutu nahi eta, hemengoekin harremanetan jarrita, bidaia antolatu zuten –zortzi datoz–. Ekimena hedatu eta bateko eta besteko 150 lagun batuko dira, azkenean.



Hau zen lanen egoera eguazten goizean. J.I.

# Ur parkeko obrei gutxi falta zaie amaitzeko

"Intentzioa da datorren astean bukatzea", zioen obran diharduen Arrizabal enpresako arduradun Jose Ramon Zabalak eguazten goizean. Astelehen eta martitzenean probak egin eta "eguazten edo eguenerako" izan daiteke azpiegitura amaituta egotea

**J.I.** ARAMAIO

Litekeena da aurtengo uda pixka bat luzatzea Aramaion. Domeka honetan hasiko da, berez, udazkena, baina urtaro horretarako baino aurrekorako egokiago diruditen ur jolasetan aritzeko herriko neska-mutiko batek baino gehiagok izango du, oraindik, ilusioa. Eta baliteke ilusio hori betetzea.

Azpiegitura, behintzat, ondo bidean, datorren astean amaituko dute. Eguazten goizean ari ziren txorrotak hartuko dituen zirkulua hormigoiz betetzen, eta aurreikuspen hori egiten zuen Arrizabal enpresako arduradun Jose Ramon Zabalak: "Intentzioa da datorren astean amaitzea, nahiz eta ezin egun zehatza esan; orain ponpak-eta jartzen ari dira barruan, astelehen-martitzenean frogak egingo ditugu, eta ondo baldin badago nik uste dut eguazten edo eguenerako prest utzi dezakegula", zioen; Udaletik, hala ere, lanen amaiera dataren konfirmaziorik ez dutela zioen Lierni Altuna alkateak, eta hori jakin gabe ezin dutela esan noiz jarriko duten parkea martxan.

### Haitza agertu eta atzeratu

Abuztu hasieran hasi ziren ur parkea egiten, eta irail erdirako amaitzea zen asmoa. Jose Ramon Zabalak azaldutakoaren arabera, baina, ezustean haitza agertu zitzaien lurrean, eta horrek eragin du lanak atzeratzea.

Baina ez zaie asko falta amaitzeko. Parkeak izango dituen jokoak jarrita, txorroten eremuaren inguruan hormigoizko *hondartza* eginda... Azpiegiturak berrerabili egingo du ura: isuritakoa jaso, garbitu eta berriz ere isuri; ezinbestean galtzen den hori ordezkatzeko baino ez du ur berria izango –beti ur kopuru bera ibiliko da aurrera-atzera–.

**HERRI TXIKIETAN BEREZIKI EI DUTE ARRAKASTA GISA HONETAKO AZPIEGITUREK**

Arrizabal enpresako arduradunak arrakasta aurreikusten dio parkeari: "Mallabian ere jarri genuen aurreko urtean, eta arrakasta handia izan du. Herri txikietan, agian, ez dute besterik; Oñatin –Oñatikoa ere Arrizabalek jarritakoa da–, adibidez, agian, bada igerilekua eta... baina herri txikietan...". Ur parkeak ordutegi bat izango du, eta ordutegi horren barruan jendea detektatzen dutenean jarriko dira martxan txorrotak.

Igerilekurik ezean, egun beroetarako freskagarri, Goikoerrotako putzuaren osagarri dator orain azpiegitura berria, ume txikientzako, batez ere, aproposagoa, eta Ibarran bertan. 110.000 euroko aurrekontua izan du –laurdena jarri du Udalak; bestea Europatik dator–, baina, adibidez, igerilekuak ez bezala, mantenu kostu handirik ez du, Udaletik adierazi dutenez.

## Euskara ikasteko aukera izango da aurten ere Aramaion

Azken urteotan horretan jardun duen taldeak jarraitu egingo du. B1 maila badute hauek, eta aurtengo lana mintzapraktikara –B1-B2 mailak– bideratuko dute. Inork beste edozein mailatan interesa izanez gero, izena eman behar da udaletxean, irailaren 28a baino lehen. Izena ematerako orduan zehaztu beharko da zein mailatan duen interesa.

## Murumendi eta Axelarrain basoak botatzea, esleituta

Central Forestal SA enpresak botako du Murumendi. Bi hilabete izango ditu horretarako, eta prezioa izango da 54.538 euro BEZik gabe eta 65.990,98 euro BEZa barne. Axelarrain botatzea, berriz, Ibai Forestal SL enpresari esleitu diote. 43.914 euro da BEZik gabeko prezioa, eta 53.135,94 BEZarekin. Honen epealdia ere bi hilabete dira.

## Izena eman daiteke erretiratuen elkarteko kantu tailerrerako

Urriaren 5ean hasiko da –10:00etatik 11:30era–, erretiratuen egoitzan egingo dute, eta hiru saio izango dira hilean. "Abestea gustatzen zaien eta ondo pasatzeko gogoa duten erretiratuei" dago zuzenduta. Parte hartzeko, aipatutako egunean erretiratuen egoitzan azaldu edo deitu: 605 72 05 31 (Cristina) edo 605 77 58 10 (Migel).

## Aitor Aranaren omenezko mendi martxa, bihar

Parte hartzaileek egunean bertan eman beharko dute izena (5 euro) eta irteera 08:00etan izango da, kiroldegitik. Aurtengo ibilbidea 2014koaren oso antzerakoa da, hiru kilometro laburragoa. Sei tontor gainditu beharko dituzte –Marka, Murugain, Asentzio, Danborralde, Durakogain eta Orixol– 25,7 kilometroko ibilbidean.

NIRE USTEZ



IKER ELEXPURU

## Uda joan da eta...

Lasaitasuna, estresa kanpora! Eguraldi ona, eguzki izpiek gure gorputzak energiaz bete eta indarrak hartzeko unea, zein polita den uda.

Lagunartean, familian, maite ditugunekin tarte luzeak izateko aukera da uda; erlojua eskumuturretik kendu eta, ordurik gabe, denboraren joanak ez du garrantzirik hartzen. Amesturiko bidaia egia bilakatzeko sasoia. Mendiaz, itsasoaz gozatzeko garaia. Herriko jaiak topera biziko ditugu. Pozak hartzen du gure gorputz osoa!

Hain gozo eta ederra dena bukatu da.

Egunerokotasunean sartu eta barruak tristuraz, penaz, bete dira, uda joan da eta… hasierako egun hauetan erritmoa hartu ezinik, loaren ohitura hartu ezinik gabiltza.

Uda giroa azken momentura arte luzatu nahi dugu, kaleak erakartzen gaitu eta errealitatea barneratu ezinik gabiltza. Negu beltzari, iluntasunari uko egin nahi diogu oraindik. Nahiz eta jakitun izan hotza, iluna, beltza, ate joka dugula. Azken afariak kalean, azken poteak aste barruan, amaiera baten hasiera!

Goza dezagun ahal dugun bitartean, uda joan eta negua ate joka dugu eta!

OHARRAK

### Alaiak elkartea

Bazkideen eguna ospatuko dute domekan. Meza egingo dute, 12:00etan, urtean hildakoen alde, eta bazkaria 14:30ean.

### KZgunea

KZguneko dinamizatzailea Aramaion izango da datorren astean. Astelehenean 09:00etan etorriko da eta 10:45era arte egongo da.



Azbeko langileak Bernardino Zubiarekin, 1940 urte inguruan, lantegia berritu ondorengo inaugurazioan. UDAL ARTXIBOA


Emakumeak makinetan lanean. UDAL ARTXIBOA


Trenbidea eraikinaren aurrealdean. UDAL ARTXIBOA

# Sarrailekin goia jo zuen lantegia

Langile izan zirenek penatuta bizi izan dituzte Azberen eraiste lanak; izan ere, han geratu dira konta ezin daitezkeen lanorduak eta bizipen gozoak zein gaziak. Fundiziotik sarrailagintzara salto egin zuen lantegia supermerkatu izango da laster

**Mirari Altube** ARETXABALETA
Triste begiratu diote hainbat herritarrek Azbe lantegiari azken hilabetean, eraiste lanak etorri direnean. Urte askoan bertan lanean eman ondoren, bat-batean oroitzapen, bizipen eta lagun askorekin akordatu dira.

**Bi bazkideren burutazioa**
Bernardino Zubiak eta Eugenio Agirregabiriak 1921ean sortu zuten lantegia; eta bi abizenen lehen letrekin jarri zioten izena orduko tailerrari: AZ. Handik urte batzuetara, baina, aldatzea erabaki zuten, nahikoa komertziala ez zelakoan, eta izenen lehen letrak ere kontuan hartuta etorri zen AZBE.

Sasoi hartan, fundizio-labeak zeuzkaten lantegian, eta idiendako burdina-uztaiak, BH bizikletendako tximeletak eta ardatzak, Orbegozo sukaldeendako parrilak eta antzekoak egiten zituzten. 250 langile izateraino iritsi zen; izan ere, fundizioan labeak gau eta egun izan behar ziren piztuta, eta, ondorioz, langile askoren beharra zegoen. Gainera, guztia egiten zen eskuz, ez zegoen makina handirik. Herriko lantegirik handienetakoa izan zen, alboan zituen Arruerekin eta Laminazioarekin batera. Fundiziorako materiala –ikatza eta harea– trenez ekartzen zuten, baita lantegian egindako produktuak eraman ere, eta horretarako aparteko geltokia zuen lantegiak aurrealdean.

**HERRIKO LANTEGI HANDIENETAKOA IZAN ZEN, ARRUEREKIN ETA LAMINAZIOAREKIN BATERA**

Zerradun teilatuarekin eraiki zuten tailerren zona, argitasunari pasatzen uzteko, eta, hain zuzen, horregatik du orain industria monumentu izendapena. Bulegoen atzealdean, ostera, ur depositua zegoen, Larrinbetik zetorren urarekin beteta; makinak freskatzeko erabiltzen zuten, eta, era berean, teilatua hondatu ez zedin tenperatura aldaketen ondorioz. Arrainak izaten zituzten han, gainera.

**Fundiziotik, giltzak egitera pasa**
Leintz bailaran Union Cerrajerak bakarrik egiten zituen giltzak sasoi hartan. Baina Azben konturatu ziren eskaera handia zegoela, eta sarrailak ere egitea erabaki zuten. Hain zuzen, Bernardino Zubiak zortzi sarrailazilindro patentatu zituen 1947 eta 1950 urte bitartean. Bernardino ezagutu zutenek badakite

## "Munduari bost edo sei bider eman diot bira lan kontuengatik"

**ALBERTO ZUBIA** AZBEREN UGAZABETAKO BAT


ALBERTO ZUBIA

Bernardino Zubia sortzailearen loba esportazioen arduradun izan zen urte askoan, Assa Abloyk ixtea erabaki zuen arte. Gasteizen bizi da eta ondo gogoan ditu han bizitakoak.

**Penarik eman dizu lantegia botatzeak?**
Ez dut zigortu nahi neure burua; oroitzapen ederrak dauzkat, eta horrekin geratzen naiz.

**Bernardinok zer esango ote luke… Zelakoa zen?**
Txikia, baina jenio bizikoa eta esku-estua; lana zuen beti buruan. Autoa bazuen, baina gidabaimenik ez; gure aita, Jose Agustin, zen haren gidaria eta konfiantzazko gizona.

**Esportazioen arduraduna izan zinen; zenbat bidaia munduan zehar?**
Ufff… 30 urterekin joan nintzen Ingalaterrara ingelesa ikastera, ezer jakin barik. Eta, geroztik, munduari bost edo sei bider, behintzat, eman diot bira.

**Hortaz, Aretxabaletaren izena zabaldu duzu…**
Bai, eta, bide batez, lagun mordoa egin ditut; hori izan da onena. Bidaia horietako anekdota mordoa ditut, eta lobak esan izan dit liburu bat idatzi beharko nukeela.

**Azbeko langile ohiekin harremanik baduzu?**
Batzuekin bai; hiru hilabetean behin-edo bazkaltzeko elkartu izan gara.



Giltza elektronikoa. ARETXAGAZETA

## Langile izan zinen; zein oroitzapen duzue?



**BRIGI MARTIN**
SARRAILA-ZILINDRO MUNTATZAILEA

**"Greba egin genuen batean ezagutu nuen senarra"**

"14 urterekin sartu nintzen, 1973an, eta sarraila-zilindroak muntatzen hasi. Han ezagutu nuen senarra, greba batean. Hotz handia pasatzen genuen eta eskuak gogortu egiten zitzaizkigun; protesta gisa suak piztu genituen, nork bere sailean. Gero, nahastu egin ginen langileok, hantxe ezagutu genuen elkar. Aratuste-martitzen batez mozorrotu egin ginen; mantalik gabe ezin zen lanik egin, eta arduradunak dei egin zigun gero. Oso oroitzapen onak ditut, eta pena hartu dut".



**ISABEL OLIVENZA**
SARRAILA-ZILINDRO EGILEA

**"Amantala erosi eta 14 urterekin sartu nintzen"**

"Han egiten zuten lan aitak, anaiak, ahizpak, lehengusuak… Amantala erosi *Katalanenean* eta lanera joateko esan zidan aitak, eta ahizparen gonari helduta sartu nintzen lantegian, 14 urterekin. Aitari ia errespetu handiagoa nion ugazabari baino! Sail guztietatik pasatu nintzen: sarraila-zilindroak, nikela, prentsak, pintura, enbalajea… Familia askori eman zien lana eta bizipen asko geratu dira han, barreak eta negarrak. Urriaren 19rako afaria dago deituta Azbeko langile guztiendako".



**MIGUEL CABERO**
SARRAILAGINTZA ARDURADUNA

**"Bernardinoren etxean lantxoak egindakoa naiz"**

"Eskola Politeknikoan ikasten nenbilela, 1966. urte inguruan, sartu nintzen; lehenengo, doitzale (ajustadore) lanetan, eta, aurrerago, sarrailagintza saileko arduraduna izan nintzen. Bernardino Zubia ezagutu nuen; haren etxera joan izan nintzen konpontze lantxo batzuk egitera. 38 urte egin nituen lantegian, zenbat giltza? Auskalo! Oroitzapen onak ditut, eta pena handia hartu dut. Nik diot lehen dirua irabaztera joaten nintzela eraikin horretara, eta gero, dirua gastatzera joango naizela…".



**AGURTZANE URIBARREN**
PAKETATZAILEA

**"Giro benetan polita zegoen lankideon artean"**

"Nik bederatzi urte egin nituen; azken urteak, hain zuzen ere. Paketatzaile lanetan jardun nuen, sarraila-zilindroak poltsetan sartzen, eta, batzuetan, bulegoan ere egoten nintzen. Senarrak ere bertan egiten zuen lan; 33 urte egin zituen hark. Gogoan dut behin lankideak etorri zitzaizkidala esanaz makinak eskua harrapatu ziola senarrari. Eta nik esan nien ez nindoala harengana, bestela neu jausiko nintzela mareatuta. Giro polita zegoen lankideon artean, eta oraindik ere elkartzen gara".

gizon txikia baina jenio bizikoa zela, lanerako bizi zena. Ez zuen seme-alabarik izan, eta lantegia lobei utzi zien. 1972.n urtearen bueltan hartu zuten Azberen ardura Zubia lehengusuek. Fundizioa kentzea erabaki zuten, eta lan horiek inguruko beste enpresa batzuei ematea. Orduan, makinak erosten hasi ziren, eta poliki-poliki produkzioa aldatzen.

Errioxatik, Gaztela aldetik eta Galiziatik, besteak beste, lagun asko etorri ziren sasoi hartan Aretxabaletara bizi izatera, eta langile askok jo zuen Azbera. Emakumeak ziren nagusi enpresan. Pieza txikiak muntatzen zituzten eta horretarako esku finak behar ziren. Batetik, zilindroen muntatze lanak egiten zituzten; eta bestetik, kartoiak josi grapekin.

**Esportazioen garrantzia**

Zubia lehengusu guztiek ez zuten jarraitu lantegian. Sei geratu ziren: Luis, produkzioaren arduradun; Jose Inazio, salmenten arduradun, Juan Ramon, Mariasun, Jesus Mari eta Alberto. "Ikaragarrizko taldea osatu zuten Luisek eta Jose Inaziok, eta beste lehengusuei euren partea ordaindu behar bazitzaien ere segituan lortu zuten, piezak barra-barra hasi zirelako saltzen", dio Alberto Zubiak.

Egin ahala, giltza guztiak saltzen zituzten: "Merkatu nazionalean bakarrik hasieran. Eta kanpotik bertara etortzen zitzaizkigun erostera". 1982an joan ziren lehenengoz kanpoko feria batera, Koloniara (Alemania), eta ondoren, Esportazio Kontsortzioa eratu zuten beste enpresa batzuekin batera: "Orduan hasi ginen lanean egitura eta filosofia berri batekin, hau da, beharrezkoa zela esportatzea, eta merkatuak eskatzen zuen produktuak egitea. Aldaketa galanta izan zen!", dio Alberto Zubiak; eta berak hartu zuen, hain zuzen, esportazioen ardura.

Garai onak eta krisiak bizi izan ditu Albertok, eta krisiekin bai, ondo gogoratzen dela dio: "1980koa, 1992koa eta 2008koa". Dena den, mugarri izan zen urtea ondo baino hobeto du gogoan: 1996a. Sarraila-zilindro elektronikoa sortu zuten orduan. "Kablerik gabekoa, zilindro barruan zuen guztia: mikromotorra, zirkuitua... Ikerlanek lagundu zigun hori garatzen. Hain zuzen, horren berri izanda etorri zen Suediako enpresa guregana".

**KABLERIK GABEKO SARRAILA-ZILINDRO ELEKTRONIKOA ASMATZEA MUGARRIA IZAN ZEN**

**Suediarren eskuetan**

1999an, Assa Abloy enpresa suediarrak erosi zuen Azbe. Zuzendaritza berria ekarri zuten, baita laster igarri ere etxekoen falta: "Handik hiru urtera, Iñaki Aranaren eta neure ardurapean geratu zen lantegia. Izan ere, ugazaba berriak konturatu ziren merkatuaren gainean genuen ikuspegia eurena baino errealistagoa zela. Hortaz, esan dezakegu jatorrira itzuli zela Azbe", eta gaineratu du: "Iñaki Arana aretxabaletarra ingeniaria zen, baina esportazio kontuetan ere asko lagundu zidan. Teknikaria zen, baina komertzial ikuspegiarekin, eta, gainera, marraztu ere egiten zuen. Aparteko tipoa zen, benetan berezia, eta lagun mina nuen".

Berregituratze prozesu bati hasiera eman zion 2006an Assa Abloyk, eta orduan erabaki zuten poliki-poliki langileak gutxitzea. Baita, beste batzuekin batera, Aretxabaletako lantegia ere ixtea; 2009aren bueltan izan zen hori.



Eroskik izango duen itxura irudikatzen duen diseinua. EROSKI

## Eroski berria, 2019ko erdialderako

Zutik geratu den lantegi zatian –zerradun teilatua duena– supermerkatua egingo du Eroskik. Egitura berritu egingo dute, eta, hori egin bitartean, barruko lanekin hasteko beharrezko diren baimenak lortu nahian dabiltza. Eroskik adierazi du datorren urteko lehen seihilekorako denda zabalik izan gurako luketela.

Bere garaian aurkeztutako proiektua oinarritzat hartuta, Eroskik bi milioi euro inbertituko ditu hor. Supermerkatuak 1.500 metro koadro izango ditu eta 80 aparkaleku inguruan. 35 lagunek egingo dute lan, "tratu pertsonala" bultzatuz. Era berean, adierazi dute azken berrikuntza teknologikoak oinarri hartuta eraikiko dutela, "eraikinaren eraginkortasun energetikoa bermatzeko eta hango jarduerak ingurumenean duen eragina murrizteko".



Erretiratuak dantzan, uztailean, mojen komentuan egindako dantzaldian. IMANOL SORIANO

# Erretiratuak protagonista diren Kultura Astea

Datorren domekako dantzaldiarekin hasiera eman eta irailaren 30a bitartean ekitaldi mordoa izango dituzte Basotxo erretiratuen elkarteko kideek; besteak beste, hitzaldiak, moda desfilea, txokolate jana eta doke txapelketa

**Mirari Altube** ARETXABALETA
San Migel jaien bezperan dator Basotxo erretiratuen elkarteko Kultura Astea. Azken urteetan egindako lez, egitarau mardula osatu dute erretiratuen nahiak eta zaletasunak kontuan hartuta.

**Gazta dastatzea astelehenean**

"Dantzan egiteko gogo handia dute Basotxoko kideek, eta, uztailean antolatutako dantzaldiek izandako arrakastaren aurrean, domekan beste bat egingo dugu komentuko lorategian", dio Isabel Olivenzak, erretiratuen elkarteko zuzendaritzako kideak.

Hitzaldi bi ere izango dituzte. Batetik, ondo baino hobeto ezagutzen duten Felix Ajuria artzain eta gaztagile otxandiarra gerturatuko da gaztekin. Eta bestetik, Kontsumobideko Isabel Muelak elikaduraren gaineko kontuen berri emango die. Biak ala biak Basotxon izango dira.

Aurten ere izango da moda desfilea: "Iaz jende asko gerturatu zen eta errepikatu egingo dugu", dio Olivenzak, eta ekitaldi horri Basotxoko kantu taldeak emango dio hasiera.

Egubakoitzean, Atxabalta Mugiko lagunekin batera ibilaldiitxo bat eginez hasiko dute eguna, eta arratsaldean, txokolatea hartuta berreskuratuko dituzte indarrak. Domekan, ostera, dokean jokatuko dute; nor baino nor gehiago jardungo dute Errekabarren kalean dagoen lorategian Loramendiko, UDAko, Udaleko eta Basotxoko ordezkariek.

Era berean, aste osoan izango dira Basotxoko galerian eskulanak ikusgai; eguneko zentroko kideek egindako lantxoak, hain zuzen ere.

Bazkideek ez ezik, herritarrek ere zabalik izango dituzte ateak.

**BASOTXOKO KANTU TALDEAK ABESTU ETA MODA DESFILEARI EKINGO DIOTE EGUENEAN**

## Asteko egitaraua

**Irailak 23**
- **18:00** Dantzaldia.

**Irailak 24**
- **17:30** Gazta dastatzea Felix Ajuriarekin.

**Irailak 25**
- **17:30** Hitzaldia Kontsumobidek: *Elikadura*.

**Irailak 26**
- **08:00** Burgosera bidaia.

**Irailak 27**
- **17:30** Moda desfilea.

**Irailak 28**
- **Goiza** Ibilaldia.
- **17:30** Txokolate-jana.

**Irailak 30**
- **10:30** Doke txapelketa.

## Tomatearen bueltako azoka berezia egingo dute bihar

Tomateari eskainitako astea borobiltzeko azoka egingo dute bihar, Durana kalean. Eguerditik aurrera ikusgai jarriko dituzte tomateak, eta horien gaineko argibideak emateko gertu izango dira Aleka elkarteko hainbat kide. Herriko hamar tabernak tomatearekin egindako pintxoak eskainiko dituzte, eta gastronomia elkarteek tomate zopa hotzaren lehiaketan hartuko dute parte. Sari banaketa ekitaldia 14:00etan izango da, eta tomaterik itsusienaren jabea eta tomate mota gehien aurkeztutakoa ere sarituko dituzte; baita ortu lehiaketan parte hartutakoak ere.

Jakoba Errekondoren landarekontsultategia ere izango da bertan, eta herritarren zalantzak erantzungo ditu. *Landareak Lantzen* agenda-liburuaren bigarren zenbakia ekarriko du eskuratu gura duenarendako.

## Kantu afarirako izen ematea astelehenean zabalduko dute

Sanmigelak ate joka daude eta horren berri eman du astean Udalak. Egitaraua dagoeneko gertu du eta nobedadeak ere iragarri ditu; Bergarako konpartsaren kalejira, esaterako. Kantu afariari dagokionez, Herriko Plazan izango da, eguraldi ona eginez gero; txarra bada, ostera, Iturrigorri pilotalekuan. Izena emateko epea astelehenean zabalduko dute eta Arkupera jo beharko da –kuadrillaka eman behar da, euro baten truke–. 500 txartel banatuko dituzte –agortu arte–, eta jakinarazi dute eguraldi ona eginez gero beste 100 jarriko dituztela salgai egunean bertan.

Iturrigorri pilotalekuan egingo den herri bazkarirako txartelak ere dagoeneko salgai daude; Urbaltz eta Gurea tabernetan eros daitezke, eguaztenera bitartean. Helduek 18 euro ordainduko dute eta umeek, 15 euro.

## Substantzien kontsumoaren emaitzen aurkezpena

Nerabeen substantzien kontsumoaren gainean San Juan de Dios ospitaleak egindako ikerketaren emaitzak emango dituzte martitzenean, irailaren 25ean, Arkupen egingo duten hitzaldian (19:00). Hainbat alderdi hartu dituzte kontuan ikerketa horretan eta bereziki gurasoei eman gura diete horren berri. Aurrez izena eman behar da, Arkupen.

## Hiruko saskibaloi festa egingo du Areskok gaur

Aresko elkarteak antolatuta, Street Basket hiruko saskibaloi festa egingo dute Mitarte kalean gaur, egubakoitza. 2007 eta 2010 urte bitartean jaiotako neska-mutilek parte hartu ahal izango dute eta ekitaldia hasi aurretik zabalduko dute izena emateko aukera (16:00). Partiduak 17:00etatik 19:30era izango dira eta guztiek jasoko dute oparitxoa.

## OHARRAK

### Aretxarteren ekitaldiak

Egubakoitzak girotzen jarraitzen du Aretxartek; gaur izango dira buruarinen tailerra Danona aurrean (17:00) eta kontzertuak Orly inguruan (19:00).

### Fadoak domekan

Soraluzeko Ventos de Saudade taldeak fadoak eskainiko ditu domekan, irailaren 23an, Arkupen (19:00).



# Intxaurtxueta poligonoa prest eta etxeak gertuago

Eskoriatza sarrerako etxeetako obrak abian daude, krisiarengatik geldirik egon ostean. 2016an ekin zioten berriro lanei eta ingurua urbanizatu ostean, etxeak eraikitzen hasi dira. Lehenak, aurki estreinatuko dituzte jabeek; berriak, eraiki eta salgai jarriko dira

Intxaurtxueta poligonoaren egoera zelan dagoen jakiteko asmoz, Promociones Eskoriatza SAra jo dugu. Enpresa horrek gestionatzen du gune hori. Hauxe jakinarazi du:

Obrak geldirik egon ziren hainbat urtez, krisialdiaren eraginez. 2016an, berriz, Eskoriatzako Udaleko arduradunak enpresako zuzendariekin harremanetan jarri ziren: exijitu zieten urbanizazio lanak bukatzeko eta herriko sarrera –autobide sarreratik– txukun uzteko.

### Urbanizazio lanak

Hainbat batzarren ostean, akordioa egin zuten; hain zuzen, urbanizazio lanak bukatzeko konpromisoa hartu zuen Promociones Eskoriatza SAk. Handik gutxira, enpresak baimena eskatu zion Udalari, erdi eraikita zeuden bi blokeak –burututako egitura– faseka egiteko. Azken batean, lau fasetan; 28., 29., 30. eta 31. atariei zegozkienak. Hori bideratzeko, U.E. II (2. fasea) gunearen Birpartzelazio Proiektuaren Aldaketa bat aurkeztu zuen enpresak, eta Udalak onartu egin zuen.

### Urri amaieran, 30. atarikoak

Hala, urbanizazio-lanak bukatu ziren eta ingurua guztiz urbanizatuta geratu zen. Geroago, bide berrietan zirkulazioa arautu zuen Udalak eta, horrela, mugikortasun handiagoa lortu zen, baita zirkulazioa arintzea ere. Horrez gain, hainbat aparkaleku-plaza ere egin zituzten.

**ATARI BATEKO ETXEAK BUKATUTA, BESTE HIRUETAKOAK EGITEN HASIKO DIRA; 1, 2 ETA 3 LOGELAKOAK**

Urbanizazio-lanak egiten ari ziren bitartean, 30. atariko zortzi etxebizitzak bukatzeari ekin zitzaion; aurreikusten da 2018ko irail amaierarako egongo direla bukatuta. Erosleei, berriz, urri bukaeran emango zaizkie, dagozkien salerosketako eskriturekin.

Enpresaren asmoen barruan dago ondoko ataria ere egitea –fatxadak bukatuta–. 1, 2 eta 3 logelako etxebizitzak. Dagoeneko jarri da harremanetan gremioekin eta hornitzaileekin hura egiten hasteko; aurreikuspenen arabera, obrak hasi eta 12-14 hilabetera egongo da bukatuta.

Horren ostean, 28. eta 29. atariak merkaturatzen hasiko gara. 28. atariak 3 logelako etxebizitzak izango ditu eta 29.ak, berriz, 1, 2 eta 3 logelakoak.



Eskoriatzako Intxaurtxuetako eraikinetako bat, ia amaituta.

### Eskoriatza, Intxartxueta, 31. ataria

| | Logelak | Prezioa: gutxienez + BEZa |
|---|---|---|
| Etxebizitzak | 1 | 95.740,00 |
| Etxebizitzak | 2 | 126.300,00 |
| Etxebizitzak | 3 | 140.000,00 |
| Garajeak | | 17.000,00 |

ITURRIA: PROMOCIONES ESKORIATZA SA




Intxaurtxueta 31ko hiru eta bi gelako etxebizitzaren planoa.




Intxaurtxueta pligonoaren planoa. 28., 29., 30. eta 31. atariak eskuineko ertzean ageri direla.

Promociones
ESKORIATZA SA

Informazio gehiagorako
943 71 48 13
660 89 06 01



EUSKARALDIA



**Euskaraldiko Eskoriatzako hamaikakoa**



**BEÑAT ILLARRAMENDI**
'BELARRIPREST'-A



**UNAI IÑURRATEGI**
'AHOBIZI'-A



**NAIARA EZEIZA**
'AHOBIZI'-A



**MARIA ABEIJON**
'BELARRIPREST'-A



**ARANTXA IGARTUA**
'AHOBIZI'-A



**ANTONIO REGAÑO**
'BELARRIPREST'-A



**MAITE SANTAMARIA**
'AHOBIZI'-A



**MARTIN PEREZ**
'AHOBIZI'-A



**JOSE MARI KORTAZAR**
'BELARRIPREST'-A



**INMA MURILLO**
'AHOBIZI'-A



**JAIONE FERNANDEZ DE JAUREGI**
'BELARRIPREST'-A

# Hamaika lagun euskararen alde

Eskoriatzako Euskaraldiaren zabalpenean enbaxadore izateko konpromisoa adierazi dute herriko hamaika 'ahobizi' eta 'belarriprest'-ek. Horrekin batera, Euskaraldian izena emateko epea zabalik dago, atzo ezkero, herriko hainbat puntutan

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Beñat Illarramendi, Unai Iñurrategi, Naiara Ezeiza, Maria Abeijon, Arantxa Igartua, Antonio Regaño, Maite Santamaria, Martin Perez, Jose Mari Kortazar, Inma Murillo eta Jaione Fernandez de Jauregi dira Eskoriatzako hamaikakoa osatuko dutenak.

*Euskaraldia, 11 egun euskaraz* ekimena azaroaren 23tik abenduaren 3ra gauzatuko da Euskal Herri osoan eta ekimena antolatzen buru-belarri dihardu herritarrez osatutako batzorde batek. Hamaikakoa, berriz, Euskaraldia babesten duten hamaika pertsonak osatzen dute, eta euren babesarekin adierazten dute Euskaraldian parte hartuko dutela; *ahobizi* edo *belarriprest* rola jokatuko dutela 11 egun horietan eta Eskoriatzan Euskaraldiaren zabalpenean enbaxadore lana egingo dutela.

**Batzordearen inplikazioa**

Eskoriatzako batzordeak profil askotariko herritarrak aukeratu ditu Euskaraldiaren hamaikakoa osatzeko. Horrez gain, hainbat hitzordu antolatzen dihardu: mahai informatiboak jarriko dituzte egun batzuetan Fernando Eskoriatza plazan; urriaren 28an, *Ttak* bakarrizketa saioa izango da; Euskaraldian izena ematen dutenen artean giltzatakoak banatuko dituzte *Parte hartuko dut* esaldiarekin, eta abar.

**ATZO EZKERO EMAN DAITEKE IZENA EUSKARALDIAN: HAINBAT LEKUTAN, EDO ONLINE BIDEZ**

**Izen-ematea zabalik dago**

Hamaikakoa aurkeztuta, atzo zabaldu zuten Euskaraldian izena emateko epea. Izena ematen duenak Euskaraldian parte hartzen duela adieraziko du. Hala, norbanako bakoitzak rol bat hartuko du; *ahobizi* edo *belarriprest*-arena, eta azaroa erdi aldera banatuko dituzte horiendako txapak. Hainbat lekutan eman daiteke izena, eskuorri bat betez, eta honako leku hauetan egongo dira: udaletxean, liburutegian, kiroldegian, ikastetxeetan eta euskaltegian.

Online bidez egin nahi duenak ere aukera izango du horretarako: *Izenematea.euskaraldia.eus* webgunearen bidez egin ahal izango da.

## "Euskaraldiak poztasuna sorrarazten dit"

**ARANTXA IGARTUA**
'AHOBIZI'-A

Txikitatik euskaraz egin du Arantxa Igartuak, eta Euskaraldia guztiontzat ekimen interesgarria dela adierazi du.

**Zergatik onartu duzu hamaikakoaren parte izatea?**
Uste dudalako gauza positiboa izango dela, eta euskararentzat ona.

**Hitz batean: zer sentsazio sorrarazten dizu Euskaraldiak?**
Poztasuna. Alde guztietan euskarari bultzada emateko ekimen ona da.

**Nolakoa izan da euskararekin izan duzun harremana?**
Baserrian jaio nintzen, eta umetatik euskaraz bizi izan naiz. Eskolan, gazteleraz egiten genuen asko, baina euskaraz egiten zigun maistra batek; dantzan eta abesten… euskaraz egiten ziguna. Oso zaila zena sasoi hartan. Horrez gain, Oñatin txistua jo, koruan abesten nuen…

## "Euskara ez dakitenentzat aukera ona da"

**MARIA ABEIJON**
'BELARRIPREST'-A

Bere ama hizkuntza gaztelera izan arren, euskaraz jakitea aberasgarria dela uste du Maria Abeijonek. Gainera, euskara ez dakitenek ikasteko baliagarri ikusten du Euskaraldia.

**Zergatik onartu duzu hamaikakoaren parte izatea?**
Proposamena egin zidaten, eta euskara sustatzeko ekimen interesgarria da.

**Hitz batean: zer sentsazio sorrarazten dizu Euskaraldiak?**
Ilusioa.

**Nolakoa izan da euskararekin izan duzun harremana??**
Nahiz eta euskara nire ama hizkuntza ez izan, eskolan euskaraz ikasi nuen, eta euskaraz hitz egitea aberasgarria dela iruditzen zait, kalean edo lanean komunikatzeko… ezinbestekoa. Euskara ez dakitenentzat ere oso aukera ona da Euskaraldia.

# Goitibehera ugari izango dira Apotzagan behera

Zapatuan izango da Eskoriatzako Goitibehera Zaleak taldeak antolatzen duen Apotzagako goitibehera jaitsiera. 15:00etan hasita, aurtengoa seigarren edizioa izango da, eta, urtero moduan, mota askotako ibilgailuak ikusi ahal izango dira

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Abiadura, abilezia, kontrola, txiripa… denetarik ikusi ahal izango da zapatuan izango den Eskoriatzako goitibehera txapelketan. Seigarren urtez egingo da Eskoriatzako Goitibehera Zaleak taldeak antolatzen duen Apotzagako jaitsiera, eta, urteroko ibilbidea errepikatuz, kilometro eta 400 metroko jaitsiera egin beharko dute parte-hartzaileek, hau da; Apotzagako merenderotik Intxaurtxueta auzoraino.

Zapatuan 15:00etan hasiko da, eta bertan, hainbat motatako gotibeherak izango dira: *drift trike*, pneumatikoak, arinak, errodamenduak… Prestaketa lan guztiak eginda, ibilgailuen egiaztapenak 14:00etan egingo dira Intxaurtxueta auzoan, eta Euskal Ligarako puntuagarria izango den txapelketa izango da, gainera. "Anbulantzia eta medikuak lortzea izan da zailena; izan ere, azken momentuan lortu ditugu; baina, hori konponduta, egunerako dena prest dugu. Orain, eguna heltzea eta eguraldia lagun izatea soilik geratzen zaigu", adierazi du Jose Angel Urrutiak, Eskoriatzako Goitibehera Zaleak taldeko kideak.



**Iazko jaitsieran.** IMANOL SORIANO

**Parte-hartzea jaitsi egin da**

Iaz, ia 100 pilotuk hartu zuten parte Eskoriatzako jaitsieran, eta, aurten gutxiago aurreikusten dituzten arren, bertan egongo den lasterketan eta giroan ez duela eragingo adierazi du Urrutiak: "Parte-hartzea jaitsi egingo delakoan gaude. Izan ere, Euskal Ligan, orokorrean, kopuruak jaitsi egin direla jabetu gara. Halakoak moda kontuak izaten dira… Oraingoz, 40 lagun inguruk eman dute izena, baina azken unean emango dute izena askok, seguru".

**Eskerrak guztiei**

"Gure taldekoez gain, beti behar izaten dugu boluntarioen laguntza, eta baita babesleena ere. Erremonte lanetan ibiliko direnak, komisario lanetarako behar izaten ditugunak… Horrez gain, Udala ere oso ondo portatu da gurekin, bai ekonomikoki eta baita eskatu diogun beste hainbat gauzatarako".

## Guraso eskolan parte hartzeko izen-ematea zabaldu dute

Urriaren 2a da azken eguna izena emateko; horretarako, kultura etxera joan edo bertara deitu beharko da

**I.B** ESKORIATZA

Hezkuntza Foroak antolatuta, bigarren urtez, guraso eskola martxan jarriko da Eskoriatzan. Nerea Mendizabal izango da eskolaren gidaria, psikopedagogoa, gizarte hezitzailea, haur masajean hezitzailea eta komunikazioan aditua. Izena emateko azken eguna urriaren 2a izango da, Eskoriatzako kultur etxean, –943 71 46 88–.

Hauek izango dira landuko diren gaietako batzuk: haurren autoestimua nola sustatu, mugak nola jarri, seme-alaben zeloak nola kudea daitezkeen aztertu, seme-alaben arteko borrokak nola ekidin…

Saio guztiak euskaraz izango dira, eta bakoitzak bi ordu iraungo du, 17:30etik 19:30era, hain zuzen ere. Kultura etxean izango dira. Guztira, hamabost plaza eskainiko dira, eta hauek dira ikasturte honetako datak: urriak 4, azaroak 8 eta 29, urtarrilak 10, otsailak 7, martxoak 7, apirilak 4, maiatzak 9 eta ekainak 6. Guraso eskolako urte osoko matrikulazioa 60 euro kostatzen da.

## Nerabeak eta droga kontsumoa: emaitzak, datorren astean

Aretxabaletako eta Eskoriatzako nerabeen substantzia kontsumoaren gaineko ikerketaren emaitzak aurkeztuko dituzte. Aretxabaletan irailaren 25ean izango da, 19:00etan, Arkupen. Eta Eskoriatzan irailaren 26an, Zaldibarren, 19:00etan.

Bigarren Hezkuntzako 2., 3. eta 4. mailetako eta UDA elkarteko nerabeen artean egin zen azterketa eta San Juan de Dios ospitaleak hartu zuen egitasmoa aurrera eramateko ardura. Orain, datuak gurasoekin partekatuko dituzte, eta bertara joateko izena eman beharko da. Aretxabaletan, Arkupera deituz; eta Eskoriatzan, posta elektronikoz: *gazteria@eskoriatza.eus*.



**Iaz, Gatzagako liburutegian ateratako talde argazkia.** IMANOL BELOKI

# Liburutegiak marrazki eta esaldi lehiaketa jarri du martxan

Urriaren 11 da lanak entregatzeko azkeneko eguna; Labidean edo liburutegian, hain zuzen ere

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Aurtengo irakur puntuko irudia eta esaldia aukeratzeko lehiaketa jarri du abian Gatzagako liburutegiak. Baldintza bakarra jarri dute antolatzaileek: Gatzagako herritarra izatea. Horrez gain, ez dago adin mugarik, eta marrazkiak 20x7 zentimetroko formatua izan beharko du. Esaldiarekin, berriz, liburutegiari gatza eta piperra emango dion leloa aurkitu nahi dute.

Lanak aurkezteko azken eguna urriaren 11 da, eta egun hori baino lehen Labidean egongo den buzoian edota liburutegian bertan entregatu beharko da, eta modu anonimoan. Marrazkia eta esaldia gutun-azal handi baten sartu beharko ditu parte hartzen duenak, eta barruan, norberaren datuak dituen beste gutun-azal txiki bat –izen abizenak eta telefonoa– sartu beharko da.

Norbanako bakoitzak nahi beste marrazki edo lelo aurkeztu ahalko izango ditu, eta bi sari izango dira: bat, esaldi onenari; eta bestea, marrazki onenari. Irabazlea, berriz, Bibliotekaren Egunean, urriaren 24an, jakinaraziko da. Informazio gehiago, lanak egiteko ereduak eta gutunazalak liburutegian izango dituztela jakinarazi dute.

**Berrikuntzekin datoz**

Astelehenetan 17:30etik 19:00etara zabaltzeaz gain, eguen goizetan ere zabalduko dute, 10:30etik 12:00etara. Baita hileko zapatuetan ere, 11:00etatik 13:00etara. Liburutegi Arteko Mailegu Zerbitzua eskaintzen ere hasiko dira. Horrela, herritarrek behar dituzten dokumentuak Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko edozein liburutegitik bertaratuko dituzte, eta herrian jaso ahalko dituzte.

## Bailarako irakasleek eta ikasleek bat egin dute Gatz Bidearekin

Eskoriatzatik Leintz Gatzagara dagoen PR-100, Gatz Bidea, arrakasta handia izaten ari da. Orain arte egin dutenen oso balorazio ona jaso dute bidea berreskuratu eta sustatzen ari diren gatzagarrek.

Andra Mari jaietan, Eskoriatzako eta Aretxabaletako 90 lagun inguruk egin zuten Gatz Bidea, eta orain, ikastetxeetakoak ari dira egiten. Irailaren 14an, Almen Ikastolako DBHko talde handi batek egin zuen txangoa –180 haur eta 10 irakasle–. Martitzen honetan, berriz, Kurtzebarri Eskolako hamar eta Luis Ezeiza Herri Eskolako hiru irakasle izan dira bidea ezagutzen, Gatzagako hiru herritarrek gidatuta (ikus argazkiak 44. orrialdean).

Horrez gainera, datorren astean Almen Ikastolako beste 200 bat umek egingo dutela jakinarazi dute.

# Kultura hazitegia, loratzearen zain

Aretoak bederatzi hilabete egin dituela aprobetxatu du GOIENAk orain arteko bidearen gaineko balorazioa eskatzeko: Gobernua oso pozik dago eta oposizioak ez du irakurketa onik egiten; 50 emanaldi eta 4.000 pertsona pasatu dira bertatik, 142 lagun emanaldiko

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Urtarrilaren 26an inauguratu zenetik bederatzi hilabete egin ditu Seminarixoa aretoak eta bada ordua lehen urratsen gaineko balorazioa egiteko. Bederatzi hilabete hauetan ia 4.000 lagun pasatu dira areto berritik, 142 ikusle, batez beste, emanaldiko. Ikusle kopuru hori erakartzeko 50 emanaldi izan dira: 19 kontzertu, helduendako lau antzezlan, umeendako bederatzi saio, hamalau hitzaldi, hiru dantza emanaldi eta bertso saio bat. Udal Gobernua oso pozik dago orain arteko ibilbidearekin.

Balorazio "oso positiboa" egiteaz gain, urritik abendura arteko programazioa ere aurkeztu zuten eguazteneko agerraldian eta iragarri dute irail bukaeran etxez etxe banatuko dela. Bergararrek protagonismoa izango dute eta kanpotik etorritako izen esanguratsu batzuk ere egongo dira. Bergararren artean, besteak beste, Aitor Borobiaren *Punkowsky* helduendako antzezlana eta Mikel Ibarzabalen *Katillukadak* umeendako ikuskizuna izango dira eta kanpoko artisten artean, adibidez, Izaro musikaria egongo da.



Maite Agirre eta Edurne Korta, Seminarixoko harmailetan, eguaztenean. J.BEREZIARTUA

### Kudeaketa, Kultura Zerbitzuak

Bestalde, Seminarixoa inauguratu aurretik aretoaren kudeaketaz kezka azaldu zuen herritar talde batek gaiaren inguruan "irekian" eztabaidatzeko asmoz bilera bat deitu zuen. Gobernuari bidali zioten deialdia eta herritar talde horrek "penaz" hartu zuen Gobernuko ordezkaririk bertaratu ez izana. Lehen bederatzi hilabeteak igaro ostean, "argi" du Gobernuak Seminarixoaren kudeaketa Udalarena izan behar dela: "Seminarixoa Kultura Zerbitzutik kudeatu behar dela argi dugu. Kultura batzordea horretarako ere badago sortuta, eta hara iristen diren eskakizunei erantzuten saiatzen gara", dio Maite Agirrek, Kultura zinegotziak. Agirrek gaineratu duenez, Kultura Zerbitzuan bi teknikari eta administrari bat daude gaur egun lanean eta ez dute aurreikusten baliabide pertsonal gehiago bideratzea areto berriaren programaziorako.

Hain justu, Kultura teknikari Edurne Kortaren arabera, oreka da Seminarixoko programazioa osatzerakoan aintzat hartzen den irizpide nagusietako bat: "Buruhauste batzuk eragiten dizkigu programazioa osatzeak... Adinari eta generoei dagokienez oreka mantentzen saiatzen gara. Lehen hiru hilabeteetan, gazteei zuzendutako ekintzetan hutsunea nabaritu genuen eta osatzen saiatu ginen. Hasiberriak gara Seminarixoarekin eta saiatuko gara aurrerantzean ere ahalik eta programazio osatuena egiten".

### Zinema ekipoa, urtarrilerako

Bestalde, pasatu dira hamalau urte Novedades aretoa itxi zenetik, eta ordutik Bergarak ez du zinema aretorik izan. Seminarixoa inauguratu aurretik gobernuak adierazi zuen zinema ekipoa aurtengo udazkenerako martxan egongo zela, baina atzeratu egingo da: *"Agur, Etxebeste* filma ziur Seminarixoan ikusi ahal izango dugula. Udazkenerako ez da egongo, horretan lanean ari gara. Gabonetarako edo urtarrilerako egongo da, ea Olentzerok ekartzen digun zinema Seminarixora...", gaineratu du Kultura zinegotziak.

## Urritik abendura, Seminarixoan

**Musika**
- Urriak 7 (13:00): Bergarako Txistulari Banda. Doan.
- Urriak 17 (19:30): Abesbatzak. Doan.
- Urriak 28 (12:30): Ekidazu abesbatza. Doan.
- Azaroak 9 (22:00): Izaro. Prezioa: 8 euro.
- Azaroak 17 (19:00): Tenpora. Prezioa: 8 euro.
- Azaroak 23 (20:00): Bittor Giral & Alejandro Mendoza. Doan.
- Abenduak 2 (19:00): Lurpekariak. Prezioa: 8 euro.
- Abenduak 15 (19:00): Mirian Moñux & Leire Ugarte. Doan.

**Haur ikuskizuna**
- Urriak 14 (12:00): *Kaput*. Prezioa: 4 euro.
- Azaroak 4 (18:00): *Drag-e*. Prezioa: 4 euro.
- Abenduak 26 (17:00): *Lau*. Prezioa: 4 euro.
- Abenduak 27 (17:00): *Kibubu*. Prezioa: 4 euro.
- Abenduak 28 (17:00): *Katillukadak*. Prezioa: 4 euro.

**Antzerkia**
- Urriak 16 (19:00): *Madonna*. Doan.
- Urriak 25 (20:00): Helduen Txotxongilo Mostra. Prezioa: 8 euro.
- Urriak 28 (20:00): Helduen Txotxongilo Mostra. Prezioa: 8 euro.
- Azaroak 16 (22:00): *Punkowsky*. Prezioa: 8 euro.
- Abenduak 1 (19:00): *Ergelak*. Prezioa: 8 euro.

**Antzerkia**
- Azaroak 25 (12:00): Gazteen dantza askatu txapelketa. Doan.

Hil bukaeran etxez etxe banatuko da egitaraua. Kultura zerbitzuak dio aldaketak izan daitezkeela ekitaldietan; bereziki, ordutegietan.

## Zer iritzi duzu orain arteko ibilbideaz?



**GORKA ARTOLA** EH BILDUKO ZINEGOTZIA

**"Lan handia da, eta baliabide pertsonal gehiago behar dira"**

"Programazioa oso motz gelditu da, hutsune osoa genero askotan. Sekulako aukerak eskaintzen ditu aretoak, baina ez da posible bultzada bat ematea kultura zerbitzura aretoa ireki aurreko baliabide ia berberak bideratzen badira. Halako areto bat ondo kudeatzeak lan handia dakar eta eredu horrekin jarraitzekotan baliabide pertsonal gehiago bideratu behar dira. Herritarrek kudeaketan parte hartu gura dute eta horretarako bideak aurkitu behar ditugu. Bestalde, zinema ekipoa martxan jartzeko atzerapena ezin da justifikatu".



**AIERT LIZARRALDE** IRABAZIKO ZINEGOTZIA

**"Programaziorako ez dituzte herritarrak kontuan hartu"**

"Programazioa Gobernuarena bakarrik da, herritarrak ez dituzte ezertarako kontuan hartu. Aretoak XXI. mendeko kudeaketa behar du, ez XX. mendekoa. Plurala, herrikoia eta komunitarioa. Gobernuari eskatu genion kudeaketaz kezka azaldu zuen taldearekin elkartzeko, baina ez ziguten kasurik egin. Aulkian eseri eta kultura kontsumitu baino gehiago, kultura egile izatea komeni zaigu, profesionalak eta zaleak elkarlanean jartzea. Seminarixoa ez da gure apustu bat izan sekula, beste partxe bat izango da Bergarako historian".



Zenbait kirol elkartetako eta Udaleko ordezkariak Agorrosinen, Kirola Kalera ekimenaren berri emateko agerraldian. BERGARAKO UDALA

# Modu osasuntsuagoan mugitzeko gonbidapena

Autorik Gabeko Egunaren barruan, herriko bederatzi kirol elkarterekin batera egun osorako egitaraua antolatu du Udalak biharko; kirol egokituak protagonismo berezia hartuko du, aukera egongo da-eta jolasaren bidez urritasuna dutenen rolean jartzeko

**Jokin Bereziartua** BERGARA
Mugikortasun Astearen barruan, bihar, irailak 22, Autorik Gabeko Eguna izango da Bergaran eta "herri aktiboa" izateko Udalaren apustuaren barruan askotariko ekintzak antolatu dituzte. "Udalean, osasuntsuagoa eta guztiontzat jasangarriagoa izango den bizimoduan sinisten dugu; eta helburu horretan bat egiten dute gurekin herriko hainbat taldek", adierazi du Kirol zinegotzi Igor Oiarbidek.

**Kirol kluben "jarrera aktiboa"**
Herriko bederatzi kirol elkartek hartu dute parte biharko egunaren antolakuntzan: Lokatza, Beti Busti, Hanka Labanka, Burdinola, Ariznoa, Xake taldea, Shotokan karate taldea eta Bergara Kirol Elkarteko eskubaloi eta saskibaloi sailak.

Elkarte horiekin kirola praktikatzeko eta kirol horien gainean gehiago ikasteko aukera egongo da bihar herriko hiru gunetan, eta, horretarako, hainbat puntutan autoen zirkulazioa eten egingo da. Kirola Kalera ekimeneko guneak izango dira Bideberri, Fraiskozuri eta Seminarioko patioa. Egun osorako plana antolatu du Udalak, kirol elkarteen laguntzarekin: 11:00etatik 14:00etara, karatea eta gimnasia erakustaldiak, kirol egokitua, irristaketa, patin-hockeya, txirrindularitza, piraguismoa, saskibaloia, eskubaloia, xakea eta puzgarriak izango dira. Arratsaldean, 16:00etatik 20:00etara, puzgarriak eta ume zein helduendako jolasak egongo dira. Udaleko Kirol Zerbitzuak nabarmendu du herriko taldeek parte hartzeko izan duten "jarrera irekia eta aktiboa".

**Kirol egokituaren protagonismoa**
Kirol egokituak protagonismo berezia izango du bihar. Haur, gazte zein heldu, urritasuna bizitzeko tartea izango dute herritarrek, esaterako, gurpil aulkian edo begiak estalita. Eslaloma, boccia eta bestelako kirolak probatu ahalko dira jolasen bidez. "Une batez, urritasunak dituzten pertsonen azalean jarriko dira herritarrak eta hausnarketarako tartea ere egongo da. Jolasaren bidez esperientzia berri bat izateko aukera!".




Peugeot Rifter berriak estilo dotore eta boteretsua eskaintzen dizu. Barrualde moderno eta teknologikoak, motor berritzaileek eta 8 martxako abiadura-kaxa automatiko berriak, esperientzia erabat berria bizitzera gonbidatzen zaituzte. PEUGEOT i-Cockpit®-ekin gidatze arinagoa eta instintiboagoa deskubrituko duzu, bolante konpaktua, Head-Up Display eta 20,32 cm-ko (8") ukipen-pantaila handiari esker. Sentitu ezazu kontrola errepidean eta goza ezazu motrizitate hoberako Advanced Grip Control-arekin. Konektatutako 3D nabigazioa, Mirror Screen funtzioa, Peugeot Connect zerbitzuak eta telefono mugikorrak indukzioz kargatzeko sistemari esker, Peugeot Rifter berriak konektagarritasun handia eskaintzen du. Eta puntako gidatze-laguntzekin gidatze seguruagoaz gozatuko duzu.

Peugeot Rifter berria: Kontsumo mistoa (l/100 km) 4,1-etik 5,7-ra arte. $CO_2$ emisioak (g/km) 109-tik 131-ra arte.

*Kanoa ez dago salgai. Sabaiko barrak hautazkoak dira.*

**ETORMOBIL BERGARA.** Olabarrena auzoa, z/g, 20570 Bergara Tlfnoa: 943 10 17 17 • www.etormobil.com
**ETORMOBIL EIBAR.** Otaola Etorb.,22 20600 Eibar Tlfnoa: 943 20 09 66 • www.etormobil.com
**ZIORLA AUTOAK.** Sana Maña 19 48215 Iurreta-Durango Tlfnoa: 946 21 71 30 • www.etormobil.com



Helduen danborradarekin batera irten zen japoniarren errepresentazioak 50 urte bete ditu aurten. ARGAZKIAK: GOIENA



Pello Garitanok omenaldia jaso zuen umeen danborradaren amaieran.

# Kaleak hartuta, giro "zoragarria"

Eguraldiak bete-betean lagundu du aurten eta herritarrek kaleak hartu dituzte, bereziki, helduen eta umeen danborradetan, Oxirondoko azokan eta gaueko zuzeneko kontzertuetan; Udalak adierazi duenez, ez da istripu edo eraso aipagarririk izan



San Martin Agirreren heriotza, plazan.



Bingoa, Xaxaukoen herri bazkarian.

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Azken urteetako giro eskasaren ondoren, aurten, eguraldia San Martin jaietako kolaboratzaile fina izan da eta hori igarri egin da kalean, egubakoitzean hasi eta domekara arte bergararrak kalera irten dira-eta askotariko ekitaldien gozatzera. "Azken hiru urteetan oso eguraldi txarra egin du eta aurten benetan disfrutatu dugu. Asteburu zoragarria izan da. Sekulako partaidetza izan dugu, bereziki, bi danborradetan, eta ez da istripurik edo erasorik izan. Jaietan ondo pasatu nahi dugu, bizikidetzan eta errespetuan oinarritutako harremanak sortu. Eta uste dut hori guztia lortu dugula aurtengo sanmartinetan", uste du Elena Lete alkateak.

Hirugarren urtez Oxirondon egin den azokan, Urtza Sarrionandiak irabazi zuen fruta lehiaketako sari bakarra; barazkietan, Eskubaratz sozietateak eraman zuen lehen saria; eta gaztarik onenaren saria La Leze gaztandegi arabarrarentzat izan zen.

**Muniben ere, "giro ederra"**

Xaxauren ustez ere "oso ondo" joan dira aurtengo sanmartinak. "Hiru egunetan egon da giroa. Egubakoitzean jende askotxo hurbildu zen kontzertuetara eta zapatuko herri bazkarian jendez bete genuen Munibe; gaueko ordu txikietara arte jende ugari egon zen. Domekan, modu inprobisatuan, Euskaraldiarekin lotutako bakarrizketa musikatu bat izan genuen, eta horra ere hurbildu zen jendea umeen danborradaren ostean".



Oxirondon egin zen zapatuko azoka; jende asko ibili zen goiz osoan.

Kabutzia
ARRANDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62



Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com
TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK
Amillaga 5, behea - BERGARA

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK
Proiektuak - Koltxoiak
Horma-armairuak
Altzariak neurrira
Ateak - Eskailerak -
Leihoak - Tarimak -
Egur lanak
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630
AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491
BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com
K21 KALITATEA

# "Burdin Aroko zeramika zati bat ere topatu dugu"

**IOSU ETXEZARRAGA** ARITZETAKO SAN MIGEL BASELIZAKO INDUSKETEN ZUZENDARIA

Indusketetako aurkikuntza nagusiak hauek izan dira: XV. mendeko ume baten hezurdura, Erdi Aroko ontzien arrastoak eta Burdin Aroko zeramika zati bat

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Bergararen 750. urteurrenaren bueltan kokatu behar dira Aritzeta auzoko San Migel baselizako indusketak. Urteurren guztiek atzera begiratzeko gonbita egiten dute, eta, zer hobeto, urteurren hori herriko historia hobeto ulertzea ahalbidetu dezaketen ekimenak sustatzea baino. Aurkikuntzen gainean egin du berba Iosu Etxezarragak.

**Zeintzuk izan dira indusketetako aurkikuntza aipagarrienak?**

Hilobi bat bilatzera joan ginen eta hilobi bat aurkitu dugu. Izan ere, eliza horren antzinakotasuna eta nortasuna aztertzeko garrantzitsua zen hildakoak topatzea, horrek esan gura duelako garai batean hilerri bat zegoela bertan. Eliza batean hilerri bat badago esan gura du garai batean herri baten erdigunea izan zela; hori aurkitzera gindoazen. Hilerri baten zati oso txiki bat topatu dugu, XV. mendeko ume baten hilobi bakarrarekin.

**Zergatik hilobi bakar bat?**

Ermita tontor baten dago eta litekeena da garai bateko hilerri horren ertz bat bakarrik aurkitu izana. Hilerriaren aztarnak hondatzen joan ziren ermitak jasan dituen aldaketen ondorioz, eta, hain justu, indusketei esker lortu dugu zehaztea garai haien nondik norakoak. Umearen hilobia elizatik kanpo egin zen eta gaur egun barruan dago; ume hori ehortzi ondoren ermita handitu egin zen, eta XVI. mendearen erdialdean berriz handitu zen.

**Beste ondorio aipagarririk?**

Indusketak ermita barruan eta kanpoan –bizilekua izango zena– egin ditugu, izan ere, halakoetan ohikoena izaten da eliza edo garai bateko nekropoliaren inguruan asko jakitea baina bizilekuaz gutxiago. Bizilekua izango zenaren tokian topatu ditugu Erdi Aroko ontziak, zelaian ikusten da orban bat orduko pieza batzuekin. Eta arrasto horien azpian Burdin Aroko zeramika zati bat ere agertu da.



Iosu Etxezarraga, Goiena telebistako *Hemen Debagoiena* saioan, martitzenean. GOIENA

**"ARKEOLOGIAK AGIRI BAKO GARAIETARAKO BALIO DUELA ESATEN DUTE BATZUEK, BAINA HORI EZ DA HORRELA"**

**Bergarak 1268an jaso zuen hiri-gutuna, baina badago lehenagoko arrastorik edo agiririk?**

Badago XI. mendeko agiri bat Bergarako Santxo izeneko pertsonaia batek bere lur batzuk –egungo Angiozar inguruan– Huescako San Juan De La Peñako monasterioari eman zizkionak. Donazio horiek egitea oso normala zen garai haietan, arrazoi erlijiosoengatik bereziki. Garai hartako Gipuzkoa eta Bergara ezagutzeko aukera ematen digute agiri horiek. Hortik aurrera, 200 bat urteko hutsunea daukagu. Aldi berean, badago Durangoko foruan beste aipamen bat XII. mende bukaerakoa dela dirudiena; aipatzen da bertako biztanleak bere jauntxoaren alde borrokatuko direla Elosuko gazteluraino bakarrik. Durangoko jauntxoak Elosuraino kontrolatzen zituen lurrak garai hartan, dirudienez. Kuriosoa da.

**Arkeologia paper artean ere egin beharra dagoela erakusten dute halako frogek?**

Euskal Herrian arkeologia historiaurrerako landu izan da betidanik. Gero, 1980eko hamarkadatik aurrera, Erromatar garaiari heldu zitzaion, eta, horrela, Erdi Arora heldu arte. Batzuek esan izan dute arkeologia balio duela dokumenturik ez dagoen garaietarako, eta hori ez da horrela. Zenbat eta informazio gehiago izan, hobe.



NIRE USTEZ

MAIALEN MADARIAGA

## Salda balego

Urteetan gordetako errezeta da Bergarako sanmartinetako feria. Kolorea, lur usaina eta txanpon hotsa. Jana soberan dago salda perfektu baterako, baina badakigu errezetaren osagaiak ez direla garai bateko berdinak. Nekazariei erosleak falta zaizkie eta erosleei gatza. Izan ere, zenbat dute feriek salmentatik, eta zenbat erakusketatik? Saltzen duten guztiak dira ekoizleak? Eta erosleak, zein azokatako erosleak dira gainontzeko egunetan?

Susmoa daukat feriak ez ote diren tabernak betetzeko aitzakia bihurtu. Han daude porruak, era guztietako belarrak eta gatzak. Geruzaz geruza bere baitan ezkutatzen diren tipulatxoak, eta berakatz ausartak. Eta oilaskoak. Sekretupeko aitorpenak beste behin ere esan gabe etxeratzen direnak. Haragi gisatua baino astunagoak direnak ere soberan.

Guztia bere neurrian orekatzea da errezetarik onena. Osagai guztien arteko orekatik sortzen da salda on bat. Baina salda falta da azoketan, eta salda onik ez dago kalean aspaldian. Guztioi dagokigu zein etxetakoa edan nahi dugun aukeratzea, osagaiak zaintzea, orekatzea, eta eltzean bero mantentzea.

OHARRAK

### Euskaraldia: izen-ematerako lokal berria

Euskaraldian izena emateko, informaziorako eta aholkularitza eskaintzeko, atzo ireki zuten lokala Barrenkaleko 10. zenbakian.

### Pol-Pol: Bergarako Bira eta batzar orokorra

Bergarako Biraren laugarren etapa egingo dute etzi, Bergara eta Elosu artean; 08:00etan irtengo dira, frontoitik. Bestalde, urteko batzar orokorra urriaren 3an egingo dute, 19:30ean.

### Mizpirualde egoitza: senideen eguna bihar

Mizpirualdeko egoiliar, langile eta senideek ospakizun eguna izango dute bihar, 17:00etan. Bergarako Musika Eskolari omenaldi txiki bat egingo diote; musika eta luntxa egongo dira.

### Osintxuko Kofraixak: zozketako irabazlea

Jose Ramon Labaka osintxuarrak irabazi du Errioxara irteera.

### 1942an eta 1955ean jaiotakoen ospakizuna

1942koek urriaren 6an bazkalduko dute Lasa jatetxean eta urriaren 1erako eman behar da izena. 1955ekoak Errioxara joango dira urriaren 6an; izena emateko edo argibide gehiago jasotzeko honako telefono zenbaki honetara deitu: 646 16 62 03.

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

MINDFULNESS
meditazio taldea
AUTOEZAGUTZA MEDITAZIOA
Astero astearteetan
19:00etatik 20:00etara
Informazio gehiago:
Felix (652 77 15 83)

MINDFULNESS
ikastaroa
AUTOEZAGUTZA MEDITAZIOA
8 astez larunbatetan
Hasiera eguna: urriak 6
10:00etatik 12:30era
Informazio gehiago:
Felix (652 77 15 83)




Senior mailako taldea, San Martin plazako agertokian, zapatuan, denboraldi berriaren aurkezpenean. IMANOL SORIANO

# Senior mailan ere taldea izango du Soraluce BKEk

Jaien barruan egindako aurkezpenean, nobedade nagusia izan zen emakumezkoetan senior mailako taldea izango duela Bergarak aurten; saskibaloi eskola ere aintzat hartuta, aurten, 150 neska-mutiko inguru arituko dira Labegaraietako kantxan

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Joan den zapatuan, San Martin jaietako zurrunbiloaren erdian, aurkeztu zituen BKEko saskibaloi sailak denboraldi berrira begirako taldeak. Bederatzi talderekin abiatuko dute 2018-2019 denboraldia; emakumezkoetan lau talde izango dira, eta hor dago, hain justu, aurtengo nobedade nagusia: infantilez, kadeteez eta juniorrez gain, aurten lehenengoz Soraluce BKEk taldea izango du-eta senior mailan. "Oso albiste pozgarria da hori, klubeko neskendako talde erreferente bat egongo delako maila gorenean", adierazi du Soraluce BKEko arduradun Marian Melladok.

**Aspaldiko nahia bete dute**

Ez da berria senior mailako emakumezkoen taldea ateratzeko nahia: "Adinean aurrera egin ahala, ikasketengatik-eta ohikoa zen neskek saskibaloia uztea; orain, azkenean, taldea osatzea lortu dugu".

**Bost talde gizonezkoetan**

Gizonezkoetan, berriz, bost talde izango dira: hiru talde infantiletan, juniorretan bat eta senior mailan beste bat. Saskibaloi eskola ere aintzat hartuta, guztira, 150 bat neska-mutiko arituko dira denboraldi honetan Labegaraietako kiroldegiko kantxan saskibaloiaz gozatzen.

Gizonezkoetako seniorrak territorialeko bigarren mailan egongo dira, eta, Melladok aurreratu duenez, goiko postuetan aritzea izango da aurtengo helburua: "Iaz, igoera fasea jokatzetik oso gertu egon ginen eta ea aurten fase horretara sailkatzeko gai garen. Uste dut taldea badagoela territorialeko lehen mailan jokatzeko".

Joan den asteburuan abiatu zuten liga eta lehen partiduan galdu egin zuten Ordiziaren aurka (48-43). Lehen porrotari buelta eman gurako diote, etxeko lehen partidua irabazita; bihar jokatuko dute, Irungo Erroibideren aurka (Labegaraieta, 16:00).

## Pilotak abiatu du denboraldia

Pilota saila martxan da dagoeneko eta gaur Gipuzkoako txapelketako partidu bat izango dute Udal Pilotalekuan (19:30). Gazte mailako Mikel Etxezarreta eta Aimar Marquez Azpeitiko bi pilotariren aurka arituko dira.

Pilota Sailak nobedade aipagarri batekin ekin dio denboraldiari. Izan ere, betiko zuzendaritzari erreleboa hartu dio gaztez osatutako talde batek: Iker Muruamendiaraz, Aitor Muruamendiaraz, Ander Muruamendiaraz, Eloy Crespo, Jon Larrañaga, Beñat Iñarra, Aritz Rezusta, Gorka Irizar, Julen Aranburu, Aitor Oregi eta Mikel Gallastegi.

# Euskaraldiaz jakiteko eta izena emateko lokal berria ireki dugu

Ikasturte berriari begirako eskaintza gertu dugu: tartean, umeentzako eta helduentzako bertso eta antzerki eskolak

**Goiena komunitatea**
Jardun euskara elkartea / BERGARA

Ikasturte berria topera hasi dugu. Jakingo duzuenez, Euskaraldiak badu lokal propioa Bergaran; atzo ireki genuen, Barrenkaleko 10. zenbakian, herritarrei informazio-saioak eta aholkularitza eskaintzeko. Atzo ireki zen Euskaraldian izena emateko epea eta bergararrei parte hartzera deitzen zaituztegu. Animatu eta izan *ahobizi* edo *belarriprest!*

Bestalde, dagoeneko prest daukagu ikasturte berrirako eskaintza. Ikasturte osorako, asteburuko aisialdi eskaintzaz gain, umeentzako zein helduentzako bertso eta antzerki eskoletarako izen-emateak zabalik daude. Horrez gain, Udalarenak diren honako proiektu hauek kudeatuko ditugu ikasturte honetan ere: ludotekak, euskara errefortzuak, Berriketan eta Auzoko ekimenak. Eta urteroko ekintzekin jarraituko dugu: Domeketan Familian, Amodiozko Gutunen Lehiaketa, Idazlaguna, txorimalo erakusketa...

**Bertso eta antzerki eskolak**

Ikasturte osorako ekimenen barruan, umeentzako eta helduentzako bertso eta antzerki eskolak urrian abiatuko dira. Aurtengo nobedade nagusia da umeentzako bertso eskoletan bi talde egingo direla aurten, adinaren arabera. Izan ere, azken urteetan, herriko hiru ikastetxeetan bertsolaritza lantzen ari dira eta hori nabarmen igarri da izen-ematean.

Ume zein heldu, hiru bide daude bertso edo antzerki eskoletan izena emateko: Errotalde jauregian dugun egoitzara etorrita, 943 76 36 61 edo 605 71 24 69 telefono zenbakietara deituta eta *jardunkultura@topagunea.com* helbide elektronikora idatzita.



*Ahobizi* eta *Belarriprest*, Barrenkaleko 10. zenbakian atzo ireki zen lokalean. O.ELORZA

## 'Ikasgaia' antzezlana ikusteko aukera bihar Seminarixoan (19:00)

Bihotz Taupada taldearen *Ikasgaia* antzezlana ikusteko aukera egongo da bihar, hilak 22, Seminarixoa aretoan (19:00). Irakasle baten eta ikasle baten arteko harreman menperatzailearen karikatura izango da obraren abiapuntu nagusia. Sara Iriondo izango da ikaslea eta Jon Olivares osintxuarrak hartuko du irakaslearen papera.

## OHARRAK

**Taila: ikasturte berria**

Izena emateko taila eskolatik pasatu, 18:00etatik 20:00etara (Zabalotegi behea, 11).

**Beart: erakusketa**

Galeries des Corsaires-eko pinturak Aroztegin, gaur hasi eta urriaren 7ra arte.

**Laino: erakusketa**

Juanmi Caballeroren zuri-beltzeko argazkien erakusketa.



Irumendi kooperatibako behiak larrean. MAIDER ARREGI

# Herri lurrak, nekazaritza ustiapenerako esleituta

Pikunieta baserriarekin eta Irumendi Kooperatibarekin adostasuna lortu ostean, 15 urterako errentan izango dituzte Gorla inguruko herri lurrak. Horrez gain, Euskaraldiarekin bat egitea onartu dute martitzeneko osoko bilkuran, aho batez

**Maider Arregi** ANTZUOLA

Martitzenean egin zuten ikasturte berriko lehen ohiko osoko bilkura. Herri onurako mendiko lurren errentamendua baimendu eta esleitzea onartu zuten aho batez. Hala, Gorlazuri, Azkue-Aitzbakar eta Itxumendiko lurrak 15 urterako errentan izango dituzte Pikunieta baserriak eta Irumendi Kooperatibak. "Enkantera atera beharrean, interesa zuten herritarrei alokatu gura izan dizkiegu herri lurrak", azaldu du Beñardo Kortabarriak, Antzuolako alkateak.

Eta esleipenak baserritarren onarpena ere badu. Izan ere, behiekin eta ardiekin Gorla inguruan, nor bere ereduarekin dabil lanean, eta adostasuna lortzeko denbora behar izan du Antzuolako Udalak. "Inguru horretan animaliekin lanean eurak ari dira; batzuk modu tradizionalean behiekin; beste batzuk, modu ekologikoan ardiekin. Aukera biei eman gura genien, eta dauzkagun lurrak bien artean banatu. Akordioa ez da erraza izan, luze jo du, ereduak ezberdinak direlako, baina adostasuna lortu dugu", gaineratu du alkateak.

### Eskolako obra, abenduan

Eskola handitzeko lanak ere hastear daude eta baimen legal guztiak amaitzeko azken arau subsidiarioaren aldaketa onartu zuten. "Eskolaren berezitasuna da alde zaharrean sartua dagoela. Eta Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Berezia kontuan hartu behar dugu, noski. Orain onartu dugun aldaketak horri eragiten dio, hain zuzen ere", argitu du Kortabarriak.

Eskola handitzeko lehen lanekin abenduan hasiko dira; Gabonetako oporrak aprobetxatuz. Aurrefabrikatutako gelak tokiz aldatuko dituzte, eta patioko aparkalekuan jarri. Otsailean jarraituko luke handitze lanak.

**HERRI ESKOLA HANDITZEKO LEHEN LANAK GABONETAKO OPORRETAN HASIKO DITUZTE**

### Euskaraldia

Bestalde, aho batez onartu zuten udal ordezkari guztiek Euskaraldiarekin bat egitea Antzuolan. Hala, ondorengo asteetan aurkeztuko dituzte herriko *ahobizi*-ak –euskaraz egiteko prest– eta *belarriprest*-ak –euskaraz entzuteko prest–. "Hamaika egunez ohiturak aldatu gura ditugu eta posible dela erakutsi. Bakoitzak zein rol duen, hau da, *ahobizi* edo *belarriprest* den azalduz, herritarrak Euskaraldian murgildu gura ditugu", kontatu zuen Euskara zinegotzi Jon Ugarteburuk.

Orain, hamaikakoa osatzen dihardute eta laster aurkeztuko dutela gaineratu zuen Jon Ugarteburu zinegotziak. Rol bakoitzaren txapak ere banatuko dituzte.



MAIDER ARREGI

## Ikasleek errekorra hautsi dute!

4. mailako gaztetxoek *errekorra* hautsi dute ikasturte bukaerako lanarekin. Picassoren *Gernika* baino lan handiagoa egin eta eskolan ikusgai jarria dute. Irudi geometrikoekin osatu dute eta eskola osoaren parte hartzea du. "Koadrikulen metodoaren bitartez egindako lana da eta kalkulu asko egin ditugu. Hilabete eta erdiko lana izan da", diote ikasleek.

## EH Bilduk alkategaia aukeratzeko prozesua egingo du urrian

EH Bilduk datozen asteetan egingo du 2019ko udal hauteskundeetarako alkategaia hautatzeko prozesua. "Egutegi zehatzagoaren berri laster emango badugu ere, urriaren bigarren astean izango da EH Bilduko alkategairako hautagaiak aurkezteko tartea". Azaro amaierarako alkategaia hautatuta edukitzea dela asmoa diote.

## Nagusien ibilbide osasungarriei aitortza Eusko Jaurlaritzak

Euskadi Lagunkoia programaren baitan Landatxopek eta Antzuolako Udalak abian jarritako ibilbide osasungarrien ekimena saritu du Eusko Jaurlaritzak. Nagusien osasuna ez ezik, herriko irisgarritasuna eta erosotasuna edo garraio publikoa ere jasotzen ditu ekimenak. Horixe bera ere balioan jarri du Beatriz Artolazabal kontseilariak.

## Eskulan ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago

Koadroak margotu, gauzak zaharberritu, egurra margotu... Edurne Uribesalgo irakaslearen ikastaroetarako izena eman daiteke irailaren 28ra arte. Eskulan ikastaroan izena eman nahi dutenak udaletxera joan daitezke.

Lehenengo mailatik DBHko 2. mailara arteko ume zein gazteek bi egun izango dituzte aukeran: eguaztena (17:00-18:00) eta eguena (16:45-17:45). Bi txanda antolatu dituzte, lehena urritik otsailera izango da eta bigarrena, martxotik ekainera. Txandaren batean 9 ume baino gehiago egonez gero, zozketa egingo da. Hileroko kuota 12 euro da.

Helduek eguenetan izango dute ikastaroa eta bi ordutegi egongo dira: 14:45-16:30 eta 18:00-19:45. Ikasturte hasiera urrian izango da eta ekainaren 21ean amaituko da. Kasu horretan, hileko kuota 24 euro da.

# Etxeko produktuak plazan saltzeko eguna

Bihar, zapatua, azoka izango da Mendizaleen Plazan. Hamahiru postutik gora espero dira, eta frutak, barazkiak, gozoak edo artisau lanak eskainiko dituzte gehienetan. Intxortako igoera 11:00etan jokatuko da eta antzerkia egongo da 18:00etan

**Larraitz Zeberio** ELGETA
Irene Bolinaga, Rosa Unzetabarrenetxea, Sebastian Arantzeta, eta Jose Antonio Ojanguren izango dira frutak eta barazkiak saltzen. Artisau lanekin, berriz, Pili Arin, Sonia Miranda eta Lorena Ibeas izango dira plazan. Zortzi postu horiez gain, herriko ortu parkeko erabiltzaileek erakusketa ipiniko dute, marokoar gozoekin bi mahai egongo dira eta Igor Hercek burdin lanketaren inguruko erakustaldia egingo du. Seigarren mailako ikasleek gozoak salduko dituzte, Emakume taldeak baserriko emakumeen lanari buruzko argazki erakusketa ipiniko du eta liburutegiak baserriari buruzko liburuak aterako ditu kalera. Izen-emate mahaiak ere egongo dira plazan; hain zuzen ere, Euskaraldia zein Elgetan Berbetan mintzalagun egitasmoetako ordezkarien eskutik.

"Aurrekoetan baino baserritar gutxiago izango dira aurten azokan", azaldu du Sebastian Arantzabal batzordeburuak. "Udaberri euritsua izan dugu, eta genero asko ez da behar moduan irten. Tomate eta letxuga gutxi izango dira eta udazkeneko generoa izango da, gehienbat: porrua, aza, brokolia, azalorea... patata eta babarruna ere bai".


Jose Antonio Ojanguren, azokan produktuak saltzen, duela bi urte. L.Z.

**UDABERRI EURITSUAK ERAGINA IZAN DU ETA AZOKAN UDAZKENEKO PRODUKTUAK IZANGO DIRA, GEHIENBAT**

Eguraldi ona egiten badu, *slackline* oreka jolasak izango dira eta Intxortako igoera 11:00etatik aurrera jokatuko da. Sari banaketa eta bertako produktuekin osatutako otarrearen zozketa 13:00etan izango da.

**Parekidetasuna sarietan**
Aurrekoetan bezala, hiru kategoria izango dira: 12 urtera artekoak, 12-16 urte artekoak eta 16 urtetik gorakoak. Txikienek Salbadorrera egingo dute joan-etorria.

Parekidetasuna izango da sarietan kategoria guztietan, eta sari berezi bi izango dira aurten. Orain arteko markarik onenak Eleder Lozanok (16.14) eta Elena Elkorok (27.15) egin dituzte. Hobetuko balira, 60 euroko sari berezi bi iragarri ditu Elgetako Udalak.

## 'Tarantale' kale antzerkia, 18:00etan

Ikusle guztiendako umorezko ikuskizuna da Xilipurdi taldeak plazan eskainiko duena. Hiru bufoik Erdi Aroko kontuak ekarriko dituzte. Zaldunen arteko torneo bat, printzesa baten ezkontza, tarantula baten ziztadak sendatzeko herri dantzak... Parodia izango da nagusi. Ikusleei gomendatzen zaie edozertarako prest agertzeko.


*Tarantela* kale ikuskizunaren emanaldi bat. XILIPURDI TALDEA

# Karim magoak senar-emazteen arteko komeriak ekarriko ditu

Kultur Hiru taldeak Espaloia kafe antzokian antolatutako lehenengo ikuskizuna gaur izango da, 22:30ean

**L.Z.** ELGETA
Magiak eta umoreak bat egingo dute Karim magoaren *Solo para adultos* ikuskizunean. Kultur Hiru taldeak Espaloia kafe antzokian egiten duen lehenengo proposamena da.

Mago asturiarrak punta aterako die egunerokoan senar-emazteen artean gertatzen direnei. "Maitasun istorioak irribarre batekin hasten dira, baina gero, zer gertatzen da?", galdetzen dio bere buruari. Ikuskizuna publiko helduarendako da eta ordu eta laurden iraungo du. "Izan ezkondua edo ezkongabea, gurasoa edo ez, magiazalea edo eszeptikoa... etorri, ez zara damutuko!", adierazi du.

Sarrerak salgai daude Elgetako El Rincon de Lola tabernan eta Maialde hotelean, 10 eurotan. Leihatilan, berriz, 12 eurotan salduko dituzte.


Karim magoa. MAGOKARIM.COM

**Kultur Hiru taldearen hasiera**
Kultur Hiru taldeko kideek hasiera batean hiru hilabete iraungo duen akordioa sinatu dute Elgetako Udalarekin hilean ekintza bat antolatzeko. Uztailean sinatu zuten akordioa. Oraingoa da lehen ikuskizuna.

## Hiru adin tarterako ipuin saioak gaur, liburutegian

*Ipuinen ordua* egitasmoak gaur izango du ikasturte berriko lehen saioa. Berrikuntzak ere izango ditu; izan ere, hogei minutuko hiru saio egingo dituzte aurrerantzean. 17:00etan hasiko da 8 urteko gelatik aurrerakoendakoa; 17:30ean 5 urteko gelatik gorakoendakoa; eta 18:00etan 2-3 urtetik aurrerako neska-mutikoendako izango dena. "Etortzen hasi ziren haurrak haziz doaz eta orain arte eskaintzen genituen bi saioetan adin batetik aurrerakoek ez zuten dagoeneko euren lekua aurkitzen", azaldu du liburutegiko arduradun Geaxi Ezpeletak.

Boluntarioak dira ipuin kontalari lanak egiten dituztenak, eta eskaintza egokitzeko erabakia hartu dute. "Saioak laburragoak izan arren, adin tarte zabalago batendako eskaintza bermatzeak dinamika aberasten duela uste dugu".

## Erdi Aroko bisita gidatuan parte hartu dutenei eskerrak

Boluntario talde batekin egin zuten Erdi Aroan girotutako bisita gidatua hilaren 8an. "Eskerrik asko modu batean edo bestean parte hartu duten guztiei", adierazi dute antolatzaileek. "Aktore lanak egin dituztenak, gidoiarekin, jantziekin edo soinuarekin lagundu dutenak... Eskerrak baita ere bisita egitera etorri ziren guztiei".

## OHARRAK

### Odol-ateratzeak
Astelehenean, 40 bat lagunek eman zuten odola Elgetan.

### Ate irekiak ludotekan
Gaur, barikua, ate irekiak 16:00etatik 19:00etara.

### Domekan irteera
Kantsatzeke mendi taldeak irteera antolatu du Ganbo tontorrera, herritik 08:00etan abiatuta.

EUSKARALDIA



Kike Amonarriz, martitzenean, Elgetako udaletxeko areto nagusian hitzaldia egiten. L.Z.



Herritarrak Amonarrizen berbaldia adi jarraitzen. L.Z.

# "Elgetako egoera leku gutxitan gertatzen da"

Euskaraldia batzordearen eskutik herrian izan zen, martitzenean, Kike Amonarriz soziolinguista eta aurkezle tolosarra. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean egitekoa den hizkuntza ariketaren inguruneaz egin zuen berba, eta argi hitz egin zuen

**L.Z.** ELGETA

Euskaraldia euskaraz gehiago egiteko egitasmo praktiko bat dela esan zuen Amonarrizek hasieratik. "Munduan zazpi bat mila hizkuntza daude, eta euskarak milioi bat hiztun inguru ditu. Hitz egiten diren munduko 700 hizkuntzen artean dago. Ez gara erraldoiak, baina txikitxikiak ere ez", esan zuen.

Tolosarrak gaineratu zuen munduko bi hizkuntza erraldoiek inguratzen dutela euskara eta presio handia egiten dutela. "Gainera, historikoki esan digute txikiak garela, eta sinistu egin dugu. Euskara desagertu ez bada, gutxiengo militantzia oso aktiboa egon delako izan da". Semaforo gorriak ere badaude, ordea. Egindako neurketek erakusten dute aspaldiko ezagutza mailarik handiena dugun honetan, erabilera behera egiten ari dela. "Edo neurriak hartzen ditugu edo auskalo hogei urte barru non gauden!".

### Egoera "oso polita" Elgetan

Elgetako datuetara etorrita, Amonarrizek nabarmendu zuen euskara ulertzen duela herrian hamar biztanletik zortzik edo bederatzik. "Leku gutxitan gertatzen da hori. Elgetan lortzen ez dena ez da Tafallan lortuko", esan zuen. "Euskaraldiak ariketa kolektibo bat proposatzen du eta adostasun soziopolitiko zabala du. Hau da aukera eta ezin dugu galdu!", esan zuen. "Hizkuntza ohituretan eragitea du helburu Euskaraldiak eta egin behar du pedagogia sozial handia. Parekoak hitz erdi esaten badigu gazteleraz, automatikoki pasatzen gara hizkuntza horretara. Amaitu egin behar dugu ideia horrekin. Elkarrizketek ez dute zertan izan edo euskaraz edo erdaraz. Planteatzen ari garena elkarbizitza linguistikoa da eta Euskaraldia ariketa esplizitu bat izango da bide horretan. Nola funtzionatu nahi dugun esatera goaz". Amonarrizek argi du helburua ez dela inor euskaraz hitz egitera behartzea. "Baina legitimoa da haiek gu erdaraz hitz egitera ez behartzea. Hizkuntza berdintasuna egongo bada, euskara gutxienez ulertu egin behar dute guztiek".

Belaunaldi honek erantzukizun handia duela esan zuen. "Euskaldun izatea da euskaraz egitea, eta hizkuntza transmisiorako baldintzak sortzea dagokigu".

Gaineratu zuen Euskaraldiak ez dituela gauza guztiak konponduko, baina praktika koherentea aldarrikatu zuen eta euskara ikasten dihardueen jende asko dagoela horren zain.

**KALEKO ETA ETXEKO HIZKUNTZA OHITURETAN ERAGITEKO DA EUSKARALDIA**

## Aldagelak berritu eta gurpil aulkiendako egokitu dituzte

Kiroldegian amaitzear daude lanak eta hilerriko hormako obra ere azken txanpan dela esan du alkateak

**L.Z.** ELGETA

Kokapena eta distribuzioa berdinak dira, baina azuleju berriak ipini dituzte lurrean eta hormetan eta komuneko altzariak berritu egin dituzte. "Hori egiten ari ginela erabaki genuen kanpotik zihoan ur hoditeria barrutik ipintzea eta dutxa-telefonoak ere berritzea", azaldu du Iraitz Lazkano alkateak.

Emakumeen aldagelan, bestetik, egokitu egin dute komuna, eta aurretik garbigailuaren gelazen espazioan dutxa egokitu bat ipini dute.

### Hilerriko horma amaitzen

Lazkanok jakinarazi du hilerriko hormako lanak ere azken txanpan direla. "Harria jartzen ari dira goiko aldean. Laster amaituko dute".

Uda partean beste hainbat lan egin ditu Udalak herrian. Skate parkea berritu egin dute, argiteria publikoa LED sistemara egokitu eta eskolako ganbarako hormak txukundu.



Aldagela berritua, kiroldegian. L.Z.

# Datozen hiru asteburuak hartuko dituzte jaiek

Egitarauak ohiko egitura du, baina Euskal Herriko sagardo txapelketako kanporaketa eta trialsin eta magia ikuskizunak berritasunak dira aurten. Sexu erasoei dagokienez, zabalik egongo da Beldur Barik Gunea eta 'zero tolerantzia' izango da

**Oihana Elortza** OÑATI

Danborradak, Kuadrillen Eguna, herri bazkariak, animalia erakusketak, artisau azoka, argazki erakusketa, presoen aldeko ekitaldiak, sokamuturrak, herri antzerkia, barrakak, kirol txapelketak eta zuzeneko musika kontzertuak egongo dira aurten ere, besteak beste, herriko jai nagusietan. Ohiko ekitaldiez gain, baina, txantxikuaren jaitsiera aurretik plazan egingo den trialsin ikuskizuna, San Migel eguneko magia emanaldia eta gaur egingo den sagardo txapelketako kanporaketa proba ere egingo dira.



Soraluze, Zubia eta Meabebasterretxea, jaietako zapiarekin eta egitarauarekin. G.O.

**Agertokiak**

Espazioei dagokienez, Atzeko kaleko agertokia, plazakoa eta txosnetakoa izango dira taula nagusiak, baina, jaiak herriko eremu ezberdinetara zabaltzeko asmoari jarraiki, Bidebarrietako plazan eta Olaitturrin, esaterako, antolatu dituzte ekintzak aurten ere. Musikari dagokionez, Gatibu izango da talde izarra; hilaren 29an eskainiko du kontzertua, plazan. Atzeko kaleko oholtzari aipamen berezia egin gura izan dio Kultura Sailak, emakumeen agertokia bihurtzen ari da eta. Gerora arrastoa uzten ari diren emakume musikariak igaro dira, gainera, bertatik; Izaro eta Iseo dira horren adibide. San Migel egunean, 19:30ean, The Mani-las talde madrildarrak joko du. Aurten, baina, ez da txosnarik egongo, ez da-eta inor aurkeztu txosna kudeatzeko asmoarekin. Berdina gertatu da Herri Eguneko herri bazkaria zerbitzatzeko egindako deialdiarekin ere, eta lan hori bazkaria eroango duen *catering* enpresak egingo du.

**Eragileekin**

Sexu erasoei dagokienez, zabalik egongo da Beldur Barik Gunea eta *zero tolerantzia* izango da. Sokamutur ekitaldietan segurtasun arauak errespetatzea eskatu dute; eta berdin bi urteko etenaren ondoren urriaren 7an, Errosario Egunean, egingo den su ikuskizunean ere.

San Migel eta Errosario jaien aurrekontua 201.462,54 eurokoa da. Udal ordezkarien esanetan, herriko eragile askoren laguntzarekin osatu dute egitaraua, eta adin eta gustu guztiak asetzea izan dute helburu.

## Sagardoa, danborrak eta txakurrak

Gaur, egubakoitza, sagardo dastatze berezia egongo da Larraingain elkartean. Berezia izango da, Euskal Herriko sagardo elkarteak antolatu duen txapelketako proba izango delako. Bost saio antolatu ditu eta hirugarrena izango da Oñatikoa. Euskal Herriko sagardogile profesionalei zuzendutako txapelketa da. 41ek hartuko dute parte eta finalaurreko bakoitzean hamar bat sagardo dastatuko dituzte. Saio itsuak izango da eta bertaratzen direnek ez dute jakingo zein sagardotegitako edariak dastatuko dituzten. 20:00etan hasiko da.

Zapatuko haurren danborradan 230 ume inguruk hartuko dute parte. 18:00etan abiatuko da Santa Marina plazatik eta ohiko ibilbidea egin ondoren Foruen plazan bukatuko da. Umeek 17:00etarako egon beharko dute irteera puntuan. Aurten ez da karrozarik egongo baina antolatzaileek dei egin dute herriko ume zein gurasoak mozorrotuta parte hartzeko danborradan. Aurtengo mozorroak izango dira: indiarrena eta cowboyena.

Domekan, Nazioarteko Artzain Txakurren Txapelketa egingo da Santa Lutziako zelaian. Hego eta Ipar Euskal Herriko, Kataluniako, Castelloko, Mallorcako eta Frantziako txakurrak lehiatuko dira. Horien artean, Jose Mari Bengoa oñatiarraren *Eder*. Txapelketa 10:30ean da eta 12 urtetik gorakoendako sarrera hiru euro da.

## 'Orain presoak' ekimenarekin bat egin dute EH Bilduk eta EAJk

Irailaren 29an Foruen plazan egingo den ekitaldian parte hartzeko dei egiten dute alderdi biek

**O.E.** OÑATI

*Orain presoak* ekimenak egiten duen adierazpenarekin bat egin eta San Migel egunean, irailak 29, 19:00etan, herriko plazan egingo den ekitaldian parte hartzeko dei egin dute udalbatza osatzen duten alderdi biek. Hain zuzen ere, EH Bilduk eta EAJk adostutako erakunde adierazpenean jaso dute erabaki hori. Alderdi biek sinatutako testuan diote euren ekarpena egin gura diotela egoera berriari: "*Orain presoak* dinamikaren baitan antolatu eta batu garenok ETA-ren disoluzioaren ostean ireki den garai berria probestu eta aspaldidanik espero dugun aldaketa gauzatu dadin gure hondar alea jarri nahi dugu. Bakerantz eta elkarbizitzarantz eramango gaituen aldaketaz ari gara".

Presoen auziari "irtenbidea" eman gura diote eta uste dute "aldaketa horren oinarriak ezartzeko unea" dela. Hala, herritarrak gonbidatzen dituzte 29ko ekitaldian parte hartzera: "Gurekin batera bakearen eta elkarbizitzaren norantzan ekitera".

## Azken ekarpenak jasoko ditu EH Bilduk biharko bileran

Aurreko ikasturtean hasi zen EH Bildu *Harittu* prozesua lantzen, "EH Bilduko komunitatea osatzen joateko eta Oñatiren etorkizunerako herri proiektua marrazten joateko helburuarekin". Ordutik hona hamarnaka eragile eta norbanakorekin hitz egiteko eta iritziak trukatzeko aukera izan dutela diote eta "herriaren argazki nahiko osatua" lortu dutela. Herriaren diagnosia borobiltzeko, baina, tailerrak egingo dituzte zapatuan, gaztelekuan, 10:00etan. Bi helburu izango ditu bilera ireki horrek: egindako diagnostikoa herritarrekin partekatzea eta oraindik parte hartu ezin izan dutenek beren ekarpena egitea. Gai askoren inguruko ekarpenak jaso gura dituzte.

Bilera horrekin, amaiera emango diote diagnosi faseari eta ekintza plana zehazteko etapa abiatuko dute.




ENEKO AZURMENDI

## Ikastetxera elkarrekin joateko

Mugikortasun Astearen barruan, bi egitasmo egin dituzte Udalak eta hiru ikastetxeek elkarrekin: ikastetxe aurreko espazioak jolaserako erabili eta *juntalekuak* aurkeztu. Eskolako Bidea egitasmoaren baitan kokatzen da bigarren hori. Ikasleak ikastetxera oinez, patinetean edota bizikletan joatea sustatu gura da; elkartzeko hamalau gune izango dituzte aurrerantzean.



Astelehen arratsaldean aurkeztu zuten Bidali zerbitzua, Olaburun. A.T.

# Mezularitza urgenterako zerbitzua du Bidebarrik

Zubillagako Olaburu industrialdean du bulegoa Bidalik eta zerbitzua erabili gura duenak hara jo behar du. Dagoeneko zazpi lagun ari dira lanean, lau furgoneta dituzte eta Debagoiena, Urola eta Goierri bailaretako eskaerei erantzuten diete

**Oihana Elortza** OÑATI

Oñatin, mezularitza urgentea eskainiko duen lehen ordezkaritza izango da Bidebarrik aurkeztu duen Bidali mezularitza zerbitzua. TIPSA enpresarekin batera jarri du martxan eta dagoeneko zazpi pertsonako egitura osatu dute. Lan merkatu arruntean txertatzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak laneratzea du helburu zerbitzu berriak ere.

### Laneratzea

Aktibitate berria martxan jartzeak, biltegien alorrera bideratutako prestakuntzarekin batera, bai mezularitzan, biltegien edota banaketen alorrean profesionalak prestatzeko aukera ematen du, eta interesgarria iruditzen zaie hori Bidebarrikoei."Laneratze lanpostuak daude bertan, eta horrekin zera lortu nahi dugu, gizarteratze prozesuak indartzea euren helburua gauzatzeko: lan merkatu arruntean txertatzea. Hemen, Lanbidetik, gizarte zerbitzuetatik edota Caritas-etik bideratutako jendea jasoko genuke, eta, lanpostu bat emateaz gain, formazio batekin batera nahi da euren enplegugarritasuna hobetzea, lan merkatu arruntean txertatu ahal izateko", azaldu du Bidebarri enpresako zuzendariak, Jon Igartuak.

### Bezeroak

Dagoeneko, gainera, hasiak dira zerbitzua eskaintzen; lau furgoneta ari dira banaketak egiten Debagoienean, Urola Garaian eta Goierrin. Eta gustura daude orain arte egindako lanarekin. "Guk paketeak entregatzen ditugu; askotan, partikularrak dira banaketa gehien jasotzen dituztenak. Guk jasotzen ditugun paketeak denetarikoak dira, izan daitezke partikularrenak eta enpresenak ere bai, euren sareetan salmentetarako beharrezkoak diren banaketak egiteko", zehaztu du Igartuak. Gaineratu du ikusi dutela mezularitzan badagoela mugimendua eta lana badutela alor horretan.

**ZUBILLAGAKO OLABURUKO ZENTROAN JASOKO DITUZTE PAKETEAK, ETA HORTIK BIDALI**

### Olaburun

Bidebarri enpresan 1996an sortu zen, lan merkatu arruntean txertatzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak laneratu ahal izateko. Horretarako, hainbat ekimen ditu martxan; *vending* zerbitzua eta garbiketa zerbitzua dira nagusiak. Orain, horiez gain, mezularitza urgentea, paketeak toki batetik bestera garraiatzeko edo eramateko zerbitzua jarri dute martxan. Zubillagan, Olaburun, Bidebarrik duen egoitzan du bulegoa Bidalik eta zerbitzua erabili gura duen herritarra hara joan daiteke paketea eramatera.


Txillardegiren senideak eta lagunak Oñatiko udaletxean maiatzaren 31n. O.E.

# Txillardegiren omenezko plaka jarriko dute eguenean Milikuan

Bezperan, haren biografia intelektualari buruzko hitzaldia egingo du Fito Rodriguez idazleak, kultura etxean

**O.E.** OÑATI

Arantzazuko Milikua etxean sarri hartzen zuen ostatu Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi*-k, eta etxe horretako ezkerreko paretan jarriko dute haren omenezko plaka bat eguenean, hilak 27, 19:00etan. "Urrian Arantzazun ospatuko da Euskaltzaindiaren bileraren 50. urteurrena. Haren sorreran izan zen Txillardegi ere, baina oraindik ez da haren lana eta ekarpena aitortu; ezta 50 urte pasa ondoren ere. Oñatiko udalbatzak aho batez onartu zuen haren omenezko oroigarria Milikuan jartzea, eta asko poztu gintuen horrek", dio Fito Rodriguezek, Txillardegi Liburutegia Herri Ekimena taldeko presidenteak. Ekitaldian, Koldo Izagirrek idatzitako testua irakurriko du Rodriguezek: *'Txillardegi', toponimo iheskor bat gure geografian.*

### Hitzaldia eta proiekzioa

Bezperan, hilaren 26an, Alvarez Enparantzari buruzko hitzaldia egingo du Rodriguezek, kultura etxean, 19:00etan, eta Kote Camachok Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua*-ren proiekzio labur bat eskainiko du.


NIRE USTEZ

**XABIER IGARTUA**

## Txillardegiren plaka Arantzazun

Arantzazuko Milikua ostatu sarreran oroigarri plaka ipiniko diote irailaren 27an, 19:00etan.

XX. mendeko euskal intelektual eta ekintzaile handienetakoa, euskal nobelagintza modernoaren aitzindaria *(Leturiaren egunkari ezkutua)*; Ekin eta ETAren sorreran buru-belarri ibilia; pentsalari konprometitua, politikari abertzalea, euskaltzalea… Jose Luis Alvarez Enparantzak (1929-2012), *Usako* goitizenez ere ezagunak, oñatiar jatorria zuen amaren aldetik. Gaztetan euskara oraindik ez zekiela, Oñatin pasatako garaian, txunditu egin zuen kaleetan barra-barra entzuten zuen hizkuntzak.

Nola diren gauzak, Txillardegi bera izango zen, gerora, orain 50 urte, 1968an, Arantzazun euskara batua gauzatu zedin xaxatze eta egituratze lan erabakigarria egin zuena.

Behin erbestetik itzulita, Milikua ostatuan maiz egiten zituen egonaldiak, atseden eta lanerako lasaitasun bila.

Berak guztioi emandakoa eskertzeko aukera aparta dugu datorren ostegunean.

# "Betirako izango ditudan lagunak egin ditut"

**GORKA JUDEZ** SASKIBALOI ENTRENATZAILEA

Aloña Mendiko saskibaloi sailari eskaini dizkio 28 urte Judezek. Bizitakoaz gustura, agur esateko ordua iritsi zaio. Aurrerantzean, Zubikoako harmailetan izango da

**Arantzazu Ezkibel Galdos** OÑATI

Gorka Judez 14 urterekin hasi zen saskibaloian; jokalari, entrenatzaile, laguntzaile... denetik egin du 28 urteren buruan. Orain, pena handiarekin izan arren, saskibaloia uztea erabaki du.

**28 urteren ondoren, izugarrizko penarekin utziko duzu saskibaloia.**

Bai, ez dut gezurrik esango. Erabakia gogorra izan da. Urtebete noa buruari bueltak ematen, eta orain nire asmoa esan dudanean, pisu bat kendu dudala esan daiteke, baina barruan zerbait berezia sentitzen dut. Zirrara berezi bat.

**Zergatik orain?**

Amaiera ipini behar delako. Urte asko dira eta hemen ibiltzeak konpromiso handia eskatzen du. Nik ikusi dut nire lan kontuengatik ehuneko ehuna ezin nuela eman, eta horregatik erabaki dut ezin dudala eskatu nik nire buruari eskatzen ez diodana. Azkeneko urteetan, Iñigo Zabaleta izan dut ondoan eta nolabaiteko eskualdatzea egin dugu.

**Harmailetatik ikusiko duzu saskibaloia. Ezberdin ikusten da?**

Bai, ezberdin ikusten da, eta, batez ere, samurrago ikusten da. Jokoak berak zailtasunak jartzen dizkizu; itsutu egiten zara. Hemen goitik tentsio barik zaudelako, edo angelu hobea duzulako, samurrago ikusten da.



Gorka Judez, Zubikoako harmailetan. MIREIA BIKUÑA

**"EZIN DIET JOKALARIEI ESKATU NIK NEURE BURUARI ESKATZEN EZ DIODANA"**

**Zer eman dizu saskibaloiak urte hauetan?**

Adiskide mordoa. Giroa, jendea ezagutzeko aukera, lekuak ezagutzeko... Batez ere, Euskal Herri mailan ibili garenean adiskideak egiteko aukera izan dut, betirako lagunak izango ditut.

**Urte onak bizi izan dituzu, baina baita garai txarrak ere.**

Bai, momentu onetan denak polita eta samurra ematen du, baina hau ziklikoa izaten da eta momentu zailak ere badaude. Zaildu egiten zaituzte momentu horiek, eta gauzak beste modu batera egiteko balio dute.

**Gauza onen artean, EBA ligan jokatzea dago.**

Lorpen ikaragarria izen zen. Oñati moduko herri batean EBA mailan egoteak eta zilarrezko LEB mailara igotzeko aukera izateak ezinezkoa dirudi; opari moduan hartu nuen nik. Horren gorenean egoteaz asko disfrutatu nuen.

**Oñatin saskibaloia ikustarazteko balio izan zuen garai hark.**

Bai; ordura arte garaipen politak lortu izan genituen, baina ez zegoen erantzun sozialik herrian. Balio izan zuen oñatiarrak Zubikoara etorri eta harmailak beteta ikusteko.

**Zer egingo duzu orain?**

Aldaketa handia izango da eta kostako zait, baina eskertuko dut. Lasai egongo naiz.

## Saskibaloi sailak hasi du liga

Aloña Mendiko saskibaloi sailak gertu du 18/19 denboraldia. Azken orduko aldaketarik izan ezean, denboraldi berrian sei talde izango dituzte. Senior mutilen mailan bi talde izango dituzte, bata Gipuzkoako lehen mailan eta bestea Gipuzkoako hirugarren mailan. Horiez gain, mutiletan, junior, kadete eta infantil txiki maileetako taldeak lehiatuko dira. Horiek guztiak Gipuzkoako parte-hartze mailan ibiliko dira. Emakumezkoen mailan, talde bakarra izango dute aurten. Gipuzkoako parte-hartze mailan infantil neskak lehiatuko dira. Emakumezkoen gazteen taldea ateratzeko ahaleginetan ibili diren arren, azken momentuan ezin izan dute talde hori sortu. Gipuzkoako lehen mailako mutilen taldeak bihar, zapatua, jokatuko du, Zubikoan, 16.00etan.

# Emakumezkoen I. Aloña Mendi pilota saria jokatuko dute etzi

Infantil mailako partiduak izango dira; horrez gain, herriko pilota txapelketa finalerdietan sartu da

**A.E.** OÑATI

Emakumezkoen I. Aloña Mendi pilota saria jokatuko dute domekan, Zubikoan, 11:30ean. Ligaxka eran jokatuko dute txapelketa. Bikoteak izango dira: Maddi Berrocal bergararra eta Uxue Oses oñatiarra; Maddalen Etxegarai oñatirra eta Ane Mendiburu –Huarte–; Laia Salsamendi –Huarte– eta Leire Oskoz –Iruñea–.

**Herriko pilota txapelketa**

Gaur, egubakoitza, finalerdiak jokatuko dituzte, 17:00etan hasita. Emakumezkoen mailan, Quintas eta A. Tati Urangaren eta Aranen aurka lehiatuko dira; beste finalerdian, I. Usandizaga eta Zumalde bikotea June eta Ohiane bikotearen aurka. Gizonezkoetan, Murgiondo eta Ibarzabal Larrearen eta Irizarren aurka lehiatuko dira lehen finalerdian; eta Anduaga eta Arabaolaza Larrea eta Urzelai bikotearen aurka bigarrenean.

Finalerdiak girotzeko, taberna jarriko dute; eta, horrez gain, final eguneko bazkarirako txartelak salduko dituzte.

## Mikel Deuna eskubaloi txapelketa jokatuko dute bihar

Bihar, zapatua, Mikel Deuna 42. eskubaloi txapelketa jokatuko dute. Emakumezkoen lehia 16:00etan hasiko da: Aloña Mendik Ereintza Barymont hartuko du aurrez aurre. Gizonezkoetan, aldiz, Fagor Industrial Aloña Mendi Gure Auzuneren aurka lehiatuko da. Senior mailako partiduak izango dira biak ala biak.

## Tatarrazek jarraipen eta hobekuntza taldeak aterako ditu

Tatarrazek martxan jarri du 2018-2019 ikastaroko haurrendako eta gazteendako patin eskola. Bi ikastaro antolatu ditu: jarraipen taldea, martitzenetan 17:00etatik 18:00etara; eta hobekuntza taldea, martitzenetan, 18:00etatik 19:00etara. Urriaren 5era arte eman daiteke izena, *eskola@tatarraz.eus* helbidera mezua idatzita.



ARATZ LOSADA

# Eskerrak eman diote 'Artza'-ri

180 lagun elkartu ziren Artza omendu eta igeriketa arloan egin duen lanagatik "eskerrik asko" esateko. Igerilekuan batu ziren lehenengo, 1972tik gaur egunera arteko belaunaldi denak. Ondoren, bazkaldu egin zuten eta opariak banatu zituzten: esker plaka bat, bidaia bat, liburu bat, atseden aste bukaera bat eta Alaveseko kamiseta jaso zituen 'Artza'-k.



Gaurko emanaldian parte hartuko duten pertsonaietako batzuk, Kirrukuako zelaietan. GANBARA FAKTORIA

# Mitologian murgilduko dira Kirrukuako zelaiak

'Euskal mitologia, gure historia' emanaldia eskainiko du Ganbara faktoriak gaur, egubakoitza, Kirrukuako zelaietan, 22:00etan; Goiena telebistak osorik grabatuko du, eta urrian ikusgai izango da; eguraldi txarra eginez gero, Zubikoan eskainiko dute

**Eneko Azurmendi** OÑATI

Azkenean bai. Iritsi da eguna. Ekainerako aurreikusita zegoen Ganbara faktoriaren *Euskal mitologia, gure historia* ikuskizuna, baina, eguraldi txarrak eta belarraren egoerak baldintzatuta, irailera atzeratu behar izan zuten. Orain, egoera bestelakoa da, eta emanaldia behar den moduan eskaini ahal izateko baldintzak betetzen dira. "Ekainean euri asko egin zuenez, lokatz asko zegoen, eta belarra ez zen lehortzen. Orain, azken asteetan eguraldi ona egin digunez, belarra lehor dago, baldintza onetan, eta, euri pittin bat eginda ere, ez litzateke arazorik egongo", azaldu du Aitor Biainenek, Ganbarako zuzendariak.

Itxaronaldiaren ostean, emanaldia estreinatzeko gogotsu daude dagoeneko. "Ekainean ez egin ahal izateak amorrua eman zigun. Izan ere, udako solstizioarekin erlazionatutako ikuskizuna da, eta zentzu handiagoa zeukan orduko hartan egiteak. Hala ere, testuinguruan sartzen da oraindik ere, eta emanaldia estreinatzeko gogoz gaude. Ea ondo ateratzen zaigun guztia", adierazi du zuzendariak.

### Irailean, lan asko

Entseguei dagokienez, uztailean eta abuztuan etena izan dute, eta ondorioz, iraila hilabete gogorra eta lan askokoa izan da Ganbarako kideentzat. "Iraileko lehen astetik gogor entseatzen hasi gara, egunero. Izan ere, udako geldialdia nabaritu egiten da horrelako emanaldi bat prestatzen ari zarenean, eta, batez ere, oraindik ez duzunean estreinatu".

Eguaztenean eta eguenean egin dituzte azken entsegu orokorrak. "Eguaztenean guk bakarrik entseatu genuen, eta atzokoa entsegu teknikoa izan zen, musika, argiak, eta abar konprobatu ahal izateko".

**500 SARRERA INGURU SALDU DITUZTE, BAINA 600 LAGUNENTZAKO LEKUA EGONGO DA**

### Sarrerak salgai

Dagoeneko 500 sarrera inguru saldu dituzte, baina azken sarrerak gelditzen dira oraindik. Biainen esanetan, seguruenik, 600 pertsonarendako lekua izango da, azkenean. Hori dela eta, gaur egunean zehar Txokolateixian egongo dira salgai, eta leihatilan ere jarriko dituzte: 8 urtetik beherakoentzat hamar euro eta gainontzekoentzat, hamabi.

Oraindik sarrera erosi ez duten herritarrei dei egin diete emanaldiaz gozatzera animatzeko. "Ikuskizun ezberdina izango da. Guretzako, lehenengo aldia da aire librean emanaldi bat eskainiko duguna. Kanpoan egiteak baditu bere arriskuak, gauza asko hartu behar direlako kontuan, baina, era berean, ikusgarria izango da".



Olaitturri Kultura Elkarteko zenbait kide, antzezlana entseatzen. ANDONI BODES

## 'R. M. Azkue eta Euskaltzaindia' antzezlana, Olaitturriren eskutik

Irailaren 27an aurrestreinaldia egingo dute Santa Ana antzokian, eta 29an estreinatuko dute, parrokian

**E.A.** OÑATI

Olaitturri Kultura Elkartea kultur hamabostaldia egiten ari da Euskaltzaindiaren sustatzaile nagusi izan zen Resurreccion Maria Azkueren omenez, eta jardunaldi hauei bukaera emateko, antzezlan bat eskainiko diete oñatiarrei: *R. M. Azkue eta Euskaltzaindia*. "Euskaltzaindia sortzeko prozesuan gertatutakoa kontatzen du antzerkiak, pasarte desberdinetan oinarrituta. Azkueren eta beste hizkuntzalari batzuen ahotan jartzen ditugu pasarte horiek", azaldu du Mari Karmen Biainek, antzezleetako batek.

Testuak eta abestiak tartekatzen dira antzezlanean. "Testuak protagonisten esanak dira. Kantuei dagokienez, Azkuek berak bildutakoak dira, eta Euskal Herriko lurralde bakoitzari abesti bat eskaintzen diogu; zazpi abesti joko ditugu", adierazi du.

Antzezlanaren erdi inguruan, Oñatiko historiari dagokion amodiozko istorio bat txertatu dute, "unibertsitateko ikasle baten eta herriko neska gazte baten artekoa".

Antzerki honekin gura dutena da "Oñatiko herriari azaltzea Azkue zein izan zen, eta Euskaltzaindiaren sorreran eman ziren gorabeherak zeintzuk izan ziren, kontuan hartuta duela 100 urte Oñatin egin zela Eusko Ikaskuntzaren lehen kongresua".

### Sarrerak salgai

Bi aldiz emango dute antzezlana. Aurrestreinaldia irailaren 27an izango da, Santa Ana antzokian, 19:00retan –dohainik–. Irailaren 29an izango da estreinaldia, 17:00etan San Migel parrokian. Bigarren horretarako sarrerak Txokolateixian daude salgai, sei eurotan. Egunean bertan hamar euro balioko dute.

## Potx eta Lotxek kanpaina abiatu dute, DVD bat grabatzeko

Pailazoek *crowdfounding* kanpaina bat jarri dute martxan, DVD bat grabatu ahal izateko. Proiektuan laguntzen dutenentzako hainbat sari dituzte. Urriaren 14an grabatuko dute, Santa Ana antzokian, 16:30ean eta 18:30ean –bi saio egingo dituzte–. Harremanetarako, Facebook bidez –Potx eta Lotx– edo Instagram bidez –*@potxetalotx*–.

## Ageriko pintura lehiaketa egingo dute domekan

Oñarte Oñatiko Arte Taldeak antolatu du, eta edonork hartu ahal izango du parte. Teknika librea da, baina margoak Oñatin bertan egin beharko dira domeka goizean. Sari banaketa kultura etxean egingo dute, 14:30ean. Gero, urriaren 21era arte ikusgai egongo dira lanak kultura etxean, 18:00etatik 20:00etara –urriaren 12an itxita egongo da–.

# 14. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA

## egin klik!

### 430 argazki jaso ditugu. Eskerrik asko parte hartzeagatik!

**Irailaren 24tik 30era arte**, zure argazki gustukoena aukeratu ahal izango duzu **(PUBLIKOAREN SARIA)**. Sar zaitez *https://labur.eus/argazki-lehiaketa* webgunean eta eman zure botoa!



**UDALATXEKO BIZILAGUNAK** | Argazkia: Ibai Romero Ganboa



**KANTABRIA** | Argazkia: Maider Igartua



**BAINU SAKRATUA (BENARES, INDIA)** | Argazkia: Gaizka Untzueta



**EKAITZAREN ZAIN (PORI, FINLANDIA)** | Argazkia: Ioana Oncala



**ANBOTO** | Argazkia: Ekhi Arenaza



**DEATH VALLEY (KALIFORNIA)** | Argazkia: Iosune Kortabarria



**IRAILAREN 9A... NON? ARANTZAZUN** | Argazkia: Urko Biain Zanguitu

ANTOLATZAILEA:

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

EROSKI ARRASATE

GURE AMETSA JATETXEA

ARRASATE BIDAIAK



**OIER UR AZPIAN AMETSETAN (BIDART)** | Argazkia: Amaia Otxoa Lazkano



**LAVAL (QUEBEC)** | Argazkia: Karmele Orobengoa



**TXIMELETA LOREAN** | Argazkia: Asier Martin



**PETRA** | Argazkia: Iñaki Olalde Altzelai



**GEORGIA** | Argazkia: Ion Lizarazu Arbulu



**TURKIA** | Argazkia: Maria Aginagalde Mendibil



**KAMEHAMEHAAA** | Argazkia: Ioritz Zabaleta

## Sariak

- **LEHEN SARIA:** Redmi 5 plus smartphonea, **Eroski Arrasateri esker**.
- **BIGARREN SARIA: Gure Ametsa** jatetxean bi lagunendako afaria edo bazkaria.
- **PUBLIKOAREN SARIA:** Zumaiako Zelai Talasoterapian bi pertsonarendako zirkuitu termala eta Zelai menua, **Arrasate bidaiei esker**.

Lehen bi sariak aukeratzeko epaimahaia Goiena Komunikazio Taldeko kideek osatuko dute eta argazkiaren kalitatea eta originaltasuna hartuko dituzte kontuan.

Hirugarrena publikoaren saria izango da eta bozketa bidez hautatuko da. Irailaren 24tik 30era zabalduko da Publikoaren Saria aukeratzeko epea.

Hiru argazki irabazleak zeintzuk diren urriaren 5ean jakinaraziko da, *Goiena* aldizkarian.




**Eta adi egon! Urriaren 5ean, hiru argazki irabazleak zeintzuk diren jakinaraziko dugu aldizkari honetan.**

**Argazki guztiak ikusi hemen: https://labur.eus/argazki-lehiaketa**



Orbea etxeko enbaxadorea da Markel Uriarte. ARITZ GORDO



BH etxeko enbaxadorea da Adiran Jurado. A.J.

# Bizikleta marken enbaxadore dira

**ENDUROA** Markel Uriarte eta Adiran Jurado aretxabaletarrak Euskal Herriko bi bizikleta marken enbaxadore dira. Orbea eta BH markak ordezkatzen dituzte, bai lasterketetan eta baita sare sozialetan. Asteburuan enduroko Munduko Txapelketan izango dira

**Xabier Urzelai** ARRASATE

"Gauza bat da lasterketetan zein emaitza lortzen duzun eta beste gauza bat da bizikleta marka konkretu baten berri sare sozialetan emateko orduan zein gaitasun duzun. Eta, gaur egun, markek lehenengoari garrantzia ematen diote, baina bigarrena ere garrantzitsua da", dio Markel Uriartek, asteburuan Ainsan egingo duten enduroko Munduko Txapelketara begira azken prestaketak egiten dabilen bitartean.

Aretxabaletakoak sei-zazpi urte daramatza Orbearekin kolaboratzen, bertako enduro taldean parte hartzen, eta enbaxadore lanak egiten: "Oso eroso nago eurekin; azken batean, etxeko enpresa da. Ematen didaten babesa oso garrantzitsua da lasterketetan, maila honetan aurrealdean ibiltzeko puntako materiala behar dudalako, eta Orbeak hori eskaintzen dit. Hemen ezin gara ibili duela bost urteko bizikleta batekin, edo hala-moduzko mantenua izan duten piezekin".

## Adiran Jurado, hasiberria

Uriartek urte hauek enduro txapelketetan aurrealdean ibiltzeko baliatu ditu, baina baita mediatikoki oihartzuna izan duten erronkak egiteko ere: Anboto edota Aizkorri moduko mendiak bizikleta gainean jaitsi, Tourmaleta *kaballitoa* egiten igo, gurpil bakarraren gainean Anoetako belodromoan Guinness errekorra egin edota Everestin Challengea gainditu...

**"LASTERKETETAN LAN TXUKUNA EGIN BEHAR DA, BAINA SARE SOZIALAK ERE ZAINDU BEHAR DITUGU"**

Eta, erronka horiek jarraitzen, haren herrikide Adiran Juradok ere enduroan amaitu du: "Markel moduko erreferente bat herrian izatea garrantzitsua izan da atzetik gatozen gazteak ere kirol honetara gerturatzeko. Ni osabarekin mendiko bizikleta martxetara joaten nintzen, lehiatzeko batere asmo barik, baina Markelek animatuta lasterketa batean parte hartu eta harrituta geratu nintzen lortutako emaitzarekin. Hori ikusita, Andoni Epelderi esker –kirol argazkilari arrasatearra– BH etxekoekin harremanetan hasi nintzen, eta dagoeneko bi urte eta erdi daramatzat eurekin kolaboratzen. Pentsa, ikaslea naiz, ez dut diru-sarrerarik, eta, hala, gurasoak ezingo lirateke urtero puntako materiala erosten ibili".

Sare sozialak erabiltzen dituzte euren lasterketen, entrenamendu saioen edo bitxikerien berri emateko; betiere, ordezkatzen dituzten bi marka horien irudia ondo zainduta; Instagramen *adiranjurado* eta *muriarteu* izenekin agertzen dira. Eta horretarako, ezinbesteko laguntza izaten dute, Aritz Gordo eta Andoni Epelde argazkilariena.

## Lehiakideak, eta lagunak

Herrikideak, marka ezberdinen enbaxadoreak, lasterketetan lehiakideak, eta lagunak: "Oso harreman ona dugu, asko eskertzen dut Adiran moduko pertsona bat ondoan izatea, txapelketetara joan eta bakarrik ibiltzea ez da-eta gauza bera. Lasterketa aurretik, sarritan, egun bakarra izaten dugu tramuak ikusteko eta ikasteko, eta bihurgune bakoitza zelan trazatu pentsatzen eta komentatzen ibiltzen gara elkarrekin", dio Uriartek.

Bi pilotuen artean sei urteko aldea dago. Uriartek 27 urte ditu, eta 21 urte Juradok. Eta, gazteenak urte hauetan asko ikasi ahal izan du beteranoagoaren ondoan: "Markel oso pilotu teknikoa da. Gaztetan trialean egindako urteak oso lagungarriak izan dira, eta nabari da bizikleta zein ondo dominatzen duen. Kontua da, baina, azken urteotan arlo fisikoa lantzeko sekulako lana egiten dabilela, eta horri esker aurrerapausoa eman du".

**"MARKA HAUEN LAGUNTZA BARIK EZINGO GINATEKE MAILA HONETAN LEHIATU"**

Hain zuzen, aurrerapauso hori eman guran hasi da Jurado ere gogor lanean: "Pentsa, errepideko bizikletan hasi naiz entrenatzen, orain arte sekula egin ez dudana", dio, barrez. Eta Uriarte da orain Juradoren ezaugarrien gainean berbetan dabilena: "Ikusi egin behar da bizikleta gainean zelan dabilen. Teknikoki oso ona da, bihurgune itxietan bizikleta nahi duen moduan erabiltzen du batetik bestera, baina, batez ere, oso-oso agresiboa da bizikleta gainean. Ni, akaso, gehiago naiz garbi trazatzekoa, baina Adiran oso ikusgarria da bizikleta gainean".

## Helburu ezberdinekin dabiltza

Markel Uriarte eta Adiran Jurado helburu ezberdinekin dabiltza aurten. Lehenengoak ekainean borobildu zuen urtea, Espainiako Enduro Kopa irabazita: "Guztira, bost lasterketa izan ziren, Espainiako geografian banatuta, eta hori izan da aurtengo helburu nagusia. Egia esan, presio handia nabaritu nuen lasterketa horietan, eta azken detailea ere zaindu nuen: zirkuituak ezagutu, bizikletako pieza bakoitza errepasatu, gogor entrenatu... Azken urteak bes-



Adiran Jurado, iazko Arrasateko lasterketan. IMANOL SORIANO

## Arrasateko proba, hilaren 30ean

Bi protagonista horiek bertatik bertara ikusteko aukera izango da irailaren 30ean Arrasaten egingo duten Enduro Txapelketan. Eta, dena ondo bidean, garaipenarengatik borrokan ibiliko dira biak ala biak –podiumean izan ziren iaz–. "Etxean ez da halako lasterketarik izaten, eta niretako oso hitzordu garrantzitsua izango da", dio iaz bigarren sailkatu zen Juradok: "Nire kategorian irabazi gurako nuke –23 urtez azpikoak–, baina horrekin batera elite mailan ere aurrean egon gura dut".

Uriartek ere gogoz hartuko du Arrasateko lasterketa. Lagunek antolatzen dute, eta etxeko zaleak egongo dira bertan. Gainera, lehenengo edizioan irabazi eta gero iaz arazo mekanikoak izan zituen eta podiumeko hirugarren postuarekin konformatu behar izan zuen. Bada, lasterketa horretako beste bereizgarri bat da puntako pilotuekin batera etxeko mendiko bizikleta zaleek ere berdin-berdin parte hartu ahal izango dutela. Antolatzaileek dagoeneko erabaki dituzte ibilbideak, eta, aurreko edizioetan moduan, tramu batzuk publikoak dira dagoeneko –Facebooken dago horren berri, eta lasterketako *track* batzuk deskargatzeko moduan daude jada– baina beste tramu batzuk sekretupean gordeko dituzte, ohitura den moduan. Hain zuzen, irailaren 25era arte dago izen emate epea zabalik.

telako helburuak prestatzen ibili naiz; gurpil bakarraren gainean egindako erronkak, esaterako. Baina aurten enduroan jarri gura nuen arreta, benetako txapelketetan burubelarri ibili eta Espainiako Kopa irabazi izana gauza garrantzitsua izan da". Eta zer dakar halako txapelketa bat irabazteak?: "Ordezkatzen duzun marka horrendako garrantzitsua da egiten dituzten bizikletak txapelketetan aurrean dabiltzala ikustea, eta eurak ordezkatzen jarraitzeko modua da, baina enduroan pilotu profesionala izatea oso zaila da".

Juradori, berriz, kosta egin zitzaion urte hasieran erritmoa hartzea: "Nahiz eta gustura ibili, pare bat lasterketatan erorikoak izan nituen eta kosta egin zitzaidan apur bat. Baina berehala eman nion horri buelta, eta gero, oso gustura lehiatzen ibili naiz. Urteko helburu garrantzitsuak, baina, orain datoz".

**World Series proban, Ainsan**

Debagoienak bi ordezkari horiek izango ditu asteburuan Ainsan egingo duten Munduko Kopan. Eta munduko pilotu onenak izango dituzte ondoan: "Presio barik nator, gozatzera", dio Uriartek. "Dortsala jantzten dugunean ez dakigu beste modu batean lehiatzen, dena ematera irtengo naiz, baina Espainiako Kopa zen helburua". Gainera, aretxabaletarra Transmomad lasterketa gogorretik iritsi berria da. Jurado, berriz, ilusio handiz dago: "Nik lehenengoz hartuko dut esku halako mailako proba batean, eta neure burua non dagoen ikusi gura dut".



TWITTER/@MONDRAGONCF

## Laukote 'berezia' Mojategin

Laukote ezagun hau –Asier Riesgo (Eibar), Manu Garcia (Alaves), Aritz Aduriz (Athletic) eta David Zurutuza (Real Sociedad)– Mondra Futbol Taldearen instalazioetan izan da aste barruan. Martitzenean egon ziren Mojategin, baina, tamalez, ez zuten elastikorik jantzi. Hori bai, bertan zeuden ikusleek ezuste ederra jaso zuten elite mailako futbol jokalariak bertatik bertara ikusita. GOIENAk jakin duenez, laster, lau jokalariak batzen dituen egitasmoaren gaineko berriak izango dituzte futbolzaleek.



Iazko martxaren une bat. GOIENA

MENDIKO BIZIKLETA

### Domekan egingo dute Bergarako martxa

Irailaren 23rako, mendiko bizikleta martxa antolatu dute Bergarako Palmerakuak taldeko kideek. Bi ibilbide izango dira. Bata, luzea, 40 kilometro eta 1300 metro desnibel positiboarekin. Eta bestea, laburra, 25 kilometro eta 950 metro desnibelarekin. Parte-hartzaileek Trekutzeko, Elosumendiko eta Irubideko paraje eta bide zoragarriak ezagutzeko aukera izango dute. Eta, zailtasun aldetik, denetariko aukerak izango dira. Aldapa gora eta behera trebeak direnentzako bide aproposak izango dira. Eta gaztetxo zein hasiberriendako, euren mailako ibilbidea prestatu dute. Izen ematea *Kirolprobak*-en, edo egunean bertan (09:00, Seminarioa).



Alvaro Cuadros, iaz. GOIENA

ZIKLISMOA

### Zapatuan egingo dute Oñatiko Probaren 31. edizioa

Zapatuan, 10:00etan hasita –Unibertsitateko hiribidean–, Lehendakari Txapelketan dabiltzan ziklistek hitzordua dute Oñatin. 96 kilometroko lasterketa izango dute aurretik, eta Udana, Aztiria eta Atagoitiko gainak gainditu beharko dituzte. Bailarako hainbat ziklista izango dira bertan, eta oñatiarren artean Xabier Murgiondo (Ampo), Ander Gartzia (Debabarrena) eta Ekaitz Txintxurreta (Debabarena) lehiatuko dira. Iaz, Caja Rural taldeko Alvaro Cuadros izan zen onena; andaluziarrak erasoa jo zuen azkeneko igoeran, eta bakarrik helmugaratu zen Unibertsitateko hiribidean. Bigarren Ampo taldeko Jokin Aranburu zarauztarra izan zen.



Perez baloiarekin. GOIENA

FUTBOLA

### Liga hasiera zuzentzen hasteko ordua da

Oraingo asteburuan, Aretxabaletak eta Bergarak etxean jokatuko dute, eta ligako lehen garaipenaren bila zelairatuko dira bi taldeak. Bergarak ligako lehenengo partiduan 1-1 egin zuen Mondraren kontra, eta joan den astean 2-0 galdu zuten Hernanin. Hain zuzen, jokatutako bi partiduak irabazi dituen Mutriku izango da bihar Agorrosinen (zapatua, 12:00). Aretxabaletak ere pare bat estropezu izan ditu liga hasiera honetan, jokatutako bi partiduak galdu egin ditu eta. Hala, domekan 4 puntu batu dituen Elgoibar izango da Ibarran (16:30). Mondrak, berriz, Tolosan jokatuko du domeka arratsaldean (16:30). Bi talde horiek launa puntu batu dituzte.

# "Jende asko dut laguntzen, minutu batez ere ez naiz bakarrik sentitu"

**IÑAKI BENGOA** SHOT! ESTUDIOKO ARDURADUNA

Euskal Herrian erreferente izan den Arrasateko Shot! grabazio estudioa berriz ere lanerako prest izango da laster; aurpegi berrituarekin, baina betiko filosofiarekin

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE

Maiatzaren 11n, sute batek San Andres auzoan dagoen Shot! grabazio estudioa kiskali zuen; samina sortu zuen herrian eta, orokorrean, Euskal Herriko musikagintza alorrean. Segituan zabaldu ziren estudioaren eta haren arduradun Iñaki Bengoaren aldeko elkartasun mezuak eta laguntza eskaintzen zieten askotariko proposamenak. Hilabete batzuk geroago, bestelakoa da egoera.

**Zer moduz zaude?**

Orain, oso ondo, ari naiz dagoeneko tunelean argia ikusten. Estudioko obrak hasi dira... eta esan dezaket badoala kolore pixka bat hartzen dena.

**Shot!-en aldeko elkartasun kontzertuaren bezpera egunetan gaude; zelan daramazu?**

*Desordenatu* samar nago. Deskolokatu samar harrapatzen nau kontzertuak, ihes egiten dit. Beste gauza batzuk kontrolatzen dituzu, gutxi gorabehera, baina honako honetan ez dut ezer kontrolatzen, galduta nago.

**Pozik zaude, baina?**

Bai, horixe, oso pozik eta harro, eta oso eskertuta, duda barik, baina eskuetatik ihes egiten dit apur bat. Lekuz kanpo sentitzen naiz. Zerbait egin ahal dudan galdetzen dudan bakoitzean, "zu lasai" erantzuten didate.

**Zer diozu domekako kontzertuko kartelari buruz?**

Interesgarria da, bai, esan didaten guztiak hor daude; hala ere, nik ez dut zerikusirik izan aukeratzerakoan. Dena eginda eman didate.

**Sutearen egunetik hona, nola joan da guztia?**

Hasieratik erabaki nuen obrekin uda ostean hasiko ginela; *standby* egin, geratu, eta gauzak erabakitzeko astia hartu beharra nuela ikusi nuen. Zorionez, udan entretenituta egon naiz Anita Parker taldearen kontzertuekin. Anita Parker ez balitz egongo, aspergarriagoa eta gogorragoa izango litzateke, baina ez dudanez aspertzeko astirik izan... Estudioaren disgustua *ahazten* lagundu dit.

**Anita Parker aipatuta, indarrez jarraitzen duzue, eta laster Japoniara joango zarete.**

Halaxe da, bai; irailaren 26an joango gara Japoniara. Orain dela urtebete lotutako bira da; orduan ez nekien estudiorik izango ez nuenik, baina horrela atera dira gauzak!

**Estudio barik geratu zinen momentutik, baina, behar izan duzun guztia izan duzu.**

Bai, horixe; soberan, gainera.

**Obrak hasi berri dituzue; zein asmo duzu? Hau da, zelakoa izango da Shot! estudioa?**

Aurrekoaren antzerakoa izatea gustatuko litzaidake niri. Aurretik ez nuen ezer aldatzeko asmorik; hortaz, lehen zenaren antzerakoa izango da, baina berria. Toki berean egongo da, eta teoria edo lan egiteko modua ere bera izango da. Asmoa hori da, baina noiz? Ez dakit esaten, Gabonetan... ikusiko da, izan behar duenean izango da!

**Lan esparruari dagokionez ere, lehengo lepotik burua?**

Bai, musika taldeekin grabatzen jarraituko dugu; horixe da-eta gustatzen zaiguna, eta egiten dakiguna.

**Itsasontzi berrian nor izango duzu lagun?**

Shot!-eko bazkide bakarra ni naiz; hala ere, alboan izango dut lehenago ere lankide nuen Ander Barriuso eibartarra; sekulako lana egiten ari da, aparatu guztiak garbitzen ari da, ahalik eta material gehien aprobetxatu ahal izateko... Sutea gertatu zenean, Shot!-en egiten zuen lan Barriusok, eta hura ere ezer barik geratu zen; asko zor diot egiten ari den guztiagatik! Era berean, Josema, Anita Parkerren teknikaria dena eta aurrez Shot!-en lan egindakoa dena ere, asko ari da laguntzen. Egia esan, jende asko dut inguruan laguntzen. Minutu batez ere ez naiz bakarrik sentitu.

**Honetatik guztionetatik asko ikasi duzula diozu; ez duzu uste, baina, orokorrean, jende askorentzako ikasgaia izan dela?**

Hala da, bai; musika arloan talde bakoitza bere kabuz ari dela dirudi, baina, lagundu behar denean, guztiok laguntzen dugu beti; Euskal Herrian, behintzat, horrela da eta izan da beti. Oraingoan, gertutik bizi izatea tokatu zait, eta, egia esan, flipatzen ari naiz jasotzen ari naizen laguntza guztiagatik; Euskal Herri osoko musika taldeek deitu didate.

**Domekan geldi eta lasai egotea lortuko duzu?**

[Barre] Saiatuko naiz, bai, ezkiurtxoren bat hartu... Etorriko diren lagunak agurtu... Saiatuko naiz, duda barik, ondo pasatzen, horixe da helburua, guztiok ondo pasatzea. Eskerrik asko!



Iñaki Bengoa, Shot! estudioan, eguaztenean. XABIER URZELAI

## Elkartasuna: hitzetatik praktikara

Sutearen egunean dei asko jaso zituztela dio Arrasateko Mauka Musikagintzako Markel Madinabeitiak, eta hau gaineratu du: "Egun hartan garbi geratu zen Shot! estudioari laguntzeko emanaldiren bat egin behar zela". Hala sortu dute, elkarlanean, etzi, domeka, Amaia antzokian 19:00etan egingo duten *!Shot!U*. Irati eta Taupa tabernetan eta *Arrasate.eus* atarian eros daitezke aurrez sarrerak, 12 eurotan, eta –agortzen ez badira– leihatilan 15 eurotan.

Bi ordu eta erdi inguruko saioak askotariko musika estiloak eta formazioak batuko ditu: Pablo Novoa & Keu Agirretxea; Ruper Ordorika, Petti eta Barrenan Semiak, Ines Osinaga, Aiora eta Piti (Zea Mays) eta Huntza. "Horiek guztiak egun berean antzoki baten ikustea opari bat da. Ea antzokia betetzen dugun Shot!-i bultzada bat emateko".

# Abian da 'Ttap' aldizkari digital multimedia

Euskarazko astekariak 16 orrialdeko bi edizio izango ditu, egubakoitzetan argitaratuko da eta testuekin batera bideoak, audioak eta grafiko interaktiboak ere eskainiko ditu, eskuko telefonoetan eta tabletetan kontsumitzeko

**Goiena** BILBO

*Ttap* aldizkari digital berri eta berritzailea aurkeztu dute oraingo astean Bilboko Euskalduna jauregiko Eneko jatetxean. Kultura, aisialdi, kirol eta politika zein erakunde publikoetako ordezkari eta aurpegi ezagunak bertan zirela plazaratu da aldizkariaren lehen zenbakia. Kolaboratzaileak ere izan dira Kike Amonarrizek aurkeztu duen ekitaldian.

Uztailean Donostian egin zen *Ttap*-en zero zenbakiaren aurkezpena jendaurrean, eta, oraingo eguaztenean, Bilbon aurkeztu dute aurrerantzean egubakoitzero eskuko telefono eta tabletetan irakurri, ikusi eta entzun ahalko den lehen zenbakia. Bi edizio izango ditu: bat Bizkairako eta beste bat Gipuzkoarako.

Maialen Chourraut palista lasartearra eta Eneko Atxa sukaldari zornotzarra dira *Ttap* astekari digital multimediaren lehen zenbakiaren protagonistak.


Aurkezpenean batutakoak, *Ttap* aldizkaria eskuko telefonoetan dutela. ANDONI BODES

### Goiena ere tartean

Euskal Herriko eta Kataluniako hainbat hedabide dira aldizkari digitalaren bultzatzaileak: Goiena, Anboto (Durangaldea), Baleike (Zumaia), Tokikom euskarazko tokiko hedabideen elkartea eta *Esguard* (Bartzelona).

Apple zein Google Play aplikazio dendetan deskargatu daiteke aldizkaria. Orain arte balorazio oso altuak izan ditu. Gainera, *Ttap* aplikazioa 10 egunez deskargatuenen artean izan da bere kategorian, Androiden zein Applen. Monika Belastegi bergararra da zuzendaria eta era askotako kolaboratzaile ezagun asko ditu: Sara Gandara, Xabi Paya, Juan Kruz Lakasta, Izaro Andres, Joseba Sarrionandia, Axi Muniain, Arantxa Urretabizkaia…

Eguazteneko aurkezpenean, Amonarrizekin batera, Maite Goñi irakasleak, Germa Capdevila Kataluniako *Esguard* aldizkari digitaleko editoreak, Jone Guenetxea Tokikomeko zuzendariak eta Monika Belastegi *Ttap*-eko zuzendariak hartu zuten hitza. Azken honek adierazi zuen, "batez ere, inguru urbanoan edota garraio publikoan kontsumitzeko" egingo dela *Ttap*. Miren Dobaran Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea eta Garbiñe Mendizabal Gipuzkoako Foru Aldundiko euskara zuzendaria ere izan ziren aurkezpenean.

## Gaur hasi eta irailaren 29ra bitartean, Donostia Zinemaldia

Imanol Gallegok eta Ibai Zabalak 'Goiena.eus' atarian eta Arrasate Irratian egingo dute 66. jaialdiaren jarraipena

**A. A.** ARRASATE

"Azken urteetako indartsuena izateko aukera asko ditu aurtengoak, etorriko diren izarrei eta eskainiko dituzten filmen kopuruari (191) eta kalitateari begiratuta", dio Imanol Gallegok, eta zera gaineratu du: "Torontoko jaialdiarekin elkarlanean, film aukeraketa oso ona egin du Rebordinos eta haren lantaldeak. Izarrei dagokienez ere asmatu dutela esango nuke, belaunaldi ezberdinetako zaleentzako aurpegi ezagunak gonbidatu dituzte; adibidez, Donostia Sariak: Judi Dench, Danny Devito eta Hirokazu Kore-Eda".

Euskal zinemagintzak tarte zabala izango du: hogei ekoizpen eskainiko dituzte –horien artean daude Sail Ofizialean eskainiko duten *Dantza* (Telmo Esnal) eta Zuzendari Berriak atalean Euskal Zinemaren Irizar sarirako lehiatuko den *Oreina* (Koldo Almandoz). Martitzenean, Zinemira egunean, Ramon Agirrek jasoko du Zinemira saria.

Goiena Klubaren txokoa

**Goiena Klubeko iraileko sariak!**


**Poltsa**
**PuntuEus fundazioaren eskutik.**
Parte hartzeko sariaren izena: Poltsa


**Sarrerak**
**Arrikrutz kobak bisitatzeko, sarrerak.**
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz
ARRIKRUTZ


**Otarrea**
**Bidezko merkataritzako produktuak.**
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

**PARTE HARTZEKO:**
**Posta elektronikoz:** kluba@goiena.eus **Whatsapp:** KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

**Irabazi bi lagunendako otordua**

ETXAGI JATETXEARI ESKER
Begiratu *Puntua* aldizkariko *Otorduan* atala eta hartu parte!
943 25 05 05 kluba@goiena.eus
KLUBA Jatetxea
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.


*Puntua* aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailez gozatzeko...

Bazkidetu zaitez: 2018 (irailetik aurrera): 31€
Deitu: **943 25 05 05**. kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

OROIGARRIA



## Marilu Errarte Madinabeitia

2018ko irailaren 16an hil zen, 73 urte zituela.

*Beti izango zaitugu gogoan.*

Jose Luisen kuadrilla.
Arrasaten, 2018ko irailaren 21ean.

OROIGARRIA



## Miguel Angel Unamuno Luarizaristi

2018ko irailaren 12an hil zen, 57 urte zituela.

*Bat egiten dugu senideen saminarekin.*

Bere kuadrilla.
Bergaran, 2018ko irailaren 21ean.

OROIGARRIA



## Miguel Angel Unamuno Luarizaristi

'Piti'

2018ko irailaren 12an hil zen, 57 urte zituela.

*Bizitako uneak ez dira izango ahaztuak*
*auzokoen bihotzetan beti izango duzu lekua.*

Ozaetako lagunak.
Bergaran, 2018ko irailaren 21ean.

URTEURRENA



## Mertxe Arana Zuazubiskar

2012ko abuztuaren 5ean hil zen.



## Javier Bengoa Abarrategi

2017ko irailaren 11n hil zen.

Urteurreneko meza domekan, irailaren 23an, izango da, 10:45ean, Arrasateko Gesalibar auzoko Santa Ageda elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Arrasaten, 2018ko irailaren 21ean.

URTEURRENA



## Rufina Larrañaga Altube

Basilio Biainen alarguna

2017ko irailaren 23an hil zen, 92 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan, 2018ko irailaren 22an, izango da, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2018ko irailaren 21ean.

ESKER ONA



## Milagros Olalde Lizarralde

2018ko abuztuaren 24an hil zen, 83 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta egun hauetan, era askotara, maitasuna eta babesa eskaini diguzuen guztioi eskerrik asko, bihotzez, familiaren izenean.

—

Ondra elizkizuna zapatuan, irailaren 22an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan izango da.

Bertaratuko zaretenoi aldez aurretik eskerrik asko.
Oñatin, 2018ko irailaren 21ean.

# GUARDIAKO FARMAZIAK

| ARRASATE *EGUNEZ* | |
|---|---|
| **Egubakoitza, 21** | FERNANDEZ: Musakola, 11 / 943 79 22 26 |
| **Zapatua, 22** | IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39 |
| **Domeka, 23** | SANCHEZ ALVAREZ: Santa Marina 32 / 943 79 09 74 |
| **Astelehena, 24** | ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65 |
| **Martitzena, 25** | RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09 |
| **Eguaztena, 26** | ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30 |
| **Eguena, 27** | ALBERTO AZKOAGA: Ferrerias kalea 1 / 943 79 15 15 |

| BERGARA *EGUNEZ* | |
|---|---|
| **Egubakoitza, 21** | ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63 |
| **Zapatua, 22** | MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15 |
| **Domeka, 23** | MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15 |
| **Astelehena, 24** | URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74 |
| **Martitzena, 25** | ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87 |
| **Eguaztena, 26** | OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05 |
| **Eguena, 27** | ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63 |

| OÑATI *EGUNEZ BAKARRIK* | |
|---|---|
| **Egubakoitza, 21** | IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22 |
| **Zapatua, 22** | IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22 |
| **Domeka, 23** | IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22 |
| **Astelehena, 24** | GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58 |
| **Martitzena, 25** | GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58 |
| **Eguaztena, 26** | JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28 |
| **Eguena, 27** | JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28 |

**ARRASATE** *GAUEZ EGUNERO*
*(22:00etatik 09:00etara)*
2018ko abenduaren 31ra arte:
IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39

**BERGARA** *GAUEZ EGUNERO*
*(22:00etatik 09:00etara)*
2018 osoan:
MOZOS: Iparragirre 2
943 76 12 15

**Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:**
*COF Gipuzkoa* aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

# HILDAKOAK

**Jesus Zufiria Yarza.** Oñatin, irailaren 12an. 88 urte.
**Manuel Fernandez Peña.** Oñatin, irailaren 13an. 80 urte.
**Juana Uribeetxeberria Isasisasmendi.** Aretxabaletan, irailaren 14an. 100 urte.
**M. Mercedes Primo Gonzalez.** Arrasaten, 14an. 93 urte.
**Maria Angeles Esteban Alonso.** Arrasaten, 14an. 97 urte.
**Jose Antelo Fernandez.** Aretxabaletan, 15ean. 81 urte.
**Antonia Canseco Tena.** Bergaran, irailaren 15ean. 67 urte.
**Marilu Errarte Madinabeitia.** Arrasaten, 16an. 73 urte.
**Begoña Arenaza Altuna.** Aretxabaletan, 16an. 90 urte.
**Maria Arenaza Uribarri.** Aretxabaletan, 16an. 92 urte.
**Antonio Armentia Murua.** Aretxabaletan, 16an. 92 urte.
**Matias Uribesalgo Arana.** Aretxabaletan, irailaren 18an. 94 urte.

**OROILORE**
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



*Jakin ezazue nahiz eta heriotz asegurua izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.*

*Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dut beti zuentzako.*

*Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA*



**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**
edo *eskelak@goiena.eus*

▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 176 € / Goiena Klubeko bazkideendako 156 €

▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 155 € / Goiena Klubeko bazkideendako 137 €

**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

## TXUTXU-MUTXUAK













**1. Gatz Bidea egiten**
Irailaren 14an, Almen Ikastolako DBHko talde handi batek egin zuen bidea. Martitzen honetan, berriz, Kurtzeberri Eskolako eta Luis Ezeizako irakasleek egin dute.

**2. Aitor eta Naiara**
Aitor Errarte eta Naiara Cordoba elgetarrak bihar ezkonduko da. "Zorionak, bikote! Egun zoragarria opa dizue familiak! Maite zaituztegu. Izan zoriontsu".

**3. Amaia eta Iñigo**
Bihar ezkonduko dira. "Egun bikaina pasatuko dugu! Zorionak, bikote, eta izan zoriontsu! Musu handi bat, familiaren, lagunen eta Goienako lankideek partetik".

**4. Maider eta Beñat**
Arrasateko bikotea gaur, egubakoitza, ezkonduko da udaletxean. Gero, familia eta lagunekin ospatuko dute. "Lagunen partetik, zorionak eta ondo ibili eztei-bidaian!".

**5. Portugaleten dantzan**
Aramaioko Lagun Artean dantza taldekoek egun-pasa ederra egin zuten aurreko domekan, Portugaleteko Gaurko Gazteak dantza taldeak gonbidatuta.

**6. Besada eta Artola txapeldun**
Pasaiako Idoia Besadak eta Irurako Xabier Artolak osatutako bikotea izan da txapeldun Bergarako musika eta dantza eskolak antolatutako txapelketan.

## Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidaliguzu argazkia!

**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *berriak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

**Ordezkaritzak**
Zatoz Goienaren ordezkaritzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

**Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.**

# ZORION AGURRAK



BERGARA
**June Maiztegi Arruti**
Irailaren 27an, 3 urte. Zorionak eta urte askotarako, potxola, familixakuen partetik! Primeran pasatu zure eguna eta bi muxu potolo!



ARRASATE
**Araitz Gartzia Dorronsoro**
Irailaren 24an, 6 urte. Zorionak, maitia! Handitzen eta ikasten jarraitzen duzu eta zure xarmak eta bihurrikeriek maiteminduta gaituzte!



OÑATI
**Maddi Lopez Inza**
Irailaren 24an, 3 urte. Zorionak eta urte askotarako, *pituki*! Topera disfrutatu zeure eguna. Mila kilo patxo, maitte zaugun danon partetik!



OÑATI
**Maialen Maiztegi Lete**
Irailaren 23an, 11 urte. Zorionak, neska! Ondo pasatu eta ospatu eguna, etxekoekin eta lagunekin.



ARETXABALETA
**Anne Maillaut**
Irailaren 23an, 7 urte. Zorionak! Patxo handi-handi bat, etxeko danen partetik.



ANTZUOLA
**Garazi Aranburu Segurola**
Irailaren 23an, 6 urte. Zorionak, Garazi eta ondo-ondo pasatu zure eguna! Patxo handi bat, etxeko danon partetik.



OÑATI
**Eñaut Beitia Maisterrena**
Irailaren 22an, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure egunian! Patxuak Uxueren, amatxoren eta aitatxoren partetik!



ARRASATE
**June Bengoa**
Irailaren 22an, 8 urte. Zorionak, June! Oso ondo ospatu zure urtebetetzia, etxekoen partetik! Patxo handi bat!



BERGARA
**Elene Taboada Muruamendiaraz**
Irailaren 22an, 10 urte. Zorionak, Elene! Primeran pasatu zure eguna eta gozatu topera! Patxo handi bat familiaren eta, bereziki, Sararen partetik!



OÑATI
**Haizea Amado Urkia**
Irailaren 22an, 8 urte. Zorionak, politt hori! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzean. Besarkada eta muxu handi-handi bat, zure familiaren eta, batez ere, zure anaiatxo Aiurren partetik. Asko maite zaitugu!



ARRASATE
**Elene Ormaetxea Artola**
Irailaren 22an, 10 urte. Zorionak, Elene! Esku bixak beteta... Jarraittu irribarre eder horrekin, laztana! Patxuak!



OÑATI
**Danel Irizar Azkune**
Irailaren 22an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Zelako handi! Behar dan moduan ospatu eta danborra ondo fuerte jo! Patxoak etxekoen eta, batez be, anaia Unai eta Julenen partetik!



ARRASATE
**Hegoa Etxagibel Etxebarria eta Maddi Etxagibel Ruidiaz**
Hegoak irailaren 21ean, 2 urte eta Maddik 22an, 12 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxekoen partetik. Ondo pasatu!



ELORRIO
**Malen Bergaretxe Garitaonandia**
Irailaren 18an, urtebetetzea. Zorionak Malen gure printzesari, amatxoren eta aitatxoren partetik.



BERGARA
**Ega Zabala Pozo**
Irailaren 18an, 3 urte. Hiru urte! Zorionak, polit hori! Muxu handi-handi bat, familiako danen eta, batez ere, Ikerren partetik. Mua!



OÑATI
**Malen Salazar Guridi**
Irailaren 18an, 11 urte. Malen, gure etxeko printzesa, zorionak bihotz-bihotzez etxeko danon partetik! Eta eskerrik asko zaren modukoa izateagatik! Izugarri maite zaitugu!



ARRASATE
**Oihan Perez de Villarreal Perez**
Irailaren 18an, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Dagoeneko bost urte bete dituzu. Muxu potolo bat etxeko guztien eta, bereziki, Laiaren partetik.



BERGARA
**Izaro Loiola Lopez**
Irailaren 18an, 4 urte. Zorionak etxeko erreginiari. Atzo zalakuan, jada 4 urte handi. Milaka muxu erraldoi aitatxoren, Izarren, Iratiren eta amatxoren partetik.



OÑATI
**Oihan Irizar Urkia**
Irailaren 18an, 9 urte. Zorionak eta urte askotarako, danon partetik. Segi mutil zintzoa izaten.



ARRASATE
**Oihan Arriaran Zubillaga**
Irailaren 18an, 10 urte. Zorionak!



ARRASATE
**Unax Aranzabal Vitoria**
Irailaren 18an, 14 urte. Zorionak, Unax. Oso ondo pasatu urtebetetze eguna. Muxu pila bat, familia osoaren partetik.



BERGARA
**Aitor Fernandez Unamuno**
Irailaren 17an, 10 urte. Zorionak, mutikote! Ondo-ondo pasatu zure eguna, etxeko danon partetik. Muxu potolo bat!



ESKORIATZA
**June Aguirre Gandarias**
Irailaren 17an, 6 urte. Zorionak, maitia! Asko maite zaitugu. Oso ondo pasatu zure egunian. Patxo handi bat, etxekoen partetik.



OÑATI
**Markel Igartua Garcia**
Irailaren 17an, 3 urte. Zorionak, maittia! Ondo pasatu zure egunian! Patxo potolo bana, etxeko danon partetik.



ARRASATE
**Malen Beitia Jara**
Irailaren 17an, 8 urte. Zorionak, printzesa! Primeran pasatu zure eguna eta gozatu topera! Izugarri maite zaitugu. Mila patxo familiaren eta, batez ere, Unaxen partetik!



BERGARA
**Maialen Esteban Laskurain**
Irailaren 17an, 5 urte. Zorionak etxeko printzesarentzako amatxoren, aitatxoren, amamaren eta aitけitaren partetik. Mila muxu potolo!



ARETXABALETA
**Izaro Altube Uribe**
Irailaren 17an, 6 urte. Zorionak, sorgintxo! Zorionak eta milaka muxu, etxeko danon partetik.



OÑATI
**Xabat Samaniego Gonzalez**
Irailaren 17an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure egunian! Asko maite zaitugu!



ARRASATE
**Irati Rodriguez Sanzberro**
Irailaren 17an, 10 urte. Zorionak, printzesa! Aimarren, Ekainen eta etxeko guztien partetik.



OÑATI
**Inge Esparza Castaños**
Irailaren 16an, 9 urte. Zorionak, Inge, etxeko guztion partetik. Egun ederra pasatu.



OÑATI
**Izar Aramburu Gende**
Irailaren 16an, 2 urte. Zorionak, maitia. Ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu potolo bat denon partetik eta segi zure irribarreaz gure bizitzak alaitzen!



BERGARA
**Itziar Ibarra eta Iñaki Zabala**
Zorionak, aitita eta amama, zuen urtebetetzean! Aititak, irailaren 2an eta amamak, irailaren 13an. Muxu handi bat etxeko denon partetik! Batez ere, birramona Asun eta biloba Agate, Inar eta Kerman.



OÑATI
**Markel Elorza San Miguel**
Irailaren 14an, 12 urte. Zorionak, Markel! Ondo pasatu zure eguna familiarekin eta lagun guztiekin. Muxu handi bat, etxeko guztion partetik!



BERGARA
**Uxue Pozas**
Irailaren 13an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure egunean eta opari asko jaso. Patxo potolo bat, *Peña Parke*-ren partetik.



DONOSTIA
**Mikel Agirre Pinacho**
Irailaren 12an, 2 urte. Zorionak eta patxo handi bat Arrasateko amama Andrearen eta Anttoniren, arreba Maialen, izeba Amaia eta osaba Hakanen partetik!



ARRASATE
**Ibai Rodriguez Baena**
Irailaren 12an, 9 urte. Zorionak etxeko nagusiari! Anaiarik onena zara. Asko maite zaitugu. Oso ondo pasatu, Nahiaren, Jonen eta familia osoaren partetik.



ARETXABALETA
**Luken Arrillaga Zabala**
Irailaren 12an, urtebete. Zorionak, bihotza, zure lehenengo urtebetetzean! Asko maite zaitugu, *bizkotxito*!



OÑATI
**Ekhi Garcia Aramburu**
Irailaren 10ean, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure egunian. Patxo bat, etxeko danon partetik.



ANTZUOLA
**Malen Angeles Telleria**
Irailaren 9an, 5 urte. Zorionak, Malen! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta segi zan moduko *xaladia* izaten. Patxo handi bat etxeko, danon partetik.



OÑATI
**Helene Kortabarria Otxoa-Aizpurua**
Abuztuak 12an, 7 urte. Zorionak, Helene! Muxu handi bat, familixaren partetik. Segi horrela, *guapa*!.

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 21

**ELGETA Ate irekiak ludotekan**
Zerbitzua ezagutzera emateko.
*Ludotekan, 16:00etan.*

**ELGETA Ipuinen Ordua**
Boluntario talde baten eskutik.
*Liburutegian, 17:00etan.*

**ARETXABALETA Hiruko saskibaloi festa**
2007 eta 2010 urte bitartean jaiotakoendako. Izena, egunean bertan.
*Mitarte kalean, 17:00etan.*

**ARETXABALETA DBHko 1. mailakoei ongietorria**
Gaztetxoendako harrera.
*Gaztelekuan, 17:00etan.*

**ESKORIATZA DBHko 1. mailakoei ongietorria**
Gaztetxoendako harrera.
*Gaztelekuan, 17:00etan.*

**OÑATI 'Una milla puede marcar la diferencia' dokumentala**
Ostean, Itsas Laguntza Humanitarioa taldearen solasaldia.
*Kultura etxean, 18:30ean.*

**OÑATI Sagardo txapelketako finalaurrekoa**
Hirugarrena izango da. Epaile izan nahi duten herritarrek afari txartelak hartu behar dituzte aldez aurretik.
*Larrain Gain elkartean, 20:00etan.*

**ARAMAIO Marrate musika banda**
Bastidako taldeak kontzertua egingo du, Sastiñako Musika Festibalaren baitan.
*Kultura etxean, 20:30ean.*

**OÑATI Wood Strings taldea**
Rock akustikoa egiten duen Aretxabaletako taldearen emanaldia. Debalde.
*Iturri tabernan, 22:00etan.*

**OÑATI 'Euskal mitologia, gure historia' ikuskizuna**
Ganbara Faktoriaren azken lana. Nagusien sarrerak hamabi euro eta haurrenak, hamar.
*Garaineko Kirrukua zelaian, 22:00etan.*

## ZAPATUA, 22

**ARAMAIO Aitor Arana Mendi Martxa**
Marka, Murugain, Asentzio, Danborralde, Durakogain eta Orixol igo beharko dituzte. Izen-ematea, martxa hasi aurretik.
*Kiroldegian, 08:00etan.*

**ESKORIATZA Mendi martxa Atxorrotxera**
Euskal Selekzioaren aldeko ekimena.
*Fernando Eskoriatza plazan, 09:00etan.*

**OÑATI Tailer irekia**
Diagnostiko tailerra egingo du EH Bilduk.
*Gaztelekuan, 10:00etan.*

**OÑATI Bizikleta azoka**
Bigarren eskuko bizikleten eta material osagarrien azoka.
*Foruen plazan, 10:00etan.*

**ELGETA Azoka**
Frutak, barazkiak, gozoak eta artisau lanak ikusteko eta erosteko aukera.
*Mendizaleen plazan, 10:00etan.*

**OÑATI 23. Oñati Txirrindularitza Saria**
Amateur mailako 96 kilometroko lasterketa.
*Unibertsitate etorbidean, 10:00etan.*

**ELGETA Intxortako igoera**
Hiru kategoria izango dira: 12 urtera artekoak, 12-16 urte artekoak eta 16 urtetik gorakoak. Txikienek Salbadorrera egingo dute joan-etorria. Sari banaketa 13:00etan izango da.
*Mendizaleen plazan, 11:00etan.*

**ARETXABALETA Azoka berezia**
Tomatearen Astearen baitako azoka berezia.
*Durana kalean, 12:00etan.*

**ESKORIATZA VI. goitibehera txapelketa**
Adingabeek gurasoen baimena eroan beharko dute. Adin guztietako gidariendako.
*Apotzagako bidean, 15:00etan.*

**ARETXABALETA DBHko 1. mailakoei ongietorria**
Gaztetxoendako harrera.
*Gaztelekuan, 17:00etan.*

**ARRASATE Bandera jolas erraldoia**
Gaztetxoendako.
*Monterronen, 18:00etan.*

**OÑATI Haurren danborrada**
Sanmigeletako ekintza.
*Santa Marinan, 18:00etan.*

**ELGETA 'Tarantela' kale-antzerkia**
Hiru bufoik Erdi Aroko kontuak ekarriko dituzte.
*Mendizaleen plazan, 18:00etan.*

**BERGARA 'Ikasgaia' antzezlana**
Elgoibarrko Taupada taldearen antzezlan satirikoa
*Seminarixoan, 19:00etan.*



GOIENA

**ARRASATE Goikobalu gazteluaren jaia**
Ibilbide gidatua, kalejira, umeendako jolasak, dantzaldia, sokatira txapelketa, bazkaria, kanta herrikoiak, Herrixa Dantzan eta erromeria egongo dira, besteak beste, Goikobalu Erromerixie ospatzeko.
*Bihar, zapatua, Herriko Plazan, 12:00etan.*

## DOMEKA 23

**ELGETA Ganbora mendi irteera**
Amezketatik abiatuta igoko dira.
*Mendizaleen plazan, 08:00etan.*

**BERGARA Bergarako Bira**
Laugarren etapa egingo dute: Elosua-Bergara.
*San Martin plazan, 08:00etan.*

**ESKORIATZA Bizikleta martxa Arrasatera**
Mugikortasun Astearen baitan, bidegorrian egingo dute ibilaldia.
*Fernando Eskoriatza plazan, 10:00etan.*

**ARETXABALETA Bizikleta martxa familiendako**
Aretxabaleta-Torrebaso-Aretxabaleta ibilaldia egingo dute.
*Kurtzebarri eskolako kantxan, 10:15ean.*

**OÑATI Artzain Txakur Txapelketa**
59. Artzain Txakur Txapelketa.
*Santa Lutzian, 10:30ean.*

**ARAMAIO Sagardo Eguna**
12:30ean, herriko trikitilarien kalejira; eta 13:00etan, txotx irekiera, Azpiko Racing taldekoekin.
*Bizente Goikoetxea plazan.*

**ESKORIATZA Mahai-jolasen tailerra**
Gaztetxoendako.
*Gaztelekuan, 17:00etan.*

**ARETXABALETA Dantzaldia erretiratuendako**
Kultura Asteari hasiera emango diote ekitaldi horrekin.
*Mojen komentuko patioan, 18:00etan.*

**ARRASATE Sukaldaritza tailerra**
Gaztetxoek irabiatu freskagarriak egingo dituzte.
*Erdiguneko gaztegunean, 18:00etan.*

**ARRASATE '¡Shot!U' jaialdia**
Arrasateko Shot! estudioa berriro martxan jartzeko ekimena: Pablo Novoa eta Keu Agirretxea, Ruper Ordorika, Petti eta Barrenan Semiak, Ines Osinaga, Zea Maysko Aiora eta Piti, eta Huntza. Sarrerak, hamabost euro.
*Amaia antzokian, 19:00etan.*

**ARETXABALETA Ventos De Saudade taldea**
Soraluzeko taldeak fado doinuak eskainiko ditu. Sarrerak, leihatilan, lau eurotan.
*Arkupen, 19:00etan.*

**BERGARA Tana Quartet eta El Tango taldea**
Astor Piazzola musikariaren jatorrizko musika oinarri duen taldearen kontzertua. Debalde eta irekia herritar guztiendako.
*Errekalde parkean, 19:00etan.*

## ASTELEHENA 24

**OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea**
Pentsio duinak eskatzeko elkartuko dira pentsiodunak.
*Foruen plazan, 12:00etan.*

**ESKORIATZA Kale jolasak**
Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako umeendako jolasak.
*Ludotekan, 16:45ean.*

**ARETXABALETA Gazta dastatzea**
Idiazabalgo gaztaren gaineko kontuak ezagutu eta hori dastatzeko aukera, Felix Ajuriarekin.
*Basotxon, 17:30ean.*

**OÑATI Eskulan ikastaroa erretiratuendako: izen-ematea**
Gaur da azken eguna Pake Lekun egingo dituzten ikastaroetan izena emateko.
*Pake Lekun, 18:00etan.*

**OÑATI Ekarpenak egiteko batzarra**
Hiri Antolamendurako Plan Orokorra lantzeko prozesuaren lehen batzarra, herritarrekin.
*Euskaldun Berria gelan, 18:30ean.*

## MARTITZENA 25

**ESKORIATZA Ludotekaren ikasturte berria**
Irekiera festa egingo dute: 16:45ean, Lehen Hezkuntzako bigarren mailara artekoendako; eta

18:00etan, Lehen Hezkuntzako bosgarren mailara artekoendako.
*Ludotekan.*

**DEBAGOIENA Landa inguruneko plastiko bilketa**
Siloa estaltzeko, belar boletako eta berotegietako plastiko beltza eta zuria batuko dituzte. Herri bakoitzak zehaztuta ditu materiala uzteko puntuak.
*Puntu horietan, 17:00etan.*

**ARETXABALETA 'Elikadura eta nutrizioa' hitzaldia**
Erretiratuendako aholkuak eta irizpideak, Kontsumobideko kideen eskutik.
*Basotxon, 17:30ean.*

**ARETXABALETA Nerabeen substantzien kontsumoen ikerketaren aurkezpena**
Inkestek emandako datuak gurasoekin partekatuko dituzte.
*Arkupen, 19:00etan.*

**OÑATI 'Gerraosteko Euskaltzaindiaren historia kulturala: 1936-1954'**
Donostia Kulturako Antton Ugartek egingo du berba, Olaitturri antzerki taldeak gonbidatuta.
*Kultura etxean, 19:00etan.*

**OÑATI Danborradako entsegu orokorra**
Nagusien danborradako kide guztiak elkartuko dira udal musika bandarekin azken entsegua egiteko.
*Eltzian, 20:00etan.*

## EGUAZTENA 26

**OÑATI Igeriketa ikastaroak: behin betiko zerrendak**
Igeriketa ikastaroetako taldeak eta ur ekintzetako taldeak nola geratu diren ikusteko eguna. Zalantzak argitzeko eta aldaketak eskatzeko aukera ere badago.
*Kiroldegiko iragarki taulan, 08:00etan.*

**ESKORIATZA Oporretako argazki erakusketa**
Nerabeek aisialdi egunetan egindako argazkien bilduma ikusgai.
*Gaztelekuan, 16:30ean.*

**BERGARA Eguaztenetako azoka**
Etxeko baserritarren produktuak erosteko aukera.
*Oxirondon, 18:00etan.*

**OÑATI Txillardegiri buruzko hitzaldia**
Fito Rodriguez irakasleak egingo du berbaldia.
*Kultura etxean, 19:00etan.*

**ESKORIATZA Nerabeen substantzien kontsumoen ikerketaren aurkezpena**
Inkestek emandako datuak gurasoekin partekatuko dituzte.
*Zaldibarren, 19:00etan.*

## EGUENA 27

**OÑATI Garbigune ibiltaria**
Herritarrek utzitako materiala batuko dute.
*Olakuan, 10:30ean.*

**ESKORIATZA Mahai-jolasak**
Txapelketa egingo dute neska-mutikoek.
*Ludotekan, 16:45ean.*

**ARETXABALETA Erretiratuen moda desfilea**
Moda desfilea egingo dute, Kultura Astearen barruan. Aurretik, Basotxoko kantu taldeak emanaldia egingo du.
*Basotxon, 17:30ean*

**OÑATI Txillardegiren omenezko plaka**
Arantzazuko Milikua tabernan ipiniko dute.
*Milikuan, 19:00etan.*

**OÑATI 'Resurreccion Maria Azkue eta Euskaltzaindia'**
Olaitturri antzerki taldeak prestatutako herri antzerkiaren estreinaldia. Debalde.
*Santa Anan, 19:00etan.*

**ESKORIATZA Ostegun Bidaiariak: 'Urrutiko bidaiatik, barneko bidaiara'**
Naia Pagoagak egun kopuru zehatzik gabeko bidaia egin zuen, motorrean: Montesinho parke naturalean hasi eta Algarbeko itsasertzeraino.
*Zaldibarren, 21:00etan.*

## ZINEMA

**ARRASATE**

AMAIA ANTZOKIA

**Yucatan**
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Los increibles 2**
Zapatua: 17:00.

**OÑATI**

KULTURA ETXEA

**El mejor verano de mi vida**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**EIBAR**

COLISEO

**Un oceano entre nosotros**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**La monja**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA

**Yucatan**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**HERRIA**

FLORIDA

**Jonhnny English**
Egunero, martitzena izan ezik: 12:55, 15:55, 17:55, 19:55, 21:55, 23:55.
Martitzena: 15:55, 19:55, 21:55.
Egubakoitza eta zapatua: 13:55, 16:55, 18:55.
Domekatik eguenera: 19:00, 21:00.

**En el corazon den teatro real**
Domeka eta eguena: 20:00.

**Los increibles 2**
Zapatua eta domeka: 12:15.
Egunero: 15:45, 18:15, 18:45, 21:45.

**Yucatan**
Zapatua eta domeka: 13:30.
Egunero: 17:00, 19.40, 22:15.

**Predator**
Egunero, martitzena izan ezik: 12:40, 15:50, 18:00, 20.10, 22:20, 00:30.
Martitzena: 15:50, 18:00, 22:20, 00:30.

**La monja**
Egunero, martitzena izan ezik: 13:00, 16.15, 18:20, 20:25, 22:30, 00:30.
Martitzena: 16.15, 18:20, 20:25.
Egubakoitza eta zapatua: 21.30, 23:30.

**Alpha**
Zapatua eta domeka: 13:05.
Egunero: 16:05, 18:05, 20:05, 22:05, 00:05.

**Todos lo saben**
Zapatua eta domeka: 13:10.
Egunero: 16:00, 18:40, 21:25, 00:10.

**Megalodon**
Egubakoitza, zapatua, eta astelehenetik eguaztenera: 17:40, 20:00, 22:25.
Domeka eta eguena: 17:40, 22:25.

**Los futbolisimos**
Zapatua eta domeka: 13:15.
Egunero: 16:05, 18:10.

**Teen titans go!**
Zapatua eta domeka: 12:10.
Egunero: 15.50.

**El mejor verano de mi vida**
Egunero: 20:20.

**Mision imposible**
Egunero: 22:15.

**Hotel Trasilvania 3**
Zapatua eta domeka: 12:30.
Egunero: 16:00.

**Campeones**
Egunero: 21:00.

**Al aire patos**
Egubakoitza, zapatua eta domeka: 12:45, 15:45, 17:45.
Astelehenetik eguenera: 15:45.

**Book club**
Egubakoitza, zapatua eta domeka: 19:55, 22:10, 00:20.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:45, 19:55, 22:10.

GORBEIA

**Hotel Transilvania 3**
Egubakoitzetik domekara: 17:00.

**Mision imposible**
Egubakoitza eta zapatua: 19:35, 22:30.
Domeka: 19:35.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

**Matar a Dios**
Egubakoitza eta zapatua: 20:35, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:15.

**Predator**
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30.
Domeka: 12:00, 17:30, 20:00.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

**Johnny English**
Egubakoitza eta zapatua: 16:45, 18.40, 20:35, 22:30.
Domeka: 12:00, 16:45, 18.40, 20:35.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:00.

**Enamorado de mi mujer**
Egubakoitza eta zapatua: 18:45, 20:40, 22:30.
Domeka: 18:45, 20:40.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:00.

**La monja**
Egubakoitza eta zapatua: 18:30, 22:30.
Domeka: 18:30.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:00.

**El mejor verano de mi vida**
Egubakoitzetik domekara: 17:15.
Astelehenetik eguenera: 18:00.

**Yucatan**
Egubakoitzetik domekara: 19:50.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

**La aparicion**
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:40, 22:20.
Domeka: 17:00, 19:40.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

**Megalodon**
Egubakoitza eta zapatua: 19:30, 22:10.
Domeka: 19:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

**Todos lo saben**
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 19:50, 22:30.
Domeka: 17:15, 19:50.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

FLORIDA

**Todos lo saben**
Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.

**Yucatan**
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

**Predator**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 20:15.

**La monja**
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 22:30.

**The rider**
Egubakoitzetik domekara: 18:20, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**El capitan**
Egubakoitzetik eguaztenera: 17:00, 19:45, 22:30.

**Carmen y Lola**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 22:30.

**El escandalo Ted Kennedy**
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

KRITIKA

**Todos lo saben** ★★★☆☆
**Zuz.:** Asghar Farhadi. **Herr.:** Espainia (2018). **Aktoreak:** Penelope Cruz, Javier Bardem, Ricardo Darin.

# Konpondu gabeko arazoak

**ANTONIO ZABALA**

Asghar Farhadi zuzendari irandarra azkeneko filmekin Europara hurbiltzen joan da. Aurreko filma, *El Pasado*, Parisen gertatu arren, bazeuden Irandik etorritako pertsonaiak. Orain, pauso bat gehiago emanez, Espainian gertatzen den istorioa kontatzen du; eta pertsonaiak espainolak edo argentinarrak dira. Farhadiren istorioetan pertsonaiei ezusteko bat gertatzen zaie. Egoera hori onartzea asko kostatzen zaie, eta horrek eragin hondatzaileak izango ditu. Normaltasunez bizi direla ematen badu, poliki-poliki pertsonaien alde ezkutua eta gordetako sentimenduak kaleratzen joango dira. Euren artean, konpondu gabeko arazoak dituzte. Ezaugarri hori Iranen egindako filmetan zegoen, eta orain mantendu egiten da Europan egindako lanetan. Dena den, *Todos lo saben* pelikulan, gauzak lotuagoak uzten ditu zuzendariak. Beste film batzuetan, azkenean, ikusleak ez daki zehatz-mehatz benetan zer gertatu den. Honetan, gertatzen den bahiketa argitzen da. Baina bukaerak badu bere ukitu bihurria: sekretuek eta gezurrek sekretu eta gezur gehiago dakarte atzetik.

Agian, azken film honen aldaketa nabarmenena pertsonaiek euren sentimenduak azaltzeko duten moduan dago. Zuzendariak pertsonaien alde basatiena harrapatu eta islatu nahi du: negarrak, garrasiak... Asghar Farhadi zuzendariak lortzen du bere helburua eta bere zinemaren ezaugarriak mantentzen ditu.

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es

Zu hemen zaude.
goiena

AZKEN BERBA



AGURNE BARRUSO

## Lapurrak

Udako opor-aurretik hasi ginen master faltsuen kontuarekin gora eta behera. Egia esan, jada zaila da jakitea Estatu Espainoleko politikarien artean inork badaukan bere kabuz ateratako masterrik. Hala ere, eta gaia larria izanda ere, oporretatik bueltan gezurrak, ustelkeria eta lapurretak ez direla bakarrik Estatu Espainoleko kontua eta hemen eta bertakoen artean ere lapurreta latzak egin direla eta seguruenik egiten direla da notizia.

De Miguel kasuan, fiskaltza eta akusatuen abokatua akordio baten bila omen dabiltza, zenbait akusazio onartu eta zigorra txikiagoa izan dadin. EAJko kide (izan) diren eta kide izate horretaz baliatu diren 26 pertsona eseri dira akusatuen aulkian, beraien karguez baliatuz dirutzak eskuratu dituztelako, beraientzat eta beraien etxekoentzat.

PPko presidentea presidentetzatik kendu genuen ustelkeriak jota zegoelako. Zentsura mozioaren bidez bota ere. Bi kasuak berdinak ez direla jakinda ere, zergatik sortzen du hemen gertatutako ustelkeriak Estatuan gertatutakoak baino zalaparta gutxiago? Nik ez dut Euskal Estatu korruptu batean bizi nahi eta hemen, gobernatzen duen alderdiko kide askok badituzte beraien korruptelak.

BUKATZEKO

# Txakurren eskubideen alde, aita santuarengana

Donejakue bidea egin zuten martxoan Aretxabaletako Mari Carmen Astigarragak eta haren 'Neo' txakurrak. Bidean arazoak izan zituzten, txakurrak ostatu askotan eta elizetan ez dituzte-eta sartzen uzten. Orain, aldarria Vatikanoraino iritsi da

**Miren Arregi** ARRASATE

Donejakue bidean ostatu publikoetara zein elizetara txakurrak sartzeko aukera ahalbidetzeko eskaria Vatikanora iritsi da astean. Hain zuzen ere, aldarrikapen horrekin egin dute Erromara Aretxabaletako Mari Carmen Astigarragak eta haren border collie *Neo*-k. Frantzisko aita santuak audientzia emana zien Astigarragari eta haren txakurrari eta eguaztena, irailaren 19a, zen egun handia.

Urduri samar joan zen Astigarraga aita santuarekin zeukan hitzordura. Frantzisko eta *Neo* argazkian jasotzea zen helburua. "Guretzat, garrantzi handia du aita santua *Neo*-ri eskua ematen ikusteak eta argazki hori mundura zabaltzeak", zioen audientziaren bezperan.

Eguaztenean, goizean goiz egin zuten San Pedro plazara. Kontrol zorrotzak gainditu ostean, bigarren ilaran hartu zuten tokia. Tamalez, baina, aita santuak *papamovil*-ean egin zuen bidea, eta, ondorioz, ezin izan zuen desiotako argazkirik egin. "Pozik geunden, esperantzaz beterik, baina gaur ez da han batu garenokin gelditu, *papamovil*-ean egin du bidea, eta ezin izan dio gu *Neo*-rekin argazkirik egin", zioen, penaz, aretxabaletarrak. "Hala ere, honaino iritsi gara, jendeak ikusi gaitu, gure aldarrikapena ikusarazi dugu eta babes handia jaso dugu. Pentsa, Kolonbiako telebista batek erreportajea ere egin digu".



Mari Carmen Astigarraga eta *Neo*, Vatikanoan. MARI CARMEN ASTIGARRAGA

### Lehenengo txakur erromesa

Aipatu moduan, Donejakue bideko ostatu publikoetan eta elizetan txakurrak sartu ahal izateko aldarrikapena aita santuarengana eroatea zen asmoa. "Berriki egin dut Santiago bidea *Neo*-rekin eta toki askotan ezin izan du sartzerik izan. Santiagoko katedralean ere ez ziguten sartzen utzi", dio Astigarragak.

### Erromes agiriarekin

APACA animalien babeserako elkarteak emandako Perregrina izeneko erromes agiriarekin bidea egin duen lehen txakurra da *Neo*. "*Neo* izan zen lehena, eta dagoeneko 700dik gora dira bidea egin duten txakurrak. Urte bukaerarako 1.000 inguru izatea espero dugu". Animalientzako kredentzialak, baina, ez du ofizialtasunik, eta horrek eta beste oztopo batzuek txakur erromesen eskubideen alde borroka egitera bultzatu dute *Neo*-ren bidelaguna.

Helburu osoa lortu ez badute ere, pozik da Astigarraga bidaiak eman duenarekin. "Vatikanoan asko eta asko izan dira gure aldarrikapenaren inguruko interesa azaldu dutenak eta bidaia ere oso erosoa egin zaigu. Izan ere, hemen ez dago arazorik txakurrarekin metroan, tranbian, jatetxeetan... sartu ahal izateko. Europan erraza da. Euskal Herrian eta Espainian, toki askotan, sartzeko arazoak ditugu".

